



ttipi-ttapa



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK / 29



GENERO INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEENDAKO BABESLEKUA


Genero indarkeria jasan duten emakumeei espazio seguru bat eskaintzeko helburuarekin, Aske Emakume Taldea sortu dute Malerrekan. Malerrekatik kanpo, Baztan eta Bortziritako emakume guziei egin diete gonbita. / 10

FREEPIK

Bortzeguna hilaren 12an Etxalarren

Bortziritako Euskaltzaleen Eguna antolatu du Bor-bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimenduak urriaren 12rako. / 20

SINADURAK



ZOZKETA / 76



Mikel Artieda
Berako musikariaren
ibilbideari
errepasoa / 8

**EHko gaztetxe eta
gazte asanbladen
topaketa urriaren
19an Leitzan / 45**

**Baigorriko eta
Baztango gazteen
topaketa hilaren
19an Elizondon / 54**



**Abeltzainek dituzten
arazoez aritu da
Pello Borda
urdazubiarra / 58**



bardoak

2024
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa
Irailaren 13tik urriaren 26ra

Finalurrekoak

- IRURTZUN.** Urriak 4 ostirala. Pikuxar Elkartean, 18:30ean. **C eta D multzoetako lehenak.**
- TAFALLA.** Urriak 4 ostirala. Aguazon Peñan, 19:00etan. **A eta B multzoetako lehenak.**
- IRUÑEA.** Urriak 4 ostirala. Aldapa Peñan, 19:00etan. **A, B, C multzoetako bigarren lehena eta A, B, C multzoetako bigarren bigarrena.**
- ETXAURI.** Urriak 12 larunbata. Udaletxean, 19:00etan. **C eta D multzoetako lehenak.**
- IRUNBERRI.** Urriak 12 larunbata. Larrainenean, 19:00etan. **A eta B multzoetako lehenak.**
- TUTERA.** Urriak 12 larunbata. Beterrin, 19:00etan. **A, B, C multzoetako bigarren lehena eta A, B, C multzoetako bigarren bigarrena.**



www.bertsozale.eus



BERA LESAKA

Agenda 2024

URRIA




www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus



URRIA
3
ORTZEGUNA

18:00 Liburutegia

**LIBURU AURKEZPENA
GAZTEAK ETA PANTAILAK**
Nerabeen garrasia Osasun mentala
aldaketa garaian



LESAKA

5
LARUNBATA

**ANTZERKIA
EZKABA ILUNA PRODUCCIONES**
19:00 Kultur Etxean | Sarrera: 7€
Antolatzailea: Berako Udala
Laguntzailea: Nafarroako Gobernua

BERA

12
LARUNBATA

**BERTAKO EKOIZLEEN
MERKATUA**
10:00-13:30 Beralandetan

BERA

13
IGANDEA

**HAURRENTZAKO
ANTZERKIA
ANBOTOKO MARI
LOGELA MULTIMEDIA**
Sendaberrri programa

17:00 Kultur Etxean | Sarrera: 4€
Antolatzaileak: Labiaga ikastola eta Nafarroako Antzoki Sarea
Laguntzaileak: Berako Udala eta Nafarroako Gobernua

BERA

15
ASTEARTEA

14:30-16:30
Koskontako Bidea 7
2 Udal Aretoa



LESAKA

19
LARUNBATA

12:00 Herriko plazan
14:00 Bazkaria



LESAKA

19
LARUNBATA

19:00 Kultur Etxean
Sarrera: 10€



BERA

25
ORTZIRALEA

**LIBURU AURKEZPENA
BERATARRAK
ROSA ERRANDONEA**
19:00 Kultur Etxean
Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte

BERA

26
LARUNBATA

10:00-14:30 Behoko Plaza

LESAKA

26
LARUNBATA

12:00-14:30
Luzera: 4,9km
Izen-ematea:
Iamotenean edo kirolprobak.com
Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte

BERA

27
IGANDEA

LURRAREN EGUNA -
Eskulangileak, sagardo eta gasna
lehiaketak, bertsolariak, barazki
eta fruitu erakusketa, taloak...
Antolatzaileak: Gure Txokoa elkarte eta Berako Udala

BERA

31
ORTZEGUNA

**TAILERRA
AZKEN OTSOA (6-8 URTE)**
17:30 Liburutegia
TOPAKETA IDAZLEAREKIN
EL PUEBLO NO PERDONARA
I. GOIKOETXEA
18:30 Liburutegia

LESAKA

31
ORTZEGUNA

19:00 Kultur Etxean



BERA



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

Eraikuntza enpresak, herria egiten

Doneztebetik pasatu ginen aurrekoan, eta karpa erraldoiak ikusi genituen garai batean Bordatxo dantzalekua zegoen tokian. Zer ote? Lagun baten bidez jakin genuen, eskualdeko eraikuntza enpresa handienak urteurren festa antolatu zuela, herritarrei egitarau tontagarri eta ponposoa eskainiz. «Zementuak eta hondamenera garamatzaten obrek finantzatutako besta» jar zezakeen sarrerako atean, edo, «Gozatu iberikoez eta pateaz, eman eskerrak Abiadura Handiko Trenari». Ezin ukatu jokaldi perfektua denik. Bat: herritarron zergekin proiektu txikitzaile eta xahutzaileak finantzatzen ditu gobernuak. Bi: honek, urtero ehunka milaka euroko irabaziak dituen enpresari dirutza ordaintzen dio lanengatik. Hiru: enpresak, bere irabazien zati txiki-txiki-nano batekin herritarrentzako puntako festibala antolatzen du, kutsu herriko, keinu solidario eta guzi. Denok pozik, ezta? Bada, beti gaizki pentsatzen dugun erretxinak izanen gara agian, baina segituan bururatu zitzaigun: ez al da botere erakustaldi eta aurpegi zuriketa nabarmena? Tira, baina egia da, betekada baten ondoren pentsatzeko gaitasuna guk ere galtzen dugula...

«BETI GAIZKI PENSATZEN DUGUNAK IZANEN GARA, BAINA...»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zero kilometroaz

Uda igaro denean, 0 kilometroko produktuei buruz sortutako kezka datorkit burura... Ondoko baserrian erositako gazta Saloura eraman eta han ere 0 km izaten segitzen du? Osorik bueltatu nuen etxera... Galdutako kategoria berreskuratuko luke orduan? Eta Mallorcako ekoizle bati erositako etxeko ensaimada, Euskal Herrira ekarri eta 0 km da oraindik?

NABARMENTZEKOAK



HENRI ERRANDONEA
SARATARRA IPBKO BURU



MAIALEN URTXEGI BIDEGAIN
NARBARTEKOA

Zortzi urtez Iparraldeko Pilota Batzordeko idazkari nagusi izan ondoren, Henri Errandonea saratarra komitearen presidente izendatu dute, talde berri eta gatzetu batekin.

Banatu dituzte Ordizian egiten duten Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako sariak, eta Maialen Urtxegi Bidegain narbartearra izan da irabazle 13 urtetik beherakoen haurren mailan.

GIBELERA BEGIRA



2014-10-02 · TTIPI-TTAPA · 623 zk.

ELA gaixotasuna mintzagai

Esklerosi Lateral Amiotrofikoa (ELA) eritasuna izan zen mintzagai duela 10 urteko 623. aldizkarian. Eritasuna ezagutarazteko eta ikerkuntzara bideratzeko diru biltzeko *Ice Bucket Challenge* izeneko erronka egiten ari ziren mundu osoan, eta eskualdera ere ailegatu zen. Amañu Sokatira Taldekoak busti ziren bi urte lehenago gaixotasun horrekin hildako Joxe Jabier Sarratea taldekidea gogoan. TTIPI-TTAPA Sarratearen gurasoekin bildu zen beren esperientzia biltzeko. Eritasuna bapatean sortzen dela azaldu zuen Martin Sarratea aitak. Mari Paz Azkargarra amak, aldiz, esperientzia gogorra zela azaldu zuen: «Eritasuna ez bazaizu tokatzen ez dakizu zein gogorra den... gogorra da, triste, eta inguruondako lan handia da».



erran.eus



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mixelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Aritzegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberrigarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€





KOLABORAZIOAK

MIREN RUBIO ITURRIA

Hegazti herrariak

Zenbat eta zenbat hegaztik zeharkatuko ote dituzte gure lurak hilabeteotan, Iparraldetik Hegoalderako bidean. Zenbat tamaina, kolore eta lumadi diferente, zenbat txio eta kantu ezberdin.

Bidasoa zeharkatzearen den senegaldarra imajinatzen dut kurrilo saldo horietako bati begira. Berak egindako bidea urratzen ari dira, hain erraz eta zaratatsu.

Zenbat eta zenbat Boli Kostako, Marokoko edo Mauritaniako hegazti herrari saiatuko dira Bidasoa zeharkatzen, zaratarik gabe, itzalpean. Laboaren kantuak dioen bezala, argia eta itzalaren arteko mugan pausatuta. Hegazti horiei begira sasia.

Ikusi nahi dituenak SOS Arrazakeriak eginda dauka Irunera etortzen direnen erretratua, Bidasoa zeharkatzen dutenena. Denek dute iparrorratz bera: bizitza hobe baten berotasuna. Hegaztiak nola, bakoitzak du bere hegaldia: lan bila, indarkeriatik ihesi, ikasten segitzeko gogoia, Parisko senideekin elkartzeko nahia... eta guztiak errepikatzen dute esaldi bera: infernuaren antza du bideak.

Zerura begira egon zitekeen maliar baten hitzak dira, SOS Arrazakeriaren ikerketak bildutakoa: «Marokon oiloak

hobeki tratatzen dituzte beltzak baino».

Bi eta lau urte behar dituzte Bidasora ailegatzeko. Bi-lau urte esklabotzan eta muturreko indarkerian bi-lau urte baino gehiago dira. Ez da ez udazkenik, ez

udaberririk eurentzat. Eta Bidasoko mugara ailegatuta, ehiza sare etengabea zaie muga: eta hala ere, behin eta berriz saiatuko dira zeharkatzen, lortu arte: «Komisariara atxilotuta eramaten banaute, txikikeria bat izanen da orain arte egin didaten guztiaren ondotik».

Hegazti guztiak ez dira helmugara ailegatzeko, ordea. 2014. urteaz geroztik, Mediterraneoan zeharkatzen 30.000 lagun gutxienez hil direla kalkulatu dute erakundeek. Aurten dagoeneko 5.000 baino gehiago dira, eguneko 33 lagun. Eta zenbat eta zenbat desagertu. Zenbat etxe semearen edo alabaren deia hartu gabe.

Bidasoa ere bidearen bukaera da aunitzentzat. Gure etxe ondoan gutxienez hamar pertsona hil dira.

Gure zeruak zeharkatzen dituzten zenbat hegazti ailegatuko ote dira euren helmugara eta zenbat bidean galdu? Zenbat gure lurretan zendu?

Bidasoan ere udazkena da, behin eta berriz.



MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

‘Palestinar erresistentzia babestu. Israel eta bere konplizeei aurre egin’

Zenbat hilketa behar dira asaldatzeko? Beharbada, kilometro bezainbeste? Esan nahi dut, ezaguna bada eta herri berekoa, ziur batekin nahikoa dela. Urrutiago gertatuz gero...

1948tik gaur arte, 130.000 palestinar baino gehiago erahil dituzte. Azken 10 hilabeteetan soilik 40.000tik gora, eta are gehiago zauritu, etxerik gabe utzi, urik gabe... Ez dago bi estatuen soluziorako tarterik, ez dago erdibiderik. Palestinaren askatasuna lotuta dago Israelen desagerpenarekin.

Mendebaldeko estatuek (AEB buru dutela) badute zeresana sarraski honetan, hasiera-hasieratik. Mundu arabiarrean estatu aliatu bat izan eta merkataritza bide nagusiak kontrolatzeko nahiak eramanda hauspotu zuten Israelgo estatu sionistaren sorrera, hau da, Palestinaren gaineko kolonizazioa. Orain, Israel iparralderantz gerra hedatu nahian ari dela ematen du Libanoko erasoekin eta izugarria bezain esperotakoa da nazioarteko inpunitatea. Sarraski bat ari gara ia-ia denbora errealean ikusten, mendebaldeko estatuen onarpen eta babesarekin.

Palestinar herriari eta haren erresistentziari babesa emateaz gain, beharrezkoa da erantzuleak seinatzea eta

egoera betikotzen duten mendebaldeko enpresa, gobernu zein alderdi konplizeak salatzea.

«KILOMETRO BEZAINBESTE HILKETA BEHAR DIRA ASALDATZEKO?»

Esaterako, CAF enpresak lurralde okupatueterako trenbide azpiegitura eraikitzen du eta

Espainiako Gobernuak –inoizko alderdi aurrerakoiarena (sic)– israelekin harremanak normaltasunez mantentzen ditu –armak salerostera!–.

Bide batez, irratian entzun dut gaur «asesinos palestinos» eta «defensa militar israelí» esaldi berean. Segituan aldatu dut irratiz; zer nolako eragina duten mendebaldearen propaganda bideek (ezin zaie komunikabide deitu) gizartearengan... Beharbada horrek ere izanen du eragina hilketa guztien aurrean kaleak erabat oraindik ere hartu ez izanarena. Irakur ditzagun komunikabide libreak (gonbitea hemendik *Gedar.eus* bisitatzeke).

Testu honen izenburua darama lematzat urriaren 5ean Bilbon Palestinarekin Elkartasuna plataformak deituriko manifestazioak. Beharbada hau irakurtzen ari zarenerako igaro da urriaren 5a: zenbat komunikabidetan atera ote da?

11 GALDERA LABUR

GAIZKA LEITZA ALDUNTZIN LEITZAKO GAZTEA

«Egindakoari bihotza eskaintzen saiatzen naiz»

Nor da Gaizka Leitza?

29 urteko gaztea naiz eta artea edo sorkuntza den guztiak zirrara sortu eta pozten nau.

Argazki kameraren atzean edo fokuen argipean, non gusturago?

Biak ditut gustuko, bakoitzak dauka berea. Fokuen argiak, momentu batez, beste ni bat izateko aukera ematen dit. Kamerak, berriz, mundua zein koloretakoa ikusten dudana erakusteko balio dit. Ikuslea nire begietara eraman eta izoztutako momentu horren atzean egon daitekeen istorioan murgildu ahal izatea gustatzen zait.

Nondik heldu zaizu afizioa?

Betidanik gustatu izan zait irudia, eskulanak, sorkuntza... eta argazkilaritza adierazteko aitzakia bat dela uste dut.

Nola ikasi duzu?

Besteek egiten dutena eta mundua begiratuz, baina garrantzitsuenak, argazki kamera hartu eta kalera ateraz.

Orain arte ateratako argazkietatik, baduzu kuttunen bat?

Ikusi dudana arima erretratatzeko lortu dudana argazkiak.

Gustura aterako zenukeen bat?

Ezustekoan ateratakoak izaten dira onenak, baina baztertutako pertsona, gauza, leku eta istorioaren batenak, agian.

Barraren atzeko aldetik ere, ez da ikuspegi txarra izan?

Barraren atzean jende zoragarria topatu dut eta naizenaren asko zor diet haiei, haien mundua begiratzeko moduari. Tabernak erakutsi didan gauza inportanteenetako bat egindakoari bihotza eskaintzea da.

Musikatik ere ez zabilta aparte...



15 bat urterekin hasi nintzen gitarrak jotzen, neure kabuz. Solfeorik eta partiturak irakurtzen jakin gabe, baina gogo eta ilusioz gainezka. Ordutik, ez dut ikasteari utzi.

Atekabeltzeko parte ere bazara.

Egindakoari bihotza jartzearen erakusle garbia da. Auzolanean, autogestioan, ezere truke lan egin duten zoro kuadrilla bat mundu politago bat eraikitzen... Pozez eta harrotasunez betetzen nau horrelako proiektu baten parte izateak.

Topaketak izanen dituzue urrian.

Ni ez nabil antolakuntzan, baina ziur nago bihotzez betetako egitarau bat ekarriko digutela. Muxu bat hemendik lanean zabiltzatenei eta eskerrik asko! Auzolana, maiatasuna eta autogestioa!

Gazteen eskuetan dago aldaketarako giltza?

Gazteak dira aldaketa. Denborak hegan egiteko gaitasuna kentzen digu eta gazteak dira mundua ulertzeko modu berriak ekarriko dituztenak.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toallak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Saharatik Iturenera

ITZIAR BAZTERRIKA ARRETXEA

UDAN SAHARATIK ITURENERA ETORRI DIREN UAFA, WANHA ETA BRAHIMEN IZENEAN

Uafa, Wanha eta Brahim gara, eta Oporrak Bakean programaren eskutik ailegatu ginen arratsalde batez Iturenera, uztailaren 3an zehazki.

Hilabete hasiera ez zen samurra izan. Saharar familiaz aunitz oroitzen ginen, eta ohitura berri aunitz ziren ikasi beharrekoak. Hasieran zeinu bitartez komunikatzen ginen, eta uda akitzerako gaztelera zein euskara pixka bat solastatzea lortu dugu.

Uda desberdina izan da, zoragarria. Batetik bertzera ibili gara gure lagun berriekin. Zenbat abentura herriko plazan, errekan, igerilekuan... Gure uretako mahukatxoekin alde batetik bertzera, hain handia den itsasoa ere ezagutuz!

Baina dagoeneko hilabete pasa da kanpamentuetara ailegatu ginenetik eta gure esker ona adierazi nahi diegu gure familia euskaldunei, familia bilakatu garelako, Baztango Udalarri emandako agur goxoarengatik, Saharaztan elkarteari, elkartasun programa honen sostengu sendo zaretelako eta azkenik, Iturengo gazte zein herritarrei. Etxean sentiarazi gaituzue. Eskerrik asko.

Sahara libre!

Tradizioa eta iraunkortasuna

JASONE MITXELTORENA OZKARITZ

Sara eta Etxalar herrien berezitasuna den eta elkartzen gaituen jarduera ospatuz, Usategietako Tradizioaren besta egin genuen irailaren 22an, bertze urte batez.

Tradizioa erraten dugu aspalditik egiten delako, baina baita gure herriko ohiturazko jardura den heinean, kultura ere badelako. Ohartzen gara horrek izan dezakeen zentzu ezkorraz, adibidez, kaltegarria den eta ohituraz finkaturik den jardura bat aldatzeko

zailtasuna. Ez dugu, noski, halakorik indartuko hemen, hitzaren erranahirik aberatsena agertuko baitugu.

Izan ere, tradizioak ohiturazkoa erran nahi du, gizaldiz gizaldi egiten dena, «oroitezinezko denboretatik», antzinako araudietan erraten den moduan. Eta horrek iraunkortasuna agertzen du. Pello Apezetxeak Usategietari buruz zioena oroituz, hainbertze mendez ari eta segitzen badu, inguruarekin nolabaiteko errespetua baduela ageri dela erraten ahal dugu. Hala baieztatzen zuen Lizarrietako lepoan usoen begirale zen Sergio Barandek ere: «Sare ehizak pasako usoaren gain duen eragina gutienekoa da, ez baitu haren populazio kopurua aldatu».

Iraunkortasunak inguruarekiko oreka zaintzea galdetzen du. Inguruarekin geroz eta axolagabeago den gizarte zabarkeriaren aitzinean, bertze eredu bat bizi dugu hemen. Horrekin batean, inguruari egokitzeko gaitasuna ere nabarmentzen ahal dugu; tokian tokiko baliabideekin aritzea, naturaren eta aroaren gorabeherei moldatzea eta garai bakoitzeko erronkei buru egitea... Azken hori azpimarratuko genuke: gure garaiko bakoitz-beretasuna eta diruaren lehentasuna alde batera utziz, talde egitura duen eta irabazi asmorik gabea den lana ezkontzeko ahalmena.

Dirua jaingo bihurtu dugunetik «jainko ttiki» sobera ugalduta zaigu, norbera bere buruarekin aski dela eta ingurua bakoitzaren mesederako baliatuz bizitzea posible delakoan. Hortik bidea labur, horrek ez du irauten ahal. Ingurua guretu beharrean gu inguruari moldatzeak dakar biziaren segida, bide horretan irabaziko bizia. Irautea *irauzte*a (irabaztea) delako; xume bagara ere berma eta bizi Usazaleak!

Bihotz bihotzez eskerrak besta egun ederra gozatuz gure alde egin duzuen guzietan, eta bereziki, hainbertze laguntzen diguzuen saratarrei.

PSOE Frantziaren kontra

FERMIN ZABALZA ALEMAN

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

2009. urtean, Nafarroako Gobernuan UPN zegoela, errepideetako seinaleetan Francia soilik jartzen zuten, hots, gaztelania hutsean. Herritar batek kexa jarri, eta Arartekoak gobernuari gomendatu zion elebitan jartzeko, hau da, Frantzia/Francia (09/589/C espediente). Eta Nafarroako Gobernuak bete egin zuen, handik aurrera.

Ordea, duela hiru urte, 2021. urtean, Nafarroako Gobernua N-121-A errepidea berritzen hasi zen Ezkaba-Olabe tartean, eta berriz ere Francia bakarrik jarri zuen seinaleetan, Frantzia gabe.

Herritar batek berriz kexa jarri, eta Arartekoak berriz ere gomendatu zion Nafarroako Gobernuari elebitan jartzeko (Q21/935 espediente). Baina oraingoan, UPNrekin ez bezala, Nafarroako Gobernuak ez zuen onartu. PSOEren eskuetan dagoen Lurraldearen Kohesiorako Departamentuak erantzun zion ez zegoela legez behartua errotuluak elebitan jartzera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiarengatik. Egia da: 2017an, PSOEko Juan José Lizarbek errekurtsioa jarri zuen Euskarari buruzko 103/2017 Foru Dekretuaren kontra, UGT sindikatua ordezkaturik, eta epaileek artikulu batzuk baliogabetu zituzten, besteak beste, elebitan egindako errotulazioari buruzkoak. Arartekoak gomendatu zion elebitan jartzeko, legez behartuta egon gabe ere («eremu mistoan»), baina Nafarroako Gobernuak ezetz esan zuen.

2023an Nafarroako Gobernuak N-121-A errepidea berritu zuen Soraurenetik Sunbillarako tartean: Hamarnaka seinaleetatik (gehienetatik) kendu zuen Frantzia, eta erdarazko Francia bakarrik utzi. Berriz ere kexa jarri zuen herritar batek, eta Lurraldearen Kohesiorako

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Departamentuak (Óscar Txibite kontseilariaren esku) era guztietako argudioak eman zituen euskarazko forma ez erabiltzeko. Baina Arartekoak ez zituen onartu, eta gomendatu zion elebitan jartzeko (Q24/55 espediente): Alde batetik, esan zuen «eremu euskaldunean» seinaleak legez elebitan jarri behar zirela, 2017ko epaia gorabehera. Beste aldetik, esan zuen eremu mistoan ez zegoela errotuluak «gaztelaniaz eta euskaraz jartzea eragozten duen ezer. Irizpide inklusibo hau (...) errespetu, babes eta sustapen printzipioekin lerrokatuta egoteaz gain, aplikatzeko erraza da, behar bezala aurreikusiz gero ez du baliabide gehigarriarik eskatzen».

Azkenik, 2024an, Lurraldearen Kohesiorako kontseilari Óscar Txibitek esan zuen gomendioa onartuko zuela... baina etorkizunean! «Trafiko seinaleek kostu handia dutenez, (...) trafiko seinalea edo kartela soilik aldatuko da hondatzen denean, betiere bandalismoagatik hondatu ez bada».

Zenbat iraun dezake trafiko seinale batek? 20, 30 urte? Hauxe da Nafarroako Gobernuaren estrategia: euskararen kontra errotulatu, norbait kexatzen bada aitzakiak eman, luzamenduetan ibili, eta bitartean euskararen kontra errotulatzeko segitu, eta gero esan garestia dela seinaleak aldatzea.

Bestalde, esan behar da seinale askotan badela lekua Frantzia jartzeko. Ikusten denez, zalantza izan zuten, elebitan edo erdara hutsean jarri, eta erabaki zuten erdara hutsean idaztea (gehien-gehienetan).

Energia eolikoa: diruaren ibilbidea

MATTHIAS KRÜGER ETA IRANTZU PIQUERO

HAIZEA BIZIRIK

Vestas Zelena Renovablesek gure eskualdean ezarri nahi dituen turbinen

fabrikatzailea da. Danimarkako konpainia bat da. Bere lege irregulartasunen historia luzeak sorterrian ekoizitako telesail bat inspiratu du: *Diruaren ibilbidea* (jatorrizko izenburua *Bedrag* da, hau da, *Iruzurra*). Langile migratzaileen esplotazioa, prebrikazioa, estortsioak, diru publikoa bereganatzea, iruzurrak... Benetako *noir-nordikoa*, lehenbiziko minututik azkenera arte mota horretako enpresen erabateko salaketa da, emakidarik gabe.

Siemens bezala, Vestasek urteak daramatza gainbeheran: milioiakoko galerak, fabrikazioan akatsak, erretzen diren turbinak, fabriken itxiera eta, jakina, mundu osoko industria berriztagarrien proiektuen kontra altxatzen diren landa komunitateen erresistentzia topatzen.

Australian, Vestas ezaguna da iritzi sortzaile gazteengan milaka dolar inbertitu dituelako, eta elkarte ekologista eta alderdi politiko berdeak erosi dituelako, energia eolikoari buruzko propaganda egin dezaten. Geure buruari galdetzen diogu ea hemen ez ote diren gauza bera egiten ariko, eta noiz aterako den argitara.

Ipar Irlandan, kaputxadun gizon armatu batzuk Vestasen makroproiektu baten ingurura hurbildu ziren, langileak mehatxatuz. Larritasuna hainbestearainokoa da, non jendea prest baitago bizitza arriskuan jartzeko eta bertze batzuen mehatxatzeko, enpresa horiek beren makroproiektuak etxetik hurbil eraiki ez ditzaten.

Kenya iparraldean, herritarrei dirua eta lana agindu ondotik, Vestasek miseria, prostituzioa, alkoholismoa eta gaixotasunak baino ez zituen eraman, komunitate indigena horri bere lurak legez kanpo kenduz. Statkraftek Sami eta Maputxeen lurraldean egin bezala, badirudi enpresa horiek gurea bezalako komunitateenganako joera dutela: idiosinkrasia propioarekin,

ingurumen, kultura eta sinbolo balio handiko lurralde naturaletan finkatuta.

Massachusetsen, Estatu Batuetan, Vestas hainbat auzitan sartua dago, bere ekintza ustel eta ilegalek ondorioz. Bere analisi faltsuak ere hor daude, euren turbinek eragindako zaratak eta infrasoinuak benetakoak direla ukatu izan dituztenak, eta adituak ere erosi izan dituzte bere aldarrikapenak berma zituzten, Haize Turbinaren Sindromeak gaixotutako ehunka pertsona isilarazteko.

Bitartean, sarea albisteaz josia dago, sutan edo kolapsatuta dauden Vestasen turbinen irudiekin eta bideoekin.

Jakin nahi genuke alderdi politikoek, berdin dio zentrokoak, eskuinekoak edo ezkerrekoak izan, eta haien artalde sasi-ekologistek, nola justifikatzen eta babesten duten Berriztagarri Elektriko Industriaren krimenen, indarkeria kolonialistaren eta jardura mafiosoen historia honen konplize izatea.

Vestasen kasua ez da salbuespena; bertze konpainia makroberriztagarri guztiek bide bera segitzen dute, interesatzen zaien bakarra: diruaren ibilbidea.

Bortzirietatik eta Malerrekatik proiektu hauek geldiaraztea eskatzen dugu, luzamendutan ibili gabe.

Aski da administrazio indarkeriarekin.

P.D. Bertsio luzea ERRAN.EUSEN aurkituko duzue, link guztiekin.





Mikel Artieda beratarra zazpi sokako baxua eskuetan duela. UTZITAKO ARGAZKIA

«Bihotzetik ateratzen zaidan musika jotzen ari naiz eta ilusioz nago»

MIKEL ARTIEDA IRAZOKI BERAKO MUSIKARIA

Akordeoiarekin hasi zen, baina bereziki baxua izan du bidelagun bere ibilbide oparoan. Euskal Herriko musikagintzako baxu jotzaile historikoetako bat da eta gaur egun ere baxuarekin segitzen du

G. PIKABEA

Lau hamarkada baino gehiagoko ibilbidean ehunka plazatan ibili da erromeriaz erromeria; 50 disko baino gehiagotan parte hartu du; baita musikari ezagunen ondoan hamaika ordezkapen egin ere; eta Euskal Herrian, estatu mailan eta nazioartean kontzertu saila eta birak egindakoa da. Baxua eskuetan egin du ibilbide luze eta oparo hori Mikel Artieda Irazokik (Bera, 1964). Sorterria utzita, Jerez de la Frontera (Cadiz, Espainia) du azken bortz urteotan bizileku, eta handik, sorterritik mila kilometrotara, aritu da TTIPI-TTAPAREkin. Urruti, baina bere bidean, sorterria bihotzean eta oraindik ere musikari lotua.

Zer moduz bizi zara Jerezen?

Gustura. Pixkanaka Jerezen ere musikan nire tokia egiten ari naiz. Batetik, Maestro Mutante taldearekin disko bat grabatu behar dugu, eta bertetik, aurrez aurre eta online musika erakusten aritzen naiz. Musikeneko jazz masterra aurten bukatu dut, eta mastererrako egin behar nuen lan baten harira, Hotmart plataforma digitalean baxu elektrikoak jotzen ikasteko 42 bideo-ko ikastaro bat zintzilikatu dut, crowdfunding bat eginda. Gainerakoan, lasai bizitzen saiatzen naiz: familiarekin egon, etxeko lanak eta kirol pixka bat egin... **Aunitz aldatu zaizu bizitza?**

Egia erran beti kanpora jotzeko joera izan dut. Nire herria aunitz

maite dut eta hagitz gustura joaten naiz, baina beti kanpora atera eta irekitzea gustatu izan zait. Beratik Irunera joan nintzen eta gerora Madrilera. Etxean aitzak gasolindegia zuen, baina independizatzeko gogoan nuen, eta bertze gasolindegi batean harrapatu nuen lana. Egoera okertu zenean lan hori galdu eta Madrilera joan nintzen. Euskal Herrian eta Jerezen berdintsua da nire bizitza, beti nire gauzak egiten saiatu izan naiz. **Zein da musikarekin duzun lehenbiziko oroitzapena?** Akordeoiarekin hasi nintzen. Oroitzen naiz, Alkaiagan, amaren baserriangeundela, akordeoi zahar bat hartu eta bakar-bakarrik *Andre Madalen* pieza

atera nuela. Ez dakit zenbat urte izanen nituen, gehienez zortzi bat. Denak harrituak gelditu ziren, eta etxekoak Pepito Iantziarekin solastatu ziren. Solfeo ikasten eta akordeoiarekin hasi nintzen. Begoña Rudiren lehenbiziko ikaslea izan nintzen Beran, eta Pepito Iantzi larunbatero joaten zen Berara klaseak ematera. Gerora, Irunen segitu nuen, eta kontserbatorioan ere ibili nintzen. Lehiaketetan parte hartzen ere hasi nintzen, baina nekatu nintzen.

Eta baxua deskubritu zenuen...

Baxua nire gisa ikasi dut. Egun batean, institututik bueltan, autobusetik jausterakoan, Fernan Irazoki baxu batekin esperoan nuen, herriko taldean jotzeko, eta horrela hasi nintzen baxuarekin. Baxuarekin hasi, eta bi asteren buruan Gregorio Mitxelena akordeoilariarekin ezkontza batean jo nuen. Enpresa ikasketak egin nituen, eta horretan lanean ibili nintzen, baina ez nuen neure burua mundu horretan ikusten. Gainera, ETB 1eko *Funtzio* asoian hasi nintzen baxua jotzen, eta Tapia eta Leturiarekin erromerietan. 1990ean Parisera ere joan nintzen hiru hilabeteko ikastaro bat egitera, eta 2013an gasolindegiko lanik gabe gelditu nintzenean, Madrilera joatea erabaki nuen klaseak hartzera. 2017an han gelditu nintzen. Orduan aitzindu nuen baxuarekin. Ordura arte aunitz jotzeari dagokion pauso hori orduan eman nuen.

Baxuarekin hainbat proiektutan parte hartu duzu. Kontatu...

Herriko Laket taldean hasi nintzen, eta horren ondotik, Urkorekin bi urte eta Ganbara taldearekin bertze bi urte pasatu nituen. Tapia eta Leturiarekin zortzi bat urtez ibili nintzen, hasieran, Tapia eta Leturiarekin bakarrik, eta gerora, Tapia eta Leturia Band taldean. Aldi berean, ETB 1eko *Funtzio* eta *Txiskola* asoietan aritu nintzen. Zaldibobo eta Jalisko taldeetan ere ibili nintzen, eta Jabier Muguruzarekin eta Jo-

seba Irazokirekin. Xabier Aburruzaga trikitilariarekin diskoa grabatu nuen, eta EH Sukarra-ekin disko bat eta bi urte egin nituen. Mikel Erentxunekin disko bat eta bortz urte egin nituen eta tartean nazioartean bira; Duncan Dhurekin ere bira egin nuen. Jazzean Goialde Senperena Quarteten ere ibilia naiz, eta ordezkapenak aunitzetan egin ditut: Ruper Ordorikarekin, Oskorriarekin, Eñaut Elorrietarekin, Anje Duhalde-ekin, Alex Ubagorekin...

Atzar Hadi eta Bakan taldeak ere hor daude...

Azken urteotako proiektuak dira. Musikeneko masterra egiten ari nintzen bitartean, Atzar Hadi taldean parte hartzea proposatu zidaten, eta baietz erran nuen. Errobi taldeari egingandako omenaldia izan da eta irailaren 1 In Sarako bestetan egin genuen azken kontzertua. Bakan taldean ere ari naiz. Batez ere Xabi Pery eta Jojo Bordagaraik muntatu dute eta Atzar Hadiko jendea gara. Hagitz gustura nabil. Proiektu batzuk Jerezen, bertze batzuk Euskal Herrian... Kontent nago.

Bakarka baxuarekin bi disko dituzu...

Bai, 1999an bat eta 2022an bertzea, *Bidai* diskoa, Mikel Artieda & Zazpiketersen izenean. Nire baxuak zazpi soka ditu eta hortik heldu zaio izena. Imanol Artola Egilegor baxu jotzaileak eta luthierrak zazpi sokako baxua egin zuela jakin nuen sare sozialen bidez, *Bidai* izenekoa. Horrek berriz konposatzen hasten lagunduko zidala pentsatu nuen, eta hala izan zen. Horren emaitza izan zen *Bidai* diskoa. Beran aurkeztu genuen, eta hagitz emanaldi polita eta maiztagarria izan zen. Tolosan ere jotzekoa genuen, baina ezin izan genuen. Proiektu horri segida ematea gustatuko litzaidake. *Bidai* diskoko kantekin eta masterrarako sortutakoekin Mikel Artieda & Zazpiketers hirukote bezala, Javier Lopez Jaso akordeoilariarekin eta Ander Zulai-ka batera jotzailearekin, emanaldia prestatzen ari gara.

Egun musikatik bizi zara. Zaila da?

Aunitz borrokatu behar da musikatik bizitzeko. Oroitzen naiz, gasolindegian kudeatzaile aritzen nintzenean, jendeak musikatik bizitzen ahal zen galdeetzen zidala. Eta baietz erantzuten nien, plaza bat hartuta irakasle izanda, edo klaseak emanez eta orkestra batean joz. Gaur egun zaila da, baina posible da. Orduak sartu behar dira, bertze hainbat lanbidetan

bezala, eta suerte pixka bat ere izan behar duzu, baina konbentzitu nago lortzen ahal dela.

Gasolindegiko lana eta musika uztartzeko nola egiten zenuen?

Banda batean jotzeko baldin bada, baxua ez da hagitz instrumentu exigentea. Oroitzen naiz gasolindegian aritu nintzenean, nagusiari Excel dokumentu bat aurkeztu niola, lana eta Mikel Erentxunekin sortu zitzaidan aukera uztartuz. As-



Mikel Artieda baxuarekin estudioan. UTZITAKO ARGAZKIA

Labur-labur

- **Akordeoa edo baxua?** Baxua.
- **Baxua eta akordeoa ez den bertze instrumentu bat?** Pianoa.
- **Musikari izan ez bazina, zer?** Ba ez dakit... Goizetan goiz mugitzen naiz oinez ibiltzera joateko eta batzuetan, okin ona izanen nintzatekeela erraten dut [irriz]. Ez dakit, ez dut argi.
- **Artista bat?** Jako Pastorius baxu jotzailea.
- **Kantarik gustukoena?** Kansasen *Dust in the wind*.
- **Kantak, letrarekin edo gabe?** Letrei ez diet erreparatzen. Urte aunitzez baxuari bakarrik egin diot kasu.
- **Oholtza bat?** Donostiako Victoria Eugenia antzokiko Club aretoa hagitz polita da.
- **Norekin jotzea gustatuko litzazuke?** Edozeinekin.
- **Musikan genero bat?** Inprobisatzea eta musika sortzea gustatzen zait, eta musika instrumentala dut gustukoena.
- **Berako txoririk gustukoena?** San Miguel zubia.
- **Zer eramanen zenuke Beratik Jerezera?** Berara joaten naizenean sentitzen dudana maitasuna eta hurbiltasuna. Eta horrekin batera, berdetasuna, Bidasoa ibaia, Larhun mendia... Bera gustatzen zait, baina hemengo [Jerez] paisaia hori eta idor hau ere gustatzen zait.
- **Eta Jerezetik Berara?** Jendearen bizipoza. Euskal Herrian hasieran hotzagoak gara, nahiz eta gero ireki.
- **Hondartza edo mendia?** Mendia.
- **Amets bat?** Musikan ditudan ametsak egia bihurtzea.

teazken edo ortziraile batean jo behar banuen, lanera igandean joanen nintzela proposatu nion. Baietz erran zidan. Tokatu zitzaidan ortzegunarekin Perura atera, eta hurrengo astean bakarrik asteburu pasalanearitzea. Batzuetan pixka bat gogorra izaten zen, baina nola edo hala, moldatzen nintzen. % 100 deikatu gabe, proiektu polit aunitzetan parte hartzeko suertea izan dut. Behin, gasolioa deskargatzen zuen kamioilariak, honela erran zidan: «Miguel, gasolindegitik joanen zara eta berriz etorriko zara, baina zurea musika da». Gaur egun, indarrak musikara bideratuak ditut.

Urteotan oholtza aunitz aldatu da?

Bai, dezente aldatu da. Gero eta zailagoa da emanaldiak lortzea, aurrekontu ttikia bideratzen dute. Batzuetan honetan hainbertze indar egiteak merezi ote duen galdetzen diot neure buruari, baina ez dakit bertzerik egiten, hau gustatzen zait, eta ez dut deusen faltarik. Beraz, ilusioarekin aitzinera.

Garai onak eta txarrak ezagutu dituzu musika munduan?

Bai. Erromerien garai hura hagitz ona izan zen. Gerora, ebakuntza bat egin zidaten eta geldialdi bat egin nuen, eta berriz muturra sartzea ez zen erraza izan. Gainera, musikari gazte on aunitz heldu dira. Argi dago merkatua diferentea dela. Gaur egun, disko bat egitea ez da nahikoa garai batean bezala bira egiteko. Bai Espainian, bai Euskal Herrian bizpahiru talde dira indarra dutenak, eta aurrekontuak horietara bideratzen dituzte, publikoa ziurtatzeko. Nik, ordea, nahiago dut ibilbide erromantiko hori egin, eta bortz kontzertu polit eginez gero, aski kontent.

Hainbertze urte musikaren munduan, baduzu momentu bereziren bat gogoan gelditua?

Bi aipatuko nituzke: batetik, Oskorri taldearekin Bartzelonako Musika Jauregian aritu nintzenekoa; eta bertzetik, Mikel Erentxunekin eta Duncan Dhurekin jende pila baten aitzinean egindako kontzertuak.

Aske Emakume Taldea sortu dute Malerrekan

Genero indarkeria jasan duten emakumeei espazio seguru bat eskaintzea da elkartearen helburua eta kontzientziazio lana egitea, pertsonen arteko errespetuzko harremanak sustatuz: «genero indarkeria, behingoagatik, desagerrarazi eta gizarte gisa hazi ahal izateko».

ENERITZ IRAOLA

Aske. Hitz laburra da, baina esanahi handikoa. Hainbat emakumeren, beldurrak, desirak eta grinak biltzeko gai dena. Ez da kasualitatea, Malerrekan sortu berri duten emakume taldeari izen hori jarri izana. Genero indarkeria jasan duten emakumeentzat gune seguru bat eraiki dute: «elkarrekin korapiloak askatzen joateko». Eta argitu dute Malerrekan sortu bada ere, egoera berean dauden eskualdeko emakume guztiei egin nahi dietela bertan parte hartzeko deia: «bakarrak deus gutxi egin dezakegulako, baina elkarrekin aunitz».

Beharretik sortua

Genero indarkeriaren biktima izan eta, egoera latz horretan, espazio seguru eta goxo batean ezagutu zuten elkar: «bakoitza bizitzako momentu desberdin batean geunden; batzuk, geure burua nonbait kokatu nahian». Bizi zutena taldean partekatzeak mesede egin zien: «elkarrekin bizipen eta esperientziak partekatu genituen, besteei entzun eta, epairik gabe, entzun eta ulertzen gintuztela sentitu genuen. Erraza behar luke ezta? Zoritxarrez, ez da hala. Aunitzetan jaso izandako heziketaren edo gizartean ditugun rolen ondorioz, kosta egiten zaigu zenbait gairi buruz solas egitea».

Hasierako espazio horrek, ordea, ez zuen segidari eta elkarrekin sortu zuten horri, «nolabaiteko egonkortasuna eta segida emateko» elkartearen sortzea erabaki zuten: «pausoa

ematea erabaki genuen. Gure behar guztiak biltzea beharrezkoa zen, zama arintzen joateko eta ikusi genuen, elkarrekin hain sortzea zela sarea osatzen joateko modu bakarra. Gainera, gure antzeko egoera bizi dutenei edo bizi izan dutenei laguntzeko bidea zela ikusi genuen». Edozein emakumeri eskaini nahi diote espazio hauetara sarbidea izatea: «gu bezala, bere bizitzako uneren batean bakarrik sentitu direnei, talde baten berotasuna emateko». Bakardadeak ertz asko dituelako: «genero indarkeria bizi dugun emakumeok bakardadea sentitzen dugu, jendez inguratuta egon arren. Milaka aurpegi ditu bakardade horrek: gutxietsiak izatea, errudun sentitzea, baztertzea...».

Aske

Taldeari izena jartzerako orduan izenak eta izanak bat egitea nahi zuten: «aske hitza aukeratu genuen, gure beldurretatik, kalte egiten diguten lotura emozionaletatik... aske izatea delako gure nahia. Gure zauriak erakutsi ahal izatea, epairik edo irainik jasan gabe». Beraiek aske izan nahi dute, baina baita beraien ondorengoak hala izatea ere: «gure seme-alabek inolako indarkeriarik gabe bizi ahal izatea nahi dugulako». Gizartean aldatu behar dena ikusarazi eta aldatuta bultzatzea ere bada beraien asmoa: «gaur gaurkoz, alde nabarmenak daude emakume eta gizonezkoen artean. Emakumeei gure lekua zein den irakatsi digute eta landa ingurune batean egonik, des-



Epairik gabe, hitz egiteko gune seguru bat eskaini nahi dute. FREEPIK

«**SENTSIBILIZAZIO
ETA HEZKUNTZA
ALDETIK LANTZEKO
AUNITZ DAGO»**

«**GENERO
INDARKERIA MOTA
GUZTIAK IKUSARAZI
BEHAR DIRA»**

berdintasun horiek are nabarmenagoak dira. Herri handi edo txiki batean bizi direnen egoera ere ez da berdina eta gainera, sakabanatutako baserri batean bizi bagara... gidabaimenik ez baduzu, edo autorik ez, bakardade sentimendu hori geroz eta handiagoa da».

Salatu dute hainbat esparrutan izaten dituztela oztopoak eta zailtasunak: «aurreiritziak, hezkuntza eta kultura, zerbitzu publikoak, erakundeak... Berdintasuna sustatu nahi dugu; emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinak identifikatzen eta murrizten lagundu nahi dugu, eta horien aurrean gaitzespen irmoa adierazi». Gertatzen dena ikusteko, ordea, ikusten ikasi behar da batzuetan. Horregatik uste dute funtsezkoa dela gure herrietan dauden eta gertatzen diren genero indarkeria mota guztiak ikusaraztea eta horien inguruan kontzientziatzea: «ezin dugu beste alde batera begiratu, ezin dugu konplize izan. Horretarako, sentsibilizazio eta hezkuntza aldetik, lantzeko aunitz dago».

Gabeziak agerian

Zerbitzu aldetik ere, gabezia handiak daude: «hasteko, Bortzirietako eta Baztango berdintasun teknikarien lana nabarmendu nahi dugu eta, Malerrekan berdintasun teknikari baten beharra dagoela agerian utzi». Gainera, azaldu dute eskualdean ez dagoela genero indarkeria pairatzen duten emakumeei eta euren seme-alabei arreta integrala emateko zentrorik, ezta harrrerarik ere: «zerbitzu horiek guztiak Iruñean daude». Horrek dakarren guztiarekin: «antsietatea, estresa, bidaia luzeak egin beharra, gastu ekonomikoa... gainera, ordu-tegi jakin batean joan behar izaten dugu eta lantokian azalpenak ematen ibili nahi ez badugu, opor egunak galdu behar ditugu».

Egoerak emakumeei soilik ez, euren seme-alabei ere eragiten diela ikusi dute: «haurrek, normalean, zailtasunak izaten badituzte sentitzen dituzten emozioei izena jartzeko, egoera horietan, etxean zer gertatzen ari den ulertzea oso zaila izaten da. Laguntza psikologikoa behar izaten dute eta isildutako haurtzaroak, inposatutako lege eta bidegabeke-riekin batera, problematika larriagotzen du».

Gainera, hizkuntza bera ere oztupo izaten da hainbatetan, «euskaraz ez dute zerbitzurik eskaintzen». Halako egoera bortitzetan laguntzeko profesionalak prestatzea oinarrikoa da «eta aunitzetan ikusi dugu, hor ere badela zer hobetua, artatzen gaituzten profesio-nalek ez dute prestakuntza egokirik genero indarkerian».

Egoera kezkarria

Gizartean, emakumeen egoera kezkarria da beraien ustez: «salaketan datu ofizialetara jo bertzerik ez dago, asko dira oraindik halako egoerak sufritu behar izaten dituztenak. Eta egoera, are beltzagoa da, badakigulako hainbat eraso ez direla salatzen». Ez da urrutira joan beharrik: «gure herrietan ospatzen diren jaietan hainbat eraso izaten dira, batzuk salatu egiten dira, guxtiengo, eta bertze aunitz ez, errudun sentitzen direlako, lotsagatik edota errepresalien beldurragatik».

Indarkeria instituzionala ere gertatzen dela salatu dute: «emakumearen sinesgarritasuna zalantzan jartzen denean, emakumeak biktima profila ez duela betetzen esaten dutenean, ohiko indarkeria puntualtzat hartzen denean, tratu txarrei harreman gatazkatsua deitzen zaienean, epaiketan emakumea eta erasotzailea bereizten ez direnean, justiziak gertaeren bertsioa zalantzan jartzen duenean, erakundeek genero ikuspeirik ez dutenean edo emakumea gehiago biktimizatzen dutenean».



Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeek edo gaiarekin enpatia dutenek dute tokia taldean. FREEPIK

Talde irekia

Honi guztiari aurre egiteko, taldearen babes auzatea ezinbertzekoa iruditzen zaie. Horregatik, talde irekia da: «edozein motako indarkeria jasaten dutenek dute tokia hemen, baina baita gisa honetako egoerekin enpatia izan dezaketenek ere». Beraiekin harremanetan jarri nahi dutenek askebmb@gmail.com helbidera edo 624 756 450ra deitu dezakete. Malerreka, Baztan eta Bortzirietako emakume guztiei luzatu nahi diete gonbidapena, «sarea sortzea eta elkarlana bultzatzea da asmoa, eskualde mailan lan egin nahi dugu eta harremanak eraiki nahi ditugu Euskal Herri edo Espainia mailan lanean ari diren beste elkarrekin». Argi dute: «bakarrik

deus gutxi egin dezakegu, baina elkarrekin aunitz».

Hainbat ekimen prest

Irailean zabaldu zen jendartean Aske Emakume Taldearen izena. Doneztebeto Udalak eta Mariezcurrena eraikuntza enpresak antolatutako pilota jaialdian lortutako diruaren erdia elkar-teari emanen zitzaioala adierazi zutenean: «eskerrak eman nahi dizkiegu udalari eta Javier Mariezcurrenari eman diguten babesagatik. Sortu berriak gara eta guretzat bultzada handia izan da».

Pausoz pauso segi nahi dute lanean eta gizartean eragitea ere badenez beraien asmoa, urriaren 25erako solasaldi bat antolatu dute. Doneztebeto herri-

gunean izanen da 18:00etan eta Yolanda Rodriguez Villegas COMFIN elkartearen buru, historiatazaila feminista eta genero indarkerian aditua izanen da hizlaria. Gaztelaniaz ariko da eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna nola berritotzen den azalduko du.

Azaroaren 25aren bueltan ere zineforuma egitekoa dute azaroaren 29an. Doneztebeto herri-gunean elkartuko dira 19:00etan eta *La violencia invisible* film laburra ikusi ondotik, solasaldia egingen dute. Sara Vicente, abokatua eta Ehuleak elkarteko kidearen laguntza izanen dute sor daitezkeen galderari erantzuteko.

Bertze hainbat ideia ere badiutuzte burutan: «pausoz pauso joanen gara, presarikgabe, baina etenikgabe». Argi diote: «Lan handia dugu aurretik berdintasun arloan egiteko: ez soilik hitzez, baita ekintzen bidez ere. Genero indarkeria, behingoagatik, desagerrarazi eta gizarte gisa hazi ahalizateko».

**«SAREA SORTZEA
ETA ELKARLANA
BULTZATZEA DA
ASMOA»**

**«EMAKUMEEI
ESPASIO SEGURU
BAT ESKAINI NAHI
DIEGU»**

Auzolanean moldatu dituzte Matzadako aldagelak

Belar artifiziala paratu zutenetik nabarmen igo da jokalaria kopurua eta aldagelak «zaharrak» eta «ttikiak» geldituak ziren

A. LARRETXE

Duela zazpi urte belar naturala kendu eta artifiziala paratu zuten Matzadan eta horrek fitxa kopurua eta futbolearen entrenatzen diren haurren kopurua nabarmen haunditu du. 8 talde izatetik 14 talde izatera pasatu dira eta 135 fitxa izatetik 240 izatera, horietako 60 neskak. Talde horiek kudeatzeko behar diren teknikari kopurua ere izugarri haunditu da, eta gaur egun 40 boluntario aritzen dira. Erabiltzaile kopurua haunditzeak, hala-beharrez, instalazioak moldatzea ere eragin du, ordura arteko aldagelak murrizak gelditzen baitziren. Aldagelek 30 urte zituzten, egoera txarrean zeuden eta atletismo pistatik ura sartzen zen.

Aldagelak berritzeko auzolanean aritu dira elkarteko kideak. Alde batetik aldagelak iragazgaitu ditu udalak, eta behin hori eginda, auzolanean lehengo hiru aldagelak bortz bihurtu dituzte. Gainera, atletismoko pistan komun bat paratu dute, eta baita taberna txiki bat egokitu ere.



Pistan paratutako komuna. UTZITAKOA

Lerro hauen bidez auzolanean aritutako enpresak eta norbanakoak eskertu nahi ditu Gure Txokoak. «Eskerrik asko Ibardin, Martiko, Sasoi, Venta Biok, Ugaldea, Tximistindar Berri, Venta Peio, Basketxea, Legazkue, Sutondo, Hirukide, Bortziriak, Pikabea harategia, Venta Gora, Errandonea edariak Sarobe, Indarri, Kirolak Zela, Errekalde, Miljar, Enbor, Patxi, Jose, Aitor, Rafa eta gainerako guztiak».

Illeketako bestetan ere giro ederra izan dute auzotarrek

A. LARRETXE

Giro ederra izan dute aurten-go Illeketako bestetan. Iaz zendutako Pello Irazokiren sendiak piztu zuen suziria Konpaneko zubian, eta ondolik bi egunez besta giroan murgildu ziren auzotarrak. Herri kirolak, auzotarren ar-

teko otorduak, mus txapelketa, haurrentzako jokoak, dantzak, musika... izan ziren protagonistak.

Zozketa ere egin zuten eta honakoak izan ziren zenbaki sarituak: lehenengoa 303, bigarrena 388 eta hirugarrena 1.405.



Herritar aunitz bildu ziren Larhuni buruzko solasaldian. UTZITAKOA

Larhongo kontuak eta istorioak trenaren mendeurrenaren harira

A. LARRETXE

Larhongo Trenaren mendeurrenaren harira, Larhuni eta bertako bentei buruzko solasaldia izan zuten irailaren 21ean Beralandetan. Hasieran Fernando Mikelarena historialariak Larhun mendiarri buruzko azalpenak eman zituen: ton-torrek duen garrantzia histo-

rikoa, benten sorrera eta garapena...

Bigarren zatian, aldiz, Larhongo bentetako nagusiak, Peio Irazoki eta Gurutze Peña aritu ziren, batez ere, solasean. Bentetan izandako anekdotak, lan egiteko maneran izandako aldaketak, turismoaren gorakada... izan zituzten solasgai.

Urriaren 5ean hasiko da Manttale Ttiki atletismo eskola

A. LARRETXE

Ikasturtea hastearrekin batera ohiko martxara itzuli da Manttale Ttiki ere. Larunbat goizetan izanen dira entrenamenduak 10:00etatik 12:00etara, eta 2012 eta 2018 urte artean jaiotakoei bideratuak izanen dira.

Urriaren 5ean hasiko dira entrenamenduekin, eta lehen bi larunbatetan probatzeko aukera izanen dute haurrek.

Horrez gain, Manttalen jakinarazi duenez, Ainara Mendiburu eta Ibon Erdozain dira Lasterketa Herrikoien Kopako liderrak.



Hainbat ekintza izan dituzte bestetan, tartean, herri kirolak. UTZITAKOA

Aurten ere gaita eta atabala ikasteko aukera izanen da

Urriaren 18ra arte eman daiteke izena eta klaseak larunbat goizetan izanen dira azarotik ekainera

A. LARRETXEKA

Azken urteetan bezala aurten ere atabala eta gaita jotzen ikasteko aukera izanen da herrian bertan. Berako Udalak eta Berako Kultur Batzordeak antolatu du ikastaroa, eta azaroan hasiko da eta ekainera arte iraunen du.

Klaseak larunbat goizetan izanen dira 12:00etan hasi eta 13:00ak arte Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan.

Irailean ireki zuten izena emateko epea, eta urriaren 18ra arte iraunen du. Antolatzailerik nabarmendu dutenez,

bai atabalean eta baita gaitan ere guttienez borts lagunek eman beharko dute izena taldea ateratzeko. Izen emateko Berako Agendaren webgunean dagoen online galdetegi bat bete beharko da.

Ikasturteko prezioa 100 eurokoa da, baina ordainketa behin taldea ateratzean egin behar da. Horren inguruko xehetasunak parte hartzaileei jakinaraziko dizkiete.

Zalantzak argitzeko 948 63 12 22 zenbakira edo kultura@bera.eus atarira idazten ahal da.

Ibardingo ur sarea berritzeko eta biomasa sarea zabaltzeko dirulaguntzak

A. LARRETXEKA

Berriki bi dirulaguntza hartu ditu udalak Nafarroako Gobernuko Industria eta Trantsizioa Ekologiko eta Digitaleko Departamentutik. Lehen dirulaguntzan 400.000 euro hartu ditu eta Ibardingo komertzio eremuan ur sareak berritzeko erabili ditu. Lanak maiatzean egin zituzten, eta denera BEZik gabe 538.920,0 euroko kostua izan zuten. Dirulaguntzaren bidez finantzatu dute lanen % 80a baino gehiago.

Bigarren dirulaguntza bat ere hartu du udalak Kasu ho-

rretan 381.928,85 euro hartu ditu eta gaur egungo biomasa sarea bertze eraikin publiko batzuetara zabaltzeko erabili ditu. Gaur egun biomasa saretik honako eraikinak hornitzen dira ur beroarekin eta berogailuarekin: Toki Ona institutua, Mukixu haurtzaindegia, Ricardo Baroja eskola publikoa eta Labiaga ikastola.

Sare hori San Jose egoitzara, musika eskolara eta osasun kontsultategira zabaltzea aurreikusten dute dirulaguntzaren bidez eta lanak heldu den urtean egitea.



UTZITAKOIA

Jesus Goikoetxea Plazari omenaldia

Eskubaloiairen alde egindako lana eskertzeko, omenaldia egin zioten irailaren 14an Jesus Goikoetxea Plazari. Eskualdean eskubaloia sustatzen aritu zen urteetan Goikoetxea, eta omenaldian izan ziren berekin batera aritu ziren jokalariairekin. Ondotik, afaria egin zuten elkarrekin.



TTIPI-TTAPA

Eraso matxistak salatzeako karrikara

Bilboko Santutxu auzoan gizonezko batek bere bikotea hil zuela salatzeako karrikara atera ziren herrian irailaren 14an. *Basakeria matxistak hiltzen gaitu! Askida!* lelopean elkarretaratzea egin zuten Mukixu zubian Goldatzek deituta. 15 lagun inguru bildu ziren.



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999, URITETIK

609 446 693 - 948 625 663
bidasoa@neumotricidibidasoa.es
www.ekolun.bidasoa.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregeian deskontuak izateko

Alkaiaga Industrialdea Ziobi Kalea 6 31770 Lesaka (Nafarroa)	Noain-Eskiroz Industrialdea Y Kalea 10 31110 Noain (Nafarroa)
--	---

GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu



Gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohanik
Gasolindegia 24h irekita



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Alberto RETEGI

abokatua

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Kantu zaharren eguna antolatu dute urriaren 19an

Koxkontan eginen den bazkarirako txartelak 55 eurotan eskura daitezke urriaren 12ra bitarte Telletxean eta Izarran

AITOR AROTZENA

Kantu zaharren eguna antolatu dute lehen aldiz herrian, musikarekin eta kantuarekin harreman zuzenda duten zenbait lagunek. Urriaren 19an izanen da. 12:00etan hasita karriz karriz ibiliko dira, musika lagun, Plaza Zaharretik Koxkontara. 14:00etan bazkaria izanen dute Koxkontan eta bertan parte hartuko dute Jalisco, Beñat Mitxelena eta Frantzisko Santxotena musikariek, Angel Mariezkurrenak eta Manolo Arozena eta Juan Mari Lopez bertso-lariek. Txartelak salgai paratuko dituzte Lesakako Telletxea estankotan eta Izarra okindegian urriaren 1etik 12ra, 55 eurotan.

«Gure historiaren parte»

Maidar Goizueta sustatzaileak aipatu digunez, ilusioa zuen horrelako ekitaldi bat herrian antolatzeko, «orain arte ez delako inoiz antolatu eta badakidalako publikoa badagoe-la joateko prest dagoena eta gogotsu. Batzuetan zailena antolatzeari izaten da eta ni hasi

nintzen, baina berehala animatu ziren bertze bertz lagun laguntzeko prest, beraz, aunitz erraztu didate bidea, egia erran». Kantu zaharrak «Euskal Herriko historiaren parte direla –dio Goizuetak–, bertsoekin batera, gurea dugun zerbait». Horregatik, betidanik gustatu izan zaizkio, «nire etxean aitzak bertso zahar pila bat kantatzen zituen, baita kantu zaharrak ere. Tikia nintzenetik eskolan eta etxean aditu dudak zerbait izan da. Eta ni soinu-laria izanik, mahai inguruak ere probaxten ditugu horretarako, hori baita modu bakarra galdu ez daitezkeen kanta hauek, gure ondotik heldu direnek ere aditzea eta kantatzen segitzea».

Gehienez ere 160 pertsonentzat tokia prestatu dute eta Euskal Parrila izanen da *catering-a*. Eskerrak eman nahi dizkie «proiektua aitzinera ateratzen lagundu didaten bertze bertz kideei, Angel Mariezkurrenari eta bere hirukoteari, bertso-lariei eta Xabier Anduezarri, bere espazioa uzteagatik».



AITOR AROTZENA

Sokatira Eguna arrakastatsua

Beti Gaztek antolatuta Sokatira Eguna ospatu zuten irailaren 21ean. Haurren proba konbinatua eta lehengo eta oraingo tiralarien arteko lehiak izan zituzten goizean, poteo musikatua eta 50 lagun bildu ziren Koxkontan egindako bazkarian. Bideo hunkigarria ikusi zuten bazkalondoan.



UTZITAKOIA

Giro ederra izan dute Arrano Egunean

Arrano elkartearen eguna ederki ospatu dute irailaren 21ean. Goizean, oinez eta bizikletaz joandako 30 bat lagun bildu ziren Agiñan. Gero, herrian antzerkia izan zuten eta Etxalarko *asau* egileek prestatutako *asauarekin* bazkaldu zuten 130 bat lagunek. Musika doinuak izan zituzten arratsaldean.

XAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Chi Kung ikastaroa antolatu du aurten Beti Gaztek

Beti Gazte elkarteak Chi Kung ikastaroa antolatu du bazkideentzat, urriaren 7tik ekainaren 11ra, astelehenetan 09:00etatik 10:30era, Amparo Iribarren Ballent irakaslearen eskutik. Izen emateak eta informazio gehiago 676 57 51 07 telefonoan (Jesus Mari).

San Ferminakoak Laguardiara urriaren 4an

San Fermin jubilatuko elkarteak Laguardia bisitatuko du ortziraletan. 08:00etan abiatuko da autobusa eta Laguardiako Dorretxe upeltegian hamaketakoa egin ondotik, herrian bisita gidatua eginen dute. 14:00etan bazkaria izanen dute Marixa jatetxean.

Beti Gazteren argazki lehiaketa abiatu da aurten ere

Urriaren 31 arte aurkez daitezke eta lehen saria 400 eurokoa izanen da, 350 eurokoa kirol argazki onenarentzat

A. AROTZENA

Beti Gazte Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurten-goan ere Lesakako Udalarekin elkarlanean. Argazkiak posta elektronikoki bidez soilik hartuko dituzte eta argazki erakusketa ere egingen dute aurkeztutako argazki guzietan. Lanak argazkilaritza@betigazte.net helbidera bidali behar dira urriaren 31 arte.

E-postaren gaian *Argazki Lehiaketa 2024* paratu behar da. Argazki bakoitzari izenburua paratu behar zaio eta gai libreko lehiara ala kirol argazki lehiara aurkezten den ere paratu behar du. Argazkia bidaltzen den e-postan egilearen datuak bidali behar dira. (Izen abizenak, helbidea eta telefonoa).


Antolakuntzak izendatutako epaileek erabakiko dute nor

den irabazlea eta erakusketa zabaltzen den egunean jakinaraziko dute bere izena, webgune eta sare sozialen bidez. Aurkeztutako argazkiekin erakusketa ere egingen dute.

Sariak

Lehen saria 400 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrenarentzat 300 euro eta trofeoa. Beti Gazteko bazkideen artean argazki onenari 250 euroko saria emanen zaio trofeoarekin batera eta kirol argazki onenari 350 euro eta trofeoa.

Argazki irabazleak hurrengo urteetako lehiaketak iragaritzeko erabili ahal izanen ditu Beti Gazte elkarteak. Edozein zalantza izanez gero idatzi argazkilaritza@betigazte.net helbidera edo deitu 617 21 24 49 (Amaia) edo 697 27 60 36 (Alaia) telefonoetara.



XABIER ARIZTEGI

165 txirrindulari BTT ibilaldian

165 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 15ean Beti Gazte antolatutako mendi bizikleta ibilaldian. Horieta 110ek ibilbide luzea aukeratu zuten (37 km) eta gainerakoek laburra (23 km). Katea Bikek zozketatutako bizikleta Manu Apeztegia Alzugarairi egokitu zitzaion.



Aurtengo hamargarren edizioan parte hartu duten hizlarietako batzuk. UTZITAKOIA

Haurren garapenerako udako ikastaroek hamargarren urtea bete dute

A. AROTZENA

Hamargarren urteurrena bete dute aurten Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen barne Lesakan antolatzen den haurren garapenerako ikastaroek. Aurtengoan, hizkuntza nahasmenduak haur elebidunen garapenean izan dute hizpide irailaren 20an eta 21ean Harriondoan eta 18 hizlari izan dituzte. Osasunbideak eta Elebilak erakundeak antolatu dute ikastaroa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun sailen, Osakidetza, Euskarabidearen, Bortzirietako Euskara Mankomu-

nitarearen, Bortzirietako Guztiok elkartearen eta Lesakako Udalaren laguntzarekin.

Jardunaldi hauen sustatzailer den Belen Compainsek aipatu duenez, «hamar edizio hauetan 118 ponentzia aurkeztu dituzte 98 hizlari eta denera, 500 bat lagunek parte hartu dute ikastaroetan. Aurtengoa berezia izan da, 18 hizlari izan baitira, inoiz baino gehiago. Hasteko, ortzira leian familiekin mahaingurua egin genuen eta gero tailerra, baita Ameriketako Estatu Batuetako zentro batekin konexio bat ere».

enean
arkitektura
estudioa

Gabarrari kalea, 14 SM Amute-Kosta
HONDARRIBIA, Gipuzkoa
943 530 841

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



Paleta botatze txapelketako irabazleak, Arzallus eta Madariagarekin. I. ELIZAGOIEN

Usategietako tradizioaren besta ederra izan da

Daniel Calvet saratarra nagusitu da munduko IX. paleta botatze txapelketan eta Etxalar botaluze partidan

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 22an ospatu zen Sara eta Etxalarren arteko hitzarmena berresteko harira antolatutako besta erraldoia. Goizetik hasita, Botaluze partida, paleta jaurtitze txapelketa, Kattin Madariaga eta Amets Arzallusen bertsoak, paleta eragitea, baserriko lan tresnen erakusketa, asaua eta musika izan ziren. Lehiaketetan, Etxalar izan zen garaile botaluze partidan, eta paleta botatzean berriz, Sarako taldea (Daniel Calvet saratarrak 82 metrora jaurti zuen, eta Andoni Iribarren etxalartarrak 69 metrora).

Eguneko ekitaldi ofiziala, eguerdian sinatu zuten Xabier Etxarte Etxalarko alkateak eta Esteban Barneix Sarako alkateordeak bi herrien arteko hitzarmen berrestea.

Sasoien hasiera

Prestaketa lanen ondotik, Usategietako sare bidezko uso harrapaketa tradizioaren sasoia hasia da dagoeneko. 600 urte baino gehiago dituen tradizio hau ikusteko bisita gidatuak ere martxan dira. Urriaren 1etik azaroaren 20ra, larunbat, igande eta besta egunetan egingen dira.

'Hipnoparto' liburuaren aurkezpena

Urriaren 3an, ortzegunean, 18:00etan, Pello Apezetxea Kulturgunean *Hipnoparto* liburuaren euskarazko aurkezpena egingen dute. Carmen Morenok idatzitako liburu interesgarria itzuli eta egokitu egin du Oihana Lopez Cestao herritarrak.

Zoru pelbikoari eta jarrerari buruzko tailerra hilaren 18an

15 urtetik goitiko emakumeei zuzendutako *Zoru pelbikoa eta jarrera* doako tailerra eskainiko dute urriaren 18an, 18:00etatik 20:00etara Landagain eskolako aretoan. Izena ematea kulturetxea@etxalar.eus helbide elektronikoan edo 948 63 53 86 telefonoan.



IRUNE ELIZAGOIEN

Bihodi bikotearen kontzertua

Irailaren 21eko txistu eta organo kontzertuak zabaldu zituen udazkeneko kultur egunak. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Altxatak hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Hurrengo, urriaren 26an, Martxel Larrazaren *Xerka* fotokazetaritza lanaren aurkezpena izanen da.



IRUNE ELIZAGOIEN

Urritzokietako bestak bikain

Jende andana elkartuta, irailaren 13ko txupinazoarekin hasi eta irailaren 15ean auzoa txukunduta bukatu ziren 2024ko Urritzokietako bestak. Tartean, meza, otorduak, jokoak, txapelketak, erraldoiak, musika eta giro ederra izan zuten, argazkietan ageri denez.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

ELUTSA

EGUNEKO ETA
ASTE BURUKO MENUAK

PINTXOAK - BOKATAK
RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191



Herriko dantzariak saio ederra eskaini zuten. OSKAR TXOPERENA



Zortzi gazten artean Bordazabalkoa izendatu zuten onena. O.TXOPERENA

Besten aitzineko asteburua bikaina izan da aurten ere

Larunbateko herriko dantzarien saioa eta Bordazabalko Frantxiska Apeztegiak irabazitako gazta lehiaketa aipagarrienak

ANA ETA ITZIAR

Besten aitzineko asteburua emankorra izan da aurten ere. Larunbat goizean plater tiroketako txapelketa egin zen, baita honi lotuta egiten den gosaria ere. 21 partaide aritu ziren eta Xabi Almandoz suertatu zen garaile.

Herrian, frontenis txapelketetako finalak jokatu zituzten. Helduen artean, Peio Migeleña eta Jokin Mitxeok irabazi zieten Urko Sainz eta Josu Iturbideri. Gaztetxoetan, Amane Obesok eta Urko Telletxeak irabazi zieten Unax Urtzegiri eta Ander Sarasolari. Ondotik,

Biltokik prestatutako bazkariak gozatzeko aukera izan zuten izen eman zuten pilotari guztiek.

Baratzondo elkartearen mus eta Partxis txapelketa berezia antolatua zuten. Hiru bikotek parte hartu zuten musean eta seik, bere aldetik, partxisean. Museko irabazleak Jabier Taberna eta Patxi Loiarte izan ziren eta partxisean, berriz, Anuntxi Txoperena eta Kontxita Vicentek eraman zuten lehenbiziko saria.

Arratsean dantza taldeak saio ederra prestatu zuten. Eguraldi kaxkar xamarra izan



Frontenis txapelketetako finalistak, Biltokiko ordezkariekin. UTZITAKOIA

arren, emanaldi ikusgarria izan zen. Dantzariak ikuskizun polita eman zuten. Urte guztian egindako lanaren fruituak ederrak izan ziren.

Bordazabalko gazta

Igandera pasatuz, herria txistu soinuaren ernatu zen eta, eguerdian, gazta lehiaketa jokatu zen. Zortzi gazta ederren artean onena Bordazabalko Frantxiska Apeztegiarena izendatu zuten. Bigarren saria Argatagaraiko Elena Retegik

eraman zuen eta hirugarrena, berriz, Argiñen bordako Karmen Larralde.

Arratsaldean herriko trikitalari gazteek ere karrikabueltak egin zuten Kankailu eta buruhandiekien batera, besta giroa herri osora hedatuz. Ondotik beraien emanaldia ere egin zuten.

Igandeari akabaila emateko opilak eta gaztak dastatzeko aukera izan zen. Goxoak batzuk eta bertzeak. Besta giro ederean joan zen asteburua.

Jokin Altunarekin bikote egiteko ametsa bete du Joseba Aldabek

Lehen mailako lehen aukera izan du Joseba Aldabe herriko pilotariak sanmateotan, Tolosa ordezkatzuz. Aukera baten zain hainbete urte eman eta gero, orain dena arrapaladan etortzen ari zaio Aldaberi. Uda bikain baten ondotik, buruilaren 23an jokatu zuten bere

lehen mailako udako torneo-ko lehen partida, Logroñon, Jokin Altunarekin bikotea osatuz. Zabala eta Zabaleta bikote jotzailearen kontra 22-20 galdu zuten, baina profesionaletan debutatu zuenean adierazi zuten ametsa bete du: Altunarekin jokatzea.

MÁRMOLES
AMEZTI
Desde 1994

SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g.
ORNOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

Igerilekuko bonuak ordaintzeko dirulaguntza deialdia

Herrian erroldatutakoek izanen dute dirulaguntza hartzeko aukera eta urriaren 10era arte egiten ahal da eskaera

NEREA ALZURI

Aurten ere, igerilekuko bonuen gastuekin laguntzeko dirulaguntza emanen du udalak. Joan den abuztuaren 2an egindako osoko bilkura arruntan onartu zuen herritarrei udako denboraldiko bonuak ordaintzean sortutako gastuaren zati bat finantzatzeko deialdia.

Urriaren 10era arte

Eskaerak urriaren 10era bitarte aurkezten ahal dira eta bi bide izanen dira horretarako: erregistro elektronikoa bidez edo fisikoki udal bulegoan jende aitzineko ordutegian (09:00etatik 13:00etara). Posta elektronikoa bidez bidalitako eskaerak ez dituela onartu ohartarazi du udalak.

Dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeko nahitaez-

koa izanen da Arantzan erroldatua izatea eta horrekin batera, bonua Bortzirietako igerileku publiko batean egina izatea uda honetan. Dirulaguntzak ematerakoan ekainetik irailera bitarteko hila-beteak hartuko ditu kontuan udalak.

Eskaera orria bete behar da. Adin ttikikoen kasuan, eskatzaile gisa bere gurasoak edo legezko tutoreak agertu beharko du eta haurraren datuak eskabidean horretarako adierazitako zatian paratu beharko dira.

Bertzalde, eskaerarekin batera, Bortzirietako igerileku publiko batean egindako bonua, izan jatorrizkoa edo izan kopia, eta bonuaren kostua ordaindu izanaren ordainagiria ere aurkeztu beharko dira.



NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Madariaga eta Mitxelena Bardoetan

Joan den irailaren 13an abiatu zen Bardoak Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa. Eta tartean dira bi herritar: Hor gu! taldean Kattin Madariaga Apaolaza ari da eta Pirini Bardo taldean, berriz, Itziar Mitxelena Gamio. Suerte on, bikote!



Joan den urteko Baserritarren Egunean hartutako irudia.

Baserritarren Egunean parte hartzeko deia egin du Ekaitza Elkartek

N. ALZURI

Udazkenean sartuta, kultur egunen prestaketetan ari dira herriko eragileak.

Ekaitza Elkartea, adibidez, azaroaren 1ean egingen den Baserritarren Eguna antolatzen ari da. Aurtengoa 28. edizioa izanen da eta herritarrei parte hartzeko gonbita egin die. «Herritarren lanari merezi duen balioa emateko, baserriko produktuak edo erremintak, aziendak, eskulanak... frontoira eramateko» eskatu du. Horrekin batera, aurten ere gazta eta ahari lehiaketak egingen dituela iragarri du.

Parte hartzeko izena eman

Baserritarren Egunean salmentako edo erakusketako postuak paratu nahi dituztenek, edota gazta edo ahari lehiaketetan parte hartu nahi

dutenek aitzinetik izena eman beharko dute.

Aziendak eraman nahi dituenak Lucia Iparragirrerri edo Imanol Lukanbiori jakinarazi beharko dio; postua paratu nahi duenak Beatriz Tabernari edo Ixabel Danborienari abisatu beharko dio eta gazta lehiaketan parte hartu nahi duenak, berriz, Mirari Maizi edo Gurutze Pikabeari. Urriaren 20a izanen da apuntatzeko azken eguna.

Horrekin batera, Ekaitza Elkartek oroitarazi du salmentako postuen kokapena zozketa bidez erabakiko dutela. Orain arte bezala, zozketa publikoa izanen da eta edozein hurbiltzen ahal izanen da. Bezperan, urriaren 31n, egingen dute, 18:00etan, Ekaitza Elkartean. Azaroaren 1ean, berriz, 08:00etan irekiko dituzte frontoiko ateak.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KOMBINATUAK ...

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Gojeko
GOI MAILAKO EKOLOGIA

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

Telletxea aita- semeek bota dute Igantziko txupinazoa

Simonbaitako garbitokia arrunt polita utzi dute eta ondoko kisu labea ere moldatu dute Jabierrek eta Iñigok

ANA ETA ITZIAR IGANTZI

Igantziko bestetako berri zabalagoa hurrengo aldizkarian izanen duzue, baina Jabier eta Iñigo Telletxea aita-semeak izan dira aurtengo beste hasiera emateko altxaferua botatze arduratu direnak.

Simonbaitako garbitokia (labaderoa) arrunt polita utzi dute eta, ez hori bakarrik, ondoko kisu labea ere berreraiki eta moldatua dute exerleku eta guzti jarritz.

Udalak, lerro hauen bitartez, eskerrik haundienak eman nahi izan dizkie eta, herriko bestetako altxaferoa ere beraiek botatzeko aukera eskaini diete.

Eskolako haurrek besta ttikiak antolatu dituzte

Herriko eskolan, beraien lan egiteko metodologiaren ba-

rrean hainbat proiektu egin dituzte eta oraingo honetan beraientzat *Besta Ttikiak* antolatu dituzte. Lan haundia egin zuten, egitarau oso bat antolatu baitzuten bi egunez (txupinazoa, musika, dantzak, txapelketa desberdinak, herri kirolak, pilotak partidak, bazkarea...).

Buruilaren 26 eta 27rako prestatu zituzten ekintzaz beteriko egunak. Esku programa polita ere plazaratu zuten herritarrek jakin zezaten beraien besten egitarau zehatza zein zen. Lan ederra egin zuten, ekitaldi hauek dakarten antolaketa lanak haundiak direlako. Adibidez, esku programa osatzerakoan ere, ofizialaren berdina egin zuten, negozioen publizitatea bilduz, portadaren lehiaketa antolatu... Lan bikaina!!



Android telefono mugikorrek erabiltzen ikasteko ikastaroa ere egingen dute.

Gaitasun digitalen inguruko lau ikastaro izanen dira Etxalarren urriaren 7tik 18ra

IRUNE ELIZAGOIEN ETXALAR

Jabier Iriarte teknologian adituak gaitasun digitalen inguruko lau ikastaro emanen ditu Etxalarren.

Administrazio elektronikoa-ri buruzko ikastaroa urriaren 7tik 11ra emanen dute eta herritar guztientzat irekia izanen da. Astelehenetik ortziralera izanen da 15:00etatik 17:00etara Kultur Etxean. Izen ematea 948 01 20 12 zenbakian eta aventuradigital.navarra.es helbidean egin behar da.

Android telefono mugikorrek erabiltzen ikasteko ikastaroa ere urriaren 7tik 11ra egingen

dute (17:15-19:15) izanen eta parte hartzaileek beraien telefono mugikorra eraman beharko dute. Izen ematea 948 01 20 12 eta acercanavarra.es.

Adinekoendako digitalizazio ikastaroa urriaren 14tik 18ra emanen dute (16:00eta-18:00). Izen ematea 948 01 20 12 zenbakian eta acercanavarra.es.

Enplegu eskatzaileentzat, berri, oinarrizko gaitasun digitalak lantzeko 40 orduko ikastaroa izanen da, urriaren 7tik 18ra. Hau ere Kultur Etxean izanen da 09:30etik 13:30era, astelehenetik ortziralera.



INVEJO

WWW.INVEJO.ES



Ilearen erorketa hobetzeko eta prebenitzeko sistema.

Ikerketek frogatu dutenez, bibrazioak odolaren zirkulazioa hobetu eta ile-folikulua indartzen du, baita burutik eratorritako beste gaixotasun batzuk prebenitu ere.

Bibrazio-txapel berria. Patentatua.

Funtzionatzen du!

INVENEXPOn (Peralta - Azkoien, Nafarroa) egongo gara urriaren 18tik 20ra

«Gizarte aktiboa behar dugu euskarak dituen erronkei erantzuteko»

BOR-BOR BORTZIRIETAKO EUSKALTZALEEN MUGIMENDUKO TALDE ERAGILEA

Bor-borrek antolatuta, Bortz!Eguna eginen dute urriaren 12an Etxalarren. «Euskararen inguruan bortziritarrentzat bilgune eta erreferentzia izanen den eguna» izatea nahi dute

G. PIKABEA BORTZIRIAK

«Bortziritako euskaltzaleak elkartzeko, euskararen egoera karrikara ateratzeko, eta bide batez, euskara sentimendu positiboekin lotzeko», Bortz!Eguna edo Bortziritako Euskaltzaleen Eguna antolatu du Bor-Bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimendua. Urriaren 12an egin dute hitzordua Etxalarren eta egun osoko egitaraua prestatu dute. «Egun ederra» izatea nahi du Bor-borreko Talde Eragileak, «Malerrekako Eguna edo Baztandarren Biltzarra bezala, euskararen inguruan bortziritarrentzat bilgune eta erreferentzia izanen den egun bat». Taldearen erronkak ere mahai gainean paratu dituzte Bor-borrekoek, eta «euskalgintza soziala berrakibatzea kostatzen» ari dela onartu dute. Euskararen egoerari dagokionez, berriz, «erabilerarekin dugun erronka handia» aipatu dute, «gero eta gutiago aditzen baita gure karriketan». Argi dute: «Herriarren bulkadarekin egin du aitzinera, neurri handi batean, euskarak. Eta ditugun erronkei ere hala egin beharko diegu».

2022ko uztailean aurkeztu zenuten Bor-bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimendua. Orain artekoaz zer balorazio eginen zenukete?

Jende aunitzen ekarpenei eta parte hartzeari esker martxan paratzea lortu dugu, ederki joan diren ekimenak ere izan ditugu, baita jendearen babesa sentitu ere. Baina era berean, nahi baino motelago aritu gara. Mo-

mentu puntaletarako laguntza lortzen dugu, normalean, baina modu iraunkorrean ariko den talde aktiboak edukitzea da erronka. Oraindik ezagunago egin behar dugu gure lana. **Bortz herrietara ailegatzea lortu du Bor-borrek?**

Herri guztietan erreferentziazko lantaldeak edukitzea ez dugu lortu. Herri guztietan antolatu ditugu ekitaldiak, eta hori da asmoa. Baina tokian tokiko jendea behar da horretarako. Bilerak ere herriz aldatzen ditugu, errazago izateko denen parte hartzea. Beharrak eta kezkek ere ez dira berak herri guztietan, eta herri bakoitzean talde iraunkor bat balego, errazago erantzun ahalko genioke bakoitzaren beharrei.

Zer martxa du Bor-borrek?

Hilabetero elkartzen garen talde eragile bat gaude, sei lagunez osatua. Talde hori indartu behar da, herri guztiak ez baitaude ordezkatuak. Ez dugu lortu tal-

de egonkorrak edukitzea, gai zehatz batzuen inguruan lanean ariko direnak: hezkuntza, etorri berriak, transmisioa, gazteak... Talde horiek maiztasun batekin bilduko balira, dinamika polit bat lortu ahalko litzateke. Gaur egun, talde eragileko kideok hartu behar dugu guztiaren ardura, eta ezinezkoa da horrelako dinamika bat bortz edo sei lagun artean lantzea. Aldiz, talde bakoitzak bere dinamika balu, talde eragilearen egiteko horien koordinazioa egitea litzateke, eta ikuspegi osotua ematea. Momentuz, ez dugu lortu egitura hori osatzea.

Zer ekarpen egiten dio Bor-Borrek Bortziritako euskalgintzari?

Euskarak Bortziritan, Euskal Herri osoan bezala, erronka eta zailtasun handiak ditu, beti izan dituen bezala. Erronka horietako batzuk, gainera, egungo gizarte ereduaren eta teknologiararen eraginez, zein globalizazioaren ondorioz, areagotu egin

dira, eta horiei erantzun ahal izateko gizarte aktibo bat behar dugu. Erraterako, Interneteko eduki gehienak erdaraz daude. Guk zer bait eginen dugu horren aitzinean? Sortuko ditugu gureak? Euskara gibelera doan eremuetan, gure kirol taldean, gure elkartean... isilik geldituko gara, edo proposatuko ditugu ekimenak euskara gehiago egiteko, herritarrek kontzientzia hartzeko, dagoen arazoa ikusarazteko? Herriarrek aktibatu behar dira, eta Bor-borrek hor paper garrantzitsua du.

Zein dira Bor-borren erronka nagusiak?

Egituraztea da bat, dudarik gabe. Baina baditugu aunitz. Benetako mugimendu sozial bat izatea, jendeak euskararen egoeraren inguruko kontzientzia hartzea, azken boladan epaitegietatik heldu diren epaiak salatzea, eta euskarak Bortziritan dituen erronkei erantzuteko gaitasuna izatea: eremu digitalean euskarak duen leku eskasarentzat alternatibak sortzea; aisialdian, eta bereziki kirolean, euskararen erabilera areagotzea; etorri berriei harrera planak egitea, euskararen bidez aukera berriak sortuz; gurasoei seme-alaben euskalduntzean laguntzea; helduok euskaraz bizitzeko aukera gehiago izatea; euskararen egoera larria ikusaraztea...

Zer harreman du Bor-borrek administrazioarekin?

Bortziritako Euskara Mankomunitateak euskara batzordeen inguruan egindako hausnarke-ta prozesu batetik jaio zen Bor-bor. Mugimendu euskaltzalea gara eta autonomiaz jokatzeko dugun arren, Bortziritako Euskara Mankomunitatearekin hartu-eman dugu, eta egiten dugun lana elkarri osatzen saiatzen gara. Herriko Etxeekin puntualagoa da, gehienetan azpiegiturekin lotua, baina hor ere badago lanerako esparru interesgarria, udalek oraindik jarrera aktiboagoa izan dezaten euskararen inguruan. Eta Bortziritatik kanpo ez gara aritu. **Zergatik antolatu duzue Bortz!Eguna eta zergatik Etxalarren?**

Bortz!Eguna urriaren 12an Etxalarren

Egun osoko egitaraua prestatu dute urriaren 12rako:

- **10:00etan** diana Bortziritako txistulariekin.
- **11:00etan** herri kirolak eta jokoak. Herrien arteko lehia.
- **13:00etan** Euskara karrikaren bueltan kalejira. Bortziritako trikitilariak eta panderojoleak lagunduta.
- **Ondotik** adierazpena.
- **14:30ean** herri bazkaria (Asaua) eta ondotik bingoa.
- **17:30ean** dantzaldia Jeiki Hadi taldearekin.
- **19:30ean** Alarma morea taldearen kontzertua.
- **21:00etan** Fifi&Fefa DJen emanaldia.

Urteko batzarrean ikusi genuen Bortzirietako euskaltzaleak elkartzeko eta kohesionatzeko beharra zegoela, eta gure egitekoa zela. Euskararen egoera karrikara atera behar genuela, eta bide batez, euskara sentimendu positiboekin lotu, ongi pasatzearekin, komunitatea egitearekin... Belaunaldi arteko harremanak sendotu nahi ditugu, herrien artekoak. Urtero herri batean antolatuta nahi genuke. Hasieratik erran genuen Bor-borrek bortz herrietara eramane zituela ekimenak eta hortik heldu da erabakia. Lesakan egin zen aurkezpena, Beran Bor-borraldiko ekimena... Etxalartarrak prest agertu dira laguntzeko, eta horregatik aukeratu dugu Etxalar.

Nola doaz antolatzeko lanak?

Apiril hondarrean hasi ginen. Osatu dugu egitaraua, adin guztietako jendearentzat erakargarria. Antolaketak nahiko bideratuak ditugu, eta orain jendea behar dugu: egunean berean parte hartzeko, herri kirolean, musika jotzen, bazkarian... baita lanerako ere. Egun ederra izatea da helburua, eta Malerrekako Eguna edo Baztandarren Biltzarra bezala, guk ere nahi dugu euskararen inguruan bortziritarrentzat bilgune eta erreferentzia izan den egun bat eduki.

«Euskararen egoera larria» ikusarazteko beharra aipatu duzue. Zein da egoera bortz herrietan?

Ingurura begiratzuz gero, nahiko txukuna, edo bertze lekuetan baino hobea. Baina gabezia eta traba haundiak daude, bereziki udalez gaindiko administrazioarekin lotutakoetan: medikua, liburutegia, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak...; lan munduan apenas egiten da euskararik lantegietan, ostatuetan apaltzen ari da ezagutza, erabilera, euskarazko musika...; ikus-entzunezkoen eta teknologiarekin loturiko ia gailu guztietan erdarazko edukien kontsumo masiboa normaldua dago, kirolean hutsune haundiak daude... Hezkuntzan ere, Bortzirietako ikastetxeetan A ere-



Bor-borreko kideak: Beñat Irtzoki, Nerea Mitxelorena, Aitor Irtzoki, Mattane Rodriguez, Ander Almandoz eta Jon Abril

duak goraldi handia izan du azken urteotan, eta Euskal Herriko gainerako tokietan bezala, gurean ere erronka handia dugu erabilerarekin, gero eta gutiago aditzen baita karriketan. Bortzirietan ikasketak bukatzerakoan ere hainbat ikasketa euskaraz segitzeko eskubidea anitz murrizten da: goi zikloak, ikastaroak online, masterrak... Jakin, Bortzirietako herritar gehienek dakigu euskaraz, erabilera, aldiz, aunitzez ere motelago gabiltza. Gure herriak eta gizarteak aldatzen ari da, sare sozialak harremanetarako bideak aldatzen ari dira, globalizazioak bertze gizarte eredu bat ekarri digu, hedabideen kontsumoa ez da orain hamabortz urteko bera, gazteen erreferente sozial eta kultural gehienak ez dira euskarazkoak, eta euskara hagitz ahul dago eremu horietan. Globalizazioarekin etorri diren berrikuntza horietan, itxuraz, ez dago euskararen ganako debekurik, baina itsaso zabal horretan gure hizkuntza urtu egiten da, eta kalteak, kontzientziarikizan ezean, hagitz nabarmenak dira.

Zein dira herriz herri indarguneak eta ahulguneak?

Beran ez bertze lau herrietan, ezagutza handia da, %80-90etik goitikoak, eta erabilera txukun

xamarra, baina baditu hutsuneak. Beran, aldiz, ezagutza eta erabilera aunitzez ere apalagoak dira, eta Bortziritarren ia erdia bertan bizi delakontuan hartuz, arretaz erreparatu behar diogu. Aldi berean, gabezia handieneko herrietan dago aktibatze gaitasun handiagoa. Herri tikietan, maiz, sentsazioa da dena lortua dagoenarena. Kultur eskaintza, oro har, euskalduna da, ez, ordea gainerako eremuetan. Eremu horietan, gaztelera naturaltasunez mantentzen dela dirudi. Eskola, nagusiki, euskalduna da, baina ez da aski erabilera saltoa emateko...

Herritarrek konturatzen gara euskararen egoera zein den?

Batzuk bai, eta bertze batzuk ez, berdintasunean, krisi klimatikoan edota bertzelako erronka sozialetan bezala. Bada kontzientzia handiko herritar multzo zabala. Herri ekimenari esker, Euskal Herrian eta baita Bortzirietan ere, lortu dugu eskola euskalduntzea, ikastolen sorrerarekin lehenbizi, eta es-

kola publikoa euskaldunduz gero; martxan paratu ditugu tokiko euskarazko hedabideak, ТТИП-ТТАПА kasurako; egungo euskarazko kultur eskaintzak ez du zerikusirik orain dela 40 urtekoarekin; udal administrazioan eragiteko gauza izan gara... Herritarren bulkadarekin egin du aitzinera, neurri handi batean, euskarak. Eta ditugun erronkei ere hala egin beharko diegu. Administrazioaren lana ezinbertzekoa izan dena, baina ezin dugu dena administrazioaren esku utzi.

Euskarari eta Bortz!Egunari begira, zer mezu emanen zeniekete bortz herrietako herritarrei?

Zipriritzeko euskararekin. Gozatzeko. Kontzientzia astintzeko, eta galbana utzi eta biltzeko euskaltzaleen bestara. Gogoan hartzeko zenbat momentu gozo eman dizkigun gutako bakoitzari euskarak, eta zenbat sentsazio on lotzen ditugun euskararekin. Komunitate bat, bertzeengandik desberdintzen gaituena, elementu kohesionatzailea eta integratzailea dela euskara. Eta erabiliz hartuko duela arnas berria. Zerbait gaineratuko zenukete? Tiki utzi nahi dugula Etxalar urriaren 12an. Eta urriaren 14tik aitzinera hurbiltzeko Bor-borreko lantalderen batera.

«BORTZIRITARREN BILGUNE IZATEA NAHI DUGU BORTZ!EGUNA»



Kategoria guztietako irabazleak. Bertiz, eskuinetik bigarrena.

Rural Kutxa BTT Kopa irabazi du Eneit Bertizek

23 urtez beheitiko kategoriako sailkapen orokorrean nagusitu da, Arazuriko azken proban bigarren izan ondotik

MAIDER PETIRENA

Nafarroako Rural Kutxaren BTT Kopako azken proba egin zuten irailaren 15ean Arazurin. 23 urtez beheitiko kategorian bigarren izan zen Saltoki Connor taldeko Eneit Bertiz sunbeldarra, baina aski izan zuen sailkapen orokorra irabazteko eta maillot horia lortzeko. Kategoria horretan hirugarren izan zen Katea Bike Team taldeko Koldo Herrera sunbeldarra. Arazuriko probako irabazlea Raul Villar errioxarra izan zen.

Kontuan hartu behar da Rural Kutxaren BTT Kopako



Bertiz eta Herrera Arazurin.

lehenbiziko bi probak irabazi zituela Eneit Bertizek Oibarren eta Deikaztelun. Zangozako hirugarren proba, berriz, Koldo Herrerak irabazi zuen. Zorionak bi txirrindulariei!



UTZITAKOA

Bardoen saioa Ulibeltzak elkartearen

Ulibeltzak elkartearen Malerreka ez da Baztan eta Pikutara Goaz taldeen arteko saioa irailaren 13an. Iker eta Egoitz Gorosterrazu eta Bittori Elizalde aritu ziren kantuan etxeko taldean eta Gaizka Baigorri, Jon Aldabe eta Xuban Etxegia aritu ziren gaiak ematen. 40 lagun elkartu ziren.

Iraide Iriarte frontballean txapeldunorde

Nafarroako Kirol Jokoen barrenean, frontball pilota txapelketa jokatu dute Barañaingo Retegi pilotalekuan. Jubenil mailan, Ados pilota elkarteko Iraide Iriarte Petirena sunbeldarra finalean izan zen, baina galdu egin zuen Cresporen kontra (10-5 eta 10-8).



MAIDER PETIRENA



Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko





Herri kirolariak enpresako senitartekoekin. IBON ERRAZU URIA

Besta haundia 45. urteurrena ospatzeko

Construcciones Mariezcurrena enpresaren 45. urteurrena ospatu zuten irailaren 14an eta jendetza bildu zen

1TTIPI-TTAPA

Irailaren 14rako besta eguna antolatua zuten Construcciones Mariezcurrena enpresak. Eguerdi aitzinetik egina zuten hitzordua Merkatuko Plazaren goitiko aldean paratutako karpan, eta enpresako kideak, senitartekoak eta langileak bertan zirela, jende aunitz hurbildu zen.

Hasteko, herri kirol ikuskizuna egin zuten. Arpanean Irune Biurrun eta Eider Urrutia eta Naiara Manzano eta Saioa Etxegarai aritu ziren. Xabi Urrutiak eta Dani Saldiasek, berriz, zutik arpanarekin era-

kustaldia egin zuten. Aizkoran, Iker Vicente eta Hodei Ezpeleta *Bihurri*, Julen Alberdi *Txikia IV.aren* eta Mikel Larrañagaren kontra aritu ziren, eta Nerea Arrutik ere bere erakustaldia egin zuten aizkoran, baita Estefi Etxebeste harri altxatzaileak ere.

Herri kirol saioaren ondotik, jatekoa banatu zuten karpan bertan, eta ondotik, bazkaria egin zuten langileekin eta gonbidatuekin. Eguna borobiltzeko pilota partidak izan zituzten. Sarreraren bidez 15.275 euro lortu zituzten, eta Anela eta Aske elkarteei eman diete dirua.

Estresa kudeatzen ikasteko zortzi saiko ikastaroa emanen du Neli Yancik

OIER ZULAIKA

Neli Yanciren eskutik estresa kudeatzen ikasteko zortzi saiko ikastaroa izanen da herrian. Denera zortzi saio izanen dira astelehenetan 18:00etatik 20:00etara. Udalak antolatu du ikastaroa eta izena emateko eta zalantzak argitzeko

telefono zenbaki bat ere jakinarazi dute: 722 69 63 39.

Ikastaro horretaz gain, urriaren 5ean, modu positiboan pentsatzen ikasteko ikastaroa izanen da 09:30etik 13:30era Herrigunean. Informazioa eta izen ematea zenbaki berean egin beharko da.



UTZITAKOA

Besta ttikiak ere giro ederrean

Udaren akabailarekin batera ospatu dituzte herritarrek besta ttikiak. Gazte Burrumbak bi eguneko egitarau zabala prestatu zuten herriko ostatuen eta udalaren laguntzarekin, eta jende aunitz bildu zen antolatutako ekintzetara. Irudian herriko gazteak Zutik Elektrotxarangako kideekin batera larunbatean.

KLASEAK
IZEN EMATE IREKIAK

KENPO-KAI

HAURRAK ETA HELDUAK
BERA-ELIZONDO-URDAZUBI-DONEZTEBE

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEAK
HONBU@KENPOKAI.EU
TLF.: 686 557 758



Joaldunak, trikitilariak eta panderojoleak, baserri baten atarian, goizeko itzulian. UTZITAKOIA

Giro ederrean joan da aurten ere Joaldunen Eguna

Irazu eta Mendizabal bertsolariekin eta trikitilari eta panderojoleekin baserrietan ibili ondotik, plazan izan ziren ekitaldiak

ARKAITZ MINDEGIA

Irailaren 21ean ospatu zen Joaldunen Eguna bertze urte batez. Goizean goiz joaldunak plazan egin zuten hitzordua joareak paratu eta eguna edeki hasteko. Joaldun guztiak prestatu zirenean, lehen joare soinuak herrian barrena zabaltzen hasi ziren. Egunaren protagonistekin eta herriko trikitilariekin eta panderojoleekin batera, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendizabal bertsolariak Ameztiko bidea hartu zuten goiz erdian. Bertan, baserri baten ibili ziren beraien joare, trikiti eta pan-

dero doinuekin ibilbidea osatuz. Baserritarrak beraien bisita eskertzeko jan-edanak eskaini zizkieten, hurbildu ziren guztiei, tartean bertsolarien bertsoak entzunez.

Eguerdia partean herrira jaitsi eta plazara iritsita antolatuak herri kirolak antolatuak zituzten. Bi baztandar talde aritu ziren nor baino nor gehiago proba konbinatuan, Arraioz eta Irurita. Kirolarien ikuskizun edo lehia ikusi eta gero, Irazu eta Mendizabal bertsolarien bertsoek karpa azpian antolatua zegoen herri bazkariari bidea eman zioten. Kuadrila



Trikitilari eta panderojoleak.



Irurita eta Arraiozko kirolariak.

ederra elkartu ziren Zubillaga cateringekoak prestatutako otorduan.

Bazkal ondoko kantuak eta hain gustukoak izaten diren bertsoekin momentu zoragarriak bizitu zituzten. Bertsoen atsedenean eta baita arratsalde eta gaueko ordu tikiak arte ere, Frantxisko akordeoi-lariarekin gustura aritu ziren kantuan eta dantzan.

Kultur eskaintza zabala izanen da urrian udalaren eta gurasoen esku

Herrian kultur eskaintza zabala edukiko dugu urrian. Alde batetik, udalak bakarriketa, erakusketa eta kantaldia antolatuko ditu bere agendan. Bertzetik, Aurtizko guraso taldeak kilikiak egiteko tailerra eta afaria egingen dute urriaren 11n Aurtizko Koianea Txikia frontoian. Udalaren programazioan, urriaren 4an Jon Plazaolaren bakarriketa izanen dute Aurtizko frontoian (19:30). Animalia basatien berri gehiago jakiteko, Iñaki Atxaren argazki erakusketa eta bideo proiektzioa urriaren 18an herriko etxean. Urriko azken larunbatean Jaione Olazabal, Jon Gurrutxaga eta beraien familiaren abestiak entzungai izanen da.

Aurtizko San Martin bestak ate joka ditugu

Ate joka ditugu San Martin bestak. Eskualdeko azken bestak izaten dira Aurtizkoak. Lehen bilerak egin dituzte gazteek eta data paratua dute, azaroaren 7tik 11ra bitarte. Egunez egun, herritar zein gerturatzen dien guztientzako ekitaldi politikak izanen dira.

Bardoak taldekako txapelketan lehia ari dira herriko bertsolariak

A. MINDEGIA

Pulunpa eskolan aurten ere bertsolaritza lantzen hasi dira 5-6. mailako gelan. Irailetik otsaila bitarte, astero, Bertsolaritza irakaskuntzan programaren bitartez bertso munduan murgilduko dira. Gure herriko gaztetxoak herriko

bertsolari bat daukate irakasle, Iker Gorosterrazu. Bertzalde, Bardoak Nafarroako taldekako Bertsolari txapelketako lehen fasean aritu dira Malerreka ez da Baztan eta Baztanzopak taldeak. Lehen taldean Iker eta Egoitz Gorosterrazu daude eta bertzean



Iturengo bertsolariak Sunbillan.

Alazne Untxalo. Malerreka ez da Baztan taldeak lehen saioa irailaren 13an irabazi zuen Pikutara goaz taldearen aurka Sunbilako Ulibeltzak elkartearen. Lehen fasea akitzeko, irailaren 27an Atarrabian Argako bixiguak taldearen aurka aritzekoak ziren. Baztanzopak taldekoek, berriz, lehen faseko saioak, irailaren 27an Erronkarin eta irailaren 28an Erratzun jokatzekoak zituzten.



Urtero bezala, herriko eskulangileek beraien ekoizpenak plazaratuko dituzte.

Euskararen Eguna prest dute urriaren 11rako eta 12rako

Ostiralean liburu aurkezpena, pintxo lehiaketa eta mus txapelketa eta larunbatean beste hainbat ekintza

FERMIN ETXEKOLONEA

Ohiko egitarau zabalarekin Euskararen Eguna antolatu dute Zubietako gazteek urriaren 11 eta 12ko astebururako. **Urriaren 11n**, ostiralean 18:30ean, Julieta Itoiz, Aroa Huarte eta Nicolas Albaren *Amets egiten den basoa* liburuen aurkezpena egingen dute herriko eskolan. 20:00etan pintxo lehiaketa izanen dute Errandonea ostatuan (pintxoak entregatzeko epea 18:00etatik 19:30era). 22:00etan mus txapelketa jokatu dute Errandonean. Ordu berean, Herriko Ostatuan, Bidenabar mu-

sika taldearen emanaldia izanen dute.

Urriaren 12an, larunbatean, 10:00etan hasita, herriko eskulangileen lanak egonen dira ikusgai eta erosgai plazan. Urdaiazpiko eta gazta apustua ere egingen dute. 11:00etan joaldunak ibiliko dira. 12:00etan Donezteneko Erreka dantza taldeko dantzari ttikien emanaldia. 14:00etan herri bazkaria. 18:00etan Mutil Gazteak txaranga ibiliko da. 22:30ean Imuntzo eta Belokiren musika eta gauerdian hasita, Iratzar taldearekin erro-meria.



EUSKAL TELEBISTA

Herritarrak ETBko 'Ametsen arbola' saioan

Doneztebeko San Miguel eskolan egin zuten Euskal Telebistako *Ametsen arbola* programako saioretako bat. Juanxo Elizalde zubietarraren bilobak aitatziri gurgildun aulkia oparitzea zuen amets eta amets hori bete zuten. Elaia Esarte herritarra ere ikusi genuen programan.

Herriko Ostaturia errentan hartzeko proposamenak egiteko azken egunak

F. ETXEKOLONEA

Zubietako Herriko Ostaturia errentan emateko deialdia egin du udalak. Taberna, jatetxea eta logelak kudeatu beharko ditu maizter berriak. Proposamenak aurkezteko epea urriaren 4ra arte zabalik dago. Lan egunetan 08:00eta-

tik 11:00etara aurkez daitezke proposamenak herriko etxean bertan, 948 45 01 61 telefonora deituz edo www.zubieta.eus webgunearen bitartez. Gaur egungo maizterrek Euskararen Egunera bitarte aritzeko gelditu dira eta horren ondotik utziko dute.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
www.kulturkari.com

2023ko egutegiak
Hainbat modelo

Sakelakoak, paretan jartzekoak, mahai gainekoak, posterrak, hozkailuko imanak...

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Feretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

Donamaria bizigarri egiteko diagnostikoa egiten hasi dira

Herritarrek herrian ikusten dituzten beharrak identifikatu nahi ditu Donamariako Udalak

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

«Herriarendako etorkizun hobea elkarrekin eraikitzeko» asmoz, Donamaria Bizigarri izeneko proiektua paratu du martxan Donamariako Udalak. Herritarren ideiak, iritziak eta beharrak bildu nahi ditu herri diagnostiko parte hartzaile eginez, eta deialdia egin ondotik, Canicca enpresa kontratatu du parte hartze prozesua bideratzeko. Udalak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza hartu du horretarako.

«Donamaria inklusiboagoa, iraunkorragoa eta pertsoniei egokituagoa eraikitzea» dute begiz joa. Natalia Rekarte alkateak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «hirigintza izanen da atal nagusia, baina bertze gaiak ere kontuan hartuko ditugu». Helburu horrekin herritarrek zer dioten aditzeko bi hitzordu

antolatu dituzte. Lehenbizikoa asteartean, urriaren 1ean, egitekoa zuten Uxarrea auzoko erabilera anitzeko gelan. Herriaren erronka nagusiak zein diren eta hobetu beharrekoak zer diren hartzekoak zituzten hizpide.

Bigarren saioa urriaren 15ean Bigarren saioa urriaren 15ean egingen dute, hori ere Uxarrea auzoko erabilera anitzeko gelan, 18:00etan. Kasu horretan, *Zein hobekuntza-proposamen egin dezakegu? Nolakoa da nahi dugun herria?* galderetatik abiatuko dira.

Adin guzietako herritarrei egin diete joateko deia, denak «ongi-etorriaketa beharrezkoak» direla erranez: «Kafetxo bat hartu bitartean herriari buruz solas egitera eta pentsatzera gonbidatzen zaituztegu».



UTZITAKO ARGAZKIA

Maialen Urtxegi bertsotan saritua

Maialen Urtxegi Bidegain narbartearrak irabazi du Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa 13 urtetik beheitiko haurren mailan. Olinpiar jokoak paratu zizkieten gaitzat eta narbartearrak olinpiar jokoetako parte hartzaile bat balitz bezala osatu zituen bere bertsuak. Zorionak!

Diana Iniestaren margo erakusketa Bertzen

Coups de coeur izeneko margo erakusketa zabaldu du Erratzun bizi den Diana Iniesta margolari katalanak. Olio pinturako 32 obra bildu ditu eta horietatik 19 inoiz argitaratu gabekoak. Urriaren 31ra arte izanen da ikusgai.



DIANA INIESTA



LANDER SAGASETA

Kontzertua Donamarian

Nafarroako Abesbatzen Elkarteak martxan duen *Gogo betez kantuz* dinamikaren barrenean, irailaren 22an kontzertua izan zuten Donamariako elizan. Iruñeko Katedraleko Musika Kapera aritu zen kantari, eta bildutako jendearen hitzetan, «saio ederra» izan zen.



JAIONE ZABALO

Lesakako Abesbatza Ezkurran

Nafarroako Abesbatzen Elkarteak *Gogo bete Kantuz* zikloa egiten ari da aurten, hainbat herritan kontzertuak emanez. Bada, ziklo horren barrenean, irailaren 14an, Lesakako Abesbatzak kontzertua eman zuen Ezkurran Santa Krutz ermitan. Bildutako en zuzamenerako, saio ederra egin zuten.

Herri haundienetan biztanleriak goiti egin du oro har

Doneztebeko biztanleria ia % 44 hazi da azken 27 urteotan; eta, aldiz, Oieregin % 46 eta Ezkurran % 44 inguru jautsi da

TTIPI-TTAPA

Azken 27 urteotan biztanleriak izan duen bilakaerari erreparatuta, pixka bat jautsi egin da Bertizaranan, eta goratu, berriz, Malerrekan. Herriz herri, ordea, errealitatea aski diferentea da. Batzuk goratze nabarmena izan dute; adibidez, Legasak, Dona-

mariak, Doneztebek eta Ituren. Neurri tikiagoan, Narbarten, Elgorriagan eta Sunbillan ere goratu da. Baina gainerakoetan aunitz egin du beheitera: Oieregin, Beintza-Labaienen, Eratsunen, Ezkurran, Oizen, Saldiasen, Urrozen eta Zubietak. Ondoko taulan ageri dira datuak.

53 lagun hasi dira Malerrekako eta Bertizaranako jubiloteketan

TTIPI-TTAPA

Udako oporrak akituta, berriz ere martxan dira jubilotekak. Ramoni Ordoki begirale dutela, bortz herritan atera da zerbitzua: Narbarten bederlatzi lagun animatu dira, Sunbillan bertze bederlatzi, Donamarian hamabi lagun eman dute izena, Ezkurran zortzi lagunek (bi Eratsundik joaten dira), eta Beintza-Labaienen osatu dute talderik haundiena, hamabortz lagun apuntatu baitira (hiru Urroztik joaten dira). Narbarten eta Beintza-Labaiengoa dira berrienak; Narbarten uda

aitzinetik hasi ziren jubilotekarekin, eta Beintza-Labaienen, estreinako, irailean paratu zuten martxan. Zubietan, ordea, ezin izan dute taldea osatu.

Sunbillan eta Ezkurran astean bi egunez biltzen dira eta gainerakoetan astean behin. Egunez egun, astelehenetan, goizetan Narbarten eta arratsaldetan Donamarian elkartzen dira; asteartetan, goizetan Sunbillan eta arratsaldetan Beintza-Labaienen; asteazkenetan Ezkurran; eta ortzegunetan, goizetan Sunbillan eta arratsaldetan Ezkurran.

Biztanleriaren bilakaera Bertizaranan

	1997	2002	2007	2012	2017	2022	2024
LEGASA	237	247	257	246	250	254	275
Zeberi	5	3	5	4	3	4	5
Herrigunea	228	235	246	238	242	247	267
Santaleokadia	4	9	6	4	5	3	3
NARBARTE	304	323	322	330	295	292	309
Herrigunea	290	309	311	312	279	278	295
Tipulatze	14	14	11	18	16	14	14
OIEREGI	110	87	97	70	55	50	51
Herrigunea	101	83	90	63	50	46	48
Bertiz	9	4	7	7	5	4	3
BERTIZARANA	651	657	676	646	600	596	635

Biztanleriaren bilakaera Malerrekako

	1997	2002	2007	2012	2017	2022	2024
B. LABAIEN	303	290	258	248	235	214	218
DONAMARIA	394	387	414	436	453	451	455
Donamaria	309	309	314	321	328	333	343
Gaztelu	85	78	100	115	125	118	112
DONEZTEBE	1.291	1.359	1.494	1.679	1.700	1.826	1.858
ELGORRIAGA	198	206	226	232	212	214	205
ERATSUN	189	180	172	161	151	146	155
EZKURRA	253	232	193	169	149	136	142
ITUREN	462	470	481	523	525	508	532
Aurtitz	127	134	140	136	138	137	151
Ituren	261	257	262	307	304	279	287
Latsaga	55	57	57	58	59	64	68
Amezitia	19	22	22	22	24	28	26
OIZ	159	144	150	148	146	132	133
SALDIAS	157	151	120	116	115	114	124
SUNBILLA	659	688	662	663	670	676	672
URROZ	216	208	182	177	188	179	177
ZUBIETA	321	307	297	311	311	304	292
Amezitia	11	-	-	3	6	6	6
Aurkidi	3	3	3	3	3	3	2
Azkota	11	9	10	8	5	4	3
Mendrasa	24	24	20	20	16	11	11
Sarekoa	13	16	14	12	4	7	9
Herrigunea	259	255	250	265	277	273	261
MALERREKA	4.602	4.622	4.649	4.863	4.855	4.900	4.963

Yodhy & Doghy®

Askatu eskuak eta gozatu Yodhy&Doghyekin paseatzeko askatasunaz. Gure eskumuturrekoek hainbat lan egiteko erosotasuna ematen dizute, zure txakurra ondoan duzun bitartean.

Mugarik gabeko paseoak!

☎ 682 529 631 ✉ info@yodhydoghy.com

🌐 www.yodhydoghy.com



INVENEXPOn (Peralta - Azkoien, Nafarroa) egongo gara urriaren 18tik 20ra. **Etorri ezagutzera!**



Urtero hainbat bazkide omentzen dituzte. Irudian iaz omendutakoak. FOTO ZALDUA

Urriaren 24an ospatuko dute Bazkide Eguna

60 urte eta 50 urte ezkondua daramatzatenak, eta 85 urte betetzen dituztenak omenduko dituzte

TTIPI-TTAPA

Urteko hitzordu garrantzitsueneko bat izaten da Arkupeak Elkarteko Bazkide Eguna. Aurten urriaren 24an, ortzeguna ospatuko dute Gorraizen.

Autobusez joanen dira bertara, eta 12:00etan parrokiaren meza izanen dute. Gainera, mezan kantuan eta organoan jotzen ariko da Haritz Sagaseta donamariarra.

Hainbat lagun ere omenduko dituzte: 60 urte ezkondurik daraman bikote bat, 50 urte ezkondurik daramatzaten 21 bikote eta 85 urte bete dituzten 17 bazkide.

Omenaldiaren ondotik bazkariaren txanda izanen da. Gorraizko gazteluan izanen dute otordua, honako menuarekin: barazki krema, uso basatiaren kaneloia Ultzamako onddo eta almendrekin, bakailaoa tenperatura baxuan piper erreekin, bildots errearen Tuterako kukulu eta parmentierarekin eta albertxiko gazta tarta Milagroko gereziekin eta limoizko izozkiarekin. Edateko ura, ardoa, cava, kafea eta likoreak izanen dituzte.

Otordua bukatzean, dantzaldia izanen dute Joxe Angel musikariarekin.

Benidormera, Lizarrara eta Lodosara, eta Kanariar Irletara hurrengo irteerak

TTIPI-TTAPA

Heldu den hilabeteetan ere hainbat irteera izanen dituzte elkarteko bazkideek, egun batekoak zein luzeagoak.

Urriaren 5etik 15era Benidormera joanen dira. Azaroaren 7an, aldiz, egun pasa egingen dute Lizarra eta

Lodosara. Urteko azken irteera, aldiz, Fuerteventurara eta La Gomera egingen dute azaroaren 6tik 16ra.

Hiru irteera horietarako izen emateko epea pasatua da dagoeneko.

Berriki, Galizian egonaldia egingen dute.



Lezoko plazan herri kirolak ikusteko aukera izan zuten. UTZITAKOIA

Elkarteko 106 bazkidek hartu dute parte Lezoko irteeran

TTIPI-TTAPA

Elkarteko 106 bazkide Lezora joan ziren irailaren 14an. Santo Cristo de Lezo eguna ospatzeko aitzakian egun pasa ederra egin zuten. Lehenik mezetara joan ziren, eta ondotik herriko plazan aizkora apustuaz gozatzeko aukera izan zuten.

Ondotik, Gurutzeberrira joan ziren bazkaltzera eta bazkari goxoa dastatu zuten. Otorduaren ondotik, dantzaldia izan zuten eta bi ordu pasaz dantzan aritu ziren parte hartzaileak. 19:00etan, egun ederra pasata, autobusak hartu eta etxera itzuli ziren bazkideak.



67 mendizalek hartu dute parte Belaten egindako irteeran. UTZITAKOIA

Irailako irteeran Txarutan eta Garmendian ibili dira mendizaleak


TTIPI-TTAPA

Irailako mendizaleen irteeran 67 lagunek hartu zuten parte eta Belaten barna osatu zuten txangoa. Goizeko 9etarako paratua zuten hitzordua, eta 11 graduzituztela hasi zuten bidea. Bidakorriko txabolan gosaldia zuten, eta Uztalakortatik Txarutara (1.081 metro) eta Gar-

mendiara (1.059 metro) igo ziren. Lainoa joanda, bista zoragarriez disfrutatu zuten. Bidean orkatx bat ikusteko aukera ere izan zuten.

15 kilometro pasa eginda, eguna borobiltzeko Santamarian egin zuten bazkaria. Urriko irteera Uharte Arakilen egingen dute.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK



Autokontsumorako instalazio kopurua Nafarroan hazten ari da gelditu gabe, eta ia guztia eguzki plaken bitartez

Beheko datuak ikustea nahikoa da bilakaeraren ideia zehatz bat egiteko. 2019an 206 autokontsumo instalazio egin baldin baziren, aurten, 2024an, soilik uztailearen 15a bitarte, 9.594 autokontsumo instalazio eginak ziren jada etxe eta enpresetan, ia den-dena energia fotovoltaikoa erabiliz. Eta aldi berean, laguntza eskaeren erritmoak espektatiba guztiak gainditu ditu eta Nafarroako Gobernuak IDAeri zazpigarren laguntza pakete bat eskatu dio.


Zer da autokontsumo energetikoa?

Norberaren kontsumorako elektrizitate berriztagarria ekoizteari deitzen zaio autokontsumoa, etxean edo bizilagunen komunitatean eguzki panel fotovoltaikoak edo sorkuntza berriztagarriko bertze sistema batzuk instalatuz egiten dena.

Gisa horretara, kontsumo elektrikoaren zati bat guk geuk geure etxean muntatu dugun instalazioak sortutako energiarekin estaliko dugu, eta hartara, gure faktura elektrikoan zuzeneko aurrezpena ikusteaz gain, merkatuan argindarraren prezioak dituen gora-beheretatik libratuko gaitu zati batean.

AUTOKONTSUMO INSTALAZIOAK NAFARROAN, 2019-2024

Autokontsumo instalazioen kopurua



Instalaturako potentzia, guztira



bertakoa, euskalduna, kooperatiboa, berriztagarria




goiener



ekarri zuk ere argindar faktura goienerera

- 📍 Bidazi. San Esteban 11. Bera (hilero lehen ostiralean)
- 📍 Santesteban Musikaria kalea 5. 20011 Donostia
- 📍 Kale Berria 111. 31001 Iruñea

☎ **900 816 365**
 ✉ goiener@goiener.eus
 🌐 www.goiener.eus



Zeri deitzen zaio autoprodukzioa?

Bakoitzak behar duen elektrizitatea sortzeari deitzen zaio autoprodukzioa, izan etxerako, granjarako, lantegirako edo pabiloi baterako.

Gaur egun, autoprodukzio sistemarik zabalduena fotovoltaikoa da, baina izan badaude haizearen energia eolikoa edo lurpeko beroa (geotermia) baliatzen dutenak ere.

Helburu nagusia **autohornikuntza energetikoa** da, kontsumo guztiaren adina elektrizitate edo zati handi batean bederen hornitzea, baina baita sor litekeen elektrizitate soberrakina kudeatzea ere.

Komeni zaigu kontsumoa produkzio handiko orduetara mugitzea

Autohornidura handitzeko, garrantzitsua da energia ekoizpen orduetan

ahalik eta energia gehien erabiltzea. Konparazio batera, autoprodukzio fotovoltaikoaren kasuan, komeni da labea, garbigailua edo bertze edozein gailu, argi gehien dagoen orduetarako programatzea, hau da, egunaren erdiko orduetarako. Izan ere, bateriarik edo biltegitratze sistemarik ez bada instalatzen, elektrizitatea sortzen den momentu berean aprobetxatu beharko baita. Gainerakoan hobe bateria instalatzea, metatutako energia gauez baliatzeko..

Soberakin energetikoa eta Iberdrolaren konpentsazioa hileroko fakturan

Bateriak beteta ditugunean, soberan dagoen energia kontagailutik pasatu eta Iberdrolaren sare elektrikoan sartzen da. Kasu horretan, gure ins-

Zalain Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

DOMOTIKA

IBILGAILU ELEKTRIKOAK
KARGATZEKO GUNEA

EGUZKI PANELEN

ELEKBERRI INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
EGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

- Proiektu pertsonalizatu, baimen eta diru laguntzen gestioa
- Amortizazio planen azterketa
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioa
- Finantziazio aukera

646854825 / 616898065 · elekberri@gmail.com · Elizondo (Baztan)

talaziotik sare elektrikora sartzen diren kWh-en balio ekonomikoa kontagailu adimendunak kontabilizatuko du eta gure hurrengo fakturan deskontatuko zaigu. Aukera horrek berekin ekartzen du Iberdrolarekin tramite batzuk egin behar izatea, gero, gure fakturan soberakinen dirua konpentsatua ikusteko. Deskontu bat izanen da, ez diru sarrera bat. Hau da, ez da dirurik hartuko Iberdrolaren sare elektrikora bidalitako kW-engatik, nahiz eta soberakinen balioa guk Iberdrolari erositako balioa baino handiagoa izan. Eta hila-bete batetik hurrengora ere ezin izanen da metatu. Soberakinen balioa Iberdrolatik hartu dugun energiaren kostua konpentsatzeko erabiliko da, fakturan aurrezteko, baina fakturan agertzen diren bertze kapitulu batzuk ukitu gabe: bidesariak, kontratatutako potentzia eta abar. Kontsumitutako energiaren kostua zero izanagatik, bertze kapitulu horiek ordaintzea tokatuko da beti.

Instalazio fotovoltaiko baten elementuak

Hauek dira instalazio baten oinarriko elementuak:

- **Panel fotovoltaikoak:** eguzkiaren argitik sortzen dute elektrizitatea. **Garrantzitsua da panel kopurua aurreikusitako kWh potentziaren kontsumora egokitzea.**
- **Inbertsorea:** panelen korrante zuzena korrante alferno bihurtzen du inbertsoreak.
- **Etengailuak:** gaintentsioak edo galerak gertatzean aktibatzen diren babesleak dira.
- **Bateriak (hautazkoa):** eguzki argirik ez dagoenean, lehendik panelek sortutako elektrizitatea gordetzen da baterian.

Autoprodukzio instalazioek eraginkortasun altua izaten dute, sortzen den toki berean erabiltzen baita elektrizitatea, garraioan (sare elektrikoan) sor daitezkeen galerak saihestuz.



H. LOPEZ

Aire girotua

Tximiniak

Gas, gasolio eta biomasa galdara eta berogailuak

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com



LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak



LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david



MB SOLAR

- ✓ ETXEKO AUTOKONTSUMORAKO INSTALAZIOAK
- ✓ AUTOKONTSUMO INDUSTRIALERAKO INSTALAZIOAK
- ✓ AUTOKONTSUMO KOLEKTIBORAKO INSTALAZIOAK
- ✓ IBILGAILU ELETRIKOEN KARGAGAILUAK
- ✓ ETXEBIZITZA ETA INDUSTRIARAKO BILTEGIRATZE SISTEMAK
- ✓ INGENIARITZA, DISEINUA, MUNTAKETA ETA MANTENTZE LAN PROPIOAK
- ✓ O&M ZERBITZU INTEGRALA


2023TIK
ZURETZAT ENERGIA ERALDATZEN

948 072 091

www.mbsolar.net

adminstracion@mbsolar.net

Mutiloabeiti industrialdea, E kalea, 3 eraikina, 2.solairua, C bulegoa - 31192 Mutiloabeiti



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean



Instalazio fotovoltaikoen kopurua herrika

Taulan daude erregistroan tramitatu diren instalazioak. Instalazioak **Pertsona Fisikoek** egin baldin badituzte, Nafarroako Ogasunaren aldetik % 30eko **kenkaria hartuko dute Errentaren Aitorpenean. Enpresen kasuan, kenkaria Sozietateen gaineko Zergan** aplikatuko zaie.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen ditu hainbat jarduera. Hauek dira laguntzarik nagusienak:

- **Autokontsumoa eta energia biltegitratzea.**
- **Energia biltegitratzeko instalazioak.**
- **Energia berriztagarri termikoen instalazioa.**

NAFARROAKO AUTOKONTSUMO INSTALAZIOEN ERREGISTROA | 2023-2024

Datuen azkeneko eguneraketa 2024/09/18

Herria	Instalatutako potentzia kW	Instalazio kopurua		
		Denetara	2024	2023
Amaiur	6,72 kW	1	0	1
Aniz	15,00 kW	1	0	1
Arano	3,60 kW	1	1	0
Arantza	74,00 kW	5	0	5
Areso	13,00 kW	3	0	3
Arizkun	36,00 kW	4	0	4
Arraioz	15,00 kW	4	2	2
Azpilkueta	37,60 kW	3	1	3
Bera	534,70 kW	24	3	21
Berroeta	10,00 kW	1	0	1
Donamaria	29,88 kW	6	0	6
Doneztebe	99,00 kW	8	2	6
Elbete	5,00 kW	2	1	1
Elizondo	171,88 kW	21	3	18
Erratzu	19,20 kW	5	1	4
Etxalar	57,43 kW	7	0	7
Gaztelu	4,60 kW	1	0	1
Goizueta	40,00 kW	1	0	1
Igantzi	158,60 kW	7	4	3
Irurita	8,00 kW	2	1	1
Ituren	17,00 kW	2	1	1
Legasa	100,00 kW	1	0	1
Lekaroz	98,00 kW	4	1	3
Leitza	15,00 kW	3	0	3
Lesaka	151,60 kW	16	5	11
Narbarte	9,00 kW	2	0	2
Sunbilla	36,00 kW	6	3	3
Oiz	10,00 kW	2	1	1
Ornoz-Mugairi	25,00 kW	2	0	2
Urroz	6,00 kW	2	0	2
Ziga	9,20 kW	2	0	2
Zugarramurdi	14,00 kW	2	0	2
Denera	1.842,01 kW	152	30	122

Jaurena

ELEKTRIZITATEA | EGUZKI PANELAK
ELEKTROGAILUAK
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Denda. 948 631 217 - T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com - www.jaurena.net

Probexu eguzkiaren energia eta paratu
EGUZKI PANELAK

Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu



Ekoiztu zure energia, izan EKologikoa

Izan zaitez aldaketa energetikoaren parte!

Auzo eta etxebizitzaren energia ereduaren aldaketa errazteko Nafarroako Gobernuak energia-komunitateak sortzea bultzatzen du.

Hurbil zaitez **Nafarroako OTC bulego ibiltarira**: energia-trantsiziara bideratutako topagunea, informazio-gunea eta gertuko bulegoa da. Behar duzun energia komunitatea sortzen lagunduko dizugu.



Deitu eta zure herrira
hubilduko gara
Irossora@nasuvinsa.es
Tel. 696153020



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatuta
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



NAVARRA † NAFARROA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua





matxako
KALEFAKZIOA • GASA • ITURGINTZA

**Iturgintza lanak
Berokuntza mota guztiak
Galdaren instalazioak**

*"Baxi" markan
eskaintza berezia.
Eskatu
aurrekontua*

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACIÓN

609 808 756 • BERA

«Sistema berriztagarriak paratzeko kasu bakoitza ongi aztertu behar da»

IGOR LASAGA TELLETXEA MATXAKO ITURGINTZA



erabilera onuragarria da eta denbora luzera aurrezpena dakarte, «baina horretarako gauzak ongi egin behar dira, eta horrek gastu haundiagoa eskatzen du instalazioan. Kasu bakoitza banaka-banaka ikusi behar da. Adibidez, azalera haundietan pisu ttikitian baino errazagoa eta eragin-korragoa da. Gai konplexua da, denborarekin hartu eta ongi aztertu beharrekoa. Denak ez du balio denetzako; kasu batzuk hagitz onuragarriak dira, eta bertze batzuk ez».

Horrez gain, azpimarratu du «etxe bakoitzeko sistema egokiena aukeratzea ez dela aski. Sistemaren errendimenduaren puska haundi bat haren garbiketa eta zaintzarekin lotua dago. Hortaz, sistema on bat izatea bezain garrantzitsua da etxean duguna behar bezala mantentzea. Eta hori aunitzetan atzentzen dugu; galdaraz oroitzen gara, baino gainerako instalazioez ez. Adibidez, zoru erradiatzaileek eta berogailuek lohia sortzen dute eta horiek noizbehinka garbitu behar dira. Horrek aunitz luzatzen du makinaren bizia eta errendimendua».

Azkenik, uraren kontsumoaz ere mintzatu da; «sistema berriek ur kantitate ttikiagoa gastatzen dute, baina garrantzitsuena, denarekin bezala, zentzuz jokatzea da».

Duela 22 urte hasi zen iturgin lanetan Igor Lasaga Telletxea beratarra. Geroztik, azaldu duenez, «aunitz aldatu da ofizioa; sistemak, materiala, lan egiteko modua...». Gaur egun, denetik egiten dute Matxako iturgintza: «etxebizitzetan iturgintza eta berokuntza sistemen instalazioa, baita aire egokituena ere, fabriketan haize konprimitu eta uraren instalazio eta mantentze lanak... Ibardinen, Dantxarinean, Luzaiden eta inguruko benta haundietan ere aritzen gara».

Lan egiteko modua aldatu da, baita legeak ere. «Eraikuntza berrietan energia berriztagarriak legezkoak dira, hortaz, geroz eta gehiago erabiltzen dira». Hala ere, «beti ez dira komeni». Energia berriztagarrien



EZPELURA ITURGINTZA

Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emaila
Biomasa • Aerotermia

T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com



gaztelu scl
ITURGINTZA

- KLIMATIZAZIOA:
 - Biomasan adituak
 - Aerotermia
 - Gas, gasoil, pellet eta egur galdarak
 - Ekoizpen sistema konbinatuak
- ETXEBIBIZITZEN ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK

**KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK
**FINANTZATZEKO AUKERA

Landa Behikoa Industrialdea, 21 31880 LEITZA
info@fontaneriagaztelu.com

T. 948 510 086
www.fontaneriagaztelu.com



**PELLET ETA EGUR GALDARAK
AEROTERMIA | AIRE GIROTUA**



Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA • arkaitzareso@gmail.com



**EKAIN
TALDEA**

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOA,
IKERKETA ETA PROIEKTUAK**



www.ekain-taldea.com

ekain@ekain-taldea.com

Amasatarren 6, ORERETA-ERRETERIA

943 340 509 - 656 702 260




**Joseba Babaze
ITURGINTZA**



- ITURGINTZA • BEROKUNTZA • KLIMATIZAZIOA •
- EGUZKI-PLAKEN INSTALAZIOA •
- AEROTERMIA • BIOMASA •
- HOZTEKO ETA BEROTZEKO ZORU ERRADIATZAILEA •
- BAINUGELEN ZAHARBERRITzea •
- BAINUGELAKO ALTZARIAK •
- GALDARA ALDAKETEN FINANTZIAZIOA:
% 0 LEHENDABIZIKO 12 HILABETETAN •

Leurtzako-etorbidea, 29. URROZ
678 99 40 00 • babazeiturgintza@gmail.com



TXARUTA

Fontanería | Calefacción | Gas | Energías renovables
Iturgintza | Berokuntza | Gasa | Energia berriztagarriak

AEROTERMIA, BIOMASA, GEOTERMIA
Energia Berriztagarrien instalazioetan espezialistak

Ingurumenarekin konprometitua

FINANTZIAZIO AUKERA



Saunier Duval Vaillant De Dietrich

KOSNER
Climatización eficiente

Thermor
Energy efficiency



VIGAS
CALDERAS DE LEÑA

Nafarroako Gobernuak
baimendutako instalatzaileak

Zaldubia Pol. A nabea
31730 IRURITA **948 451 728**

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

Sto. Domingo
31750 GAZTELU **659 234 825**

INIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrarekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak
- Aerotermia



Goikolanda 8A | 31760 ETXALAR
 T. 657 791 507 | 948 635 256
pelletsbaxtanbidasoa.com


Kontsumo baxuko berokuntza sistemak

Etxebizitza urte osoan behar bezalako tenperaturan mantentzea garestia izan daiteke. Azken ikerketen arabera, gas naturalari dagokionez, familia bakoitzeko batez bertzeko gastua 760-928 eurokoa da urtero. Sistema elektrikoekin, aldiz, urteko gastua 1.960-2.168 eurokoa da. Datu horiei erreparatuta, kontsumo baxuko berogailu sistema bat hautatzea aukera ezin hobea izan daiteke.

Orokorrean, kontsumo baxuko sistemek termostatoa izan ohi dute, baita tenperatura konstantea mantentzeko zundak ere. Horri esker, kontsumoaren goraldiak saihesten dira. Instalazioa aldatzeko edo berria paratzeko asmoa dutenentzako, ezinbertzekoa da inbertsio ekonomikoaz gain, amortizazio denborari begiratzeta, eta noski, aldaketak ekar dezakeen aurrezpenari.

Kontsumo baxuko sistemen artean, zoru eta sabai erradiatzaileak dira gehien zabaltzen ari direnak, espazio tiki zein haundiak berotzeko aproposak. Lur azpian paratutako hodietatik pasatzen den uraren berotasuna igortzean datza sistema hau. Uraren tenperaturak ez du altxuegia izan beharrik; 30-40 gradu inguruko tenperaturak aski dira. Gainera, zoru erradiatzailea energia berriztagarriekin bateragarria da. Hori dela eta, klimatizazio sistema eraginkorrenetakoa da gaur egun.

Azkenik, argi izan behar da sistemak ez ezik, erabiltzaileak ere eragina duela kontsumoan. Neguan, 18-21 gradu arteko tenperatura mantentzea nahikoa da etxean egoteko, eta 23-26 gradu artekoa. Kontuan hartu behar da energiaren kontsumoa % 7 inguru igotzen dela gradu bakoitzeko.



GURE ZERBITZUAK

- ✓ Etxebizitza osoen **zaharberritzeak**
- ✓ **Galdara** aldaketak
- ✓ **Egurrezko galdarak** edo **fogon kalefaktoren** muntaketak
- ✓ **Zoru erradiatzailea**
- ✓ **Aerotermia**

Jon Berho **639 759 197**
fontaneriaurberho@gmail.com
 Lekaroz (Baztan)





1.200.000
pertonako
taldea gara, eta
sinesten dugu
badela banka
egiteko beste
modu bat.
*Eta zuk, zertan
sinesten duzu?*



Sinesten dugun horixe gara.
Sinesten dugu konpromisoa
dugula partaide gaituen
gizartearekin. Sinisten dugu
jasotakoa baino mundu hobea
utzi behar dela. Sinesten
dugu ez dagoela bakarkako
aurrerapenik, baterakoa baizik.
Eta gure inguruan oparotasuna,
ongizatea eta berdintasuna
sustatzen lagun dezakegula.
Gaur eta bihar.


LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat




FONTANERIA
Carlos Pacheco

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Legia, 19 - BERA Tel: 637 151 170

JAVI PETRIRENA
Iturgintza eta elektrizitatea



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

EGUR ETA PELLET GALDARAK

AEROTERMIA

GASA

KLIMATIZAZIOA

EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

INSTALAZIOEN FINANTZIAKETA %0 (24 hilabete)

Instalatzaile baimendua

Tel. 679 35 49 47
jpinstalazioak@gmail.com

Geotermia: lur azpiko energia garbia

Zer da geotermia?

Denok ezagutzen ditugu eguzki energia, eolikoa, hidraulikoa... baina horietatik harago, hain ezagunak ez diren energia iturriak berriztagarriak ere badira, adibidez, geotermia. Lurraren barneko berotik lortutako energia da geotermia, lurrazal azpiko magmatik, zehazki. Bero hori aprobetxatuz elektrizitatea sortu, ura berotu eta berogailu zein hozte sistemak elika daitezke modu natural eta garbian.

Europako gainerako herrialdeetan aspalditik erabiltzen den energia iturria da, eta hemen ere gero eta gehiago zabaltzen ari da. Izan ere, guttienera 1,5 metroko sakontasunetik lor daiteke energia geotermikoa gure inguruan, eta energia fluxuaren tenperatura egonkorra izaten da urte osoan, 10-15 graduko aldearekin. Horri esker, iturri fidagarri eta ezin hobea da eraikinak klimatizatzeke.

Nola funtzionatzen du?

Geotermiak funtzionamendu sinplea dauka, lur azpiko trukatzailer geotermikoei esker, eraikinean instalatutako bero ponpak etxebizitzara helarazten du berotasuna. Udan, berriz, trukatzailerak lurrazalera bidaltzen dute beroa, eraikina hoztuz.

Lurrazpiko beroaren erabilerak, zirkuitu itxien bidez, etxeko berogailu eta hozte sistema eraginkorra

eta garbia ahalbidetzen du. Baina etxebizitzaren klimatizazioaz harago, aireztapen sistementzako eta ur beroaren horniketarako erabil daiteke. Neurri haundiagoan, berriz, energia iturri garrantzitsua izan daiteke industriarako edo kanpoko espazio haundiak egokitzeko (futbol zelaiak berotzeko, adibidez).

Abantailak eta desabantailak

Gainerako energia iturrien gisara, geotermiak bere alde onak eta txarrak ditu. Hala ere, abantailak desabantailak baino ugariagoak dira; adibidez, energiaren aurrezpena. Gas naturalarekin alderatuta, geotermiak % 75erainoko aurrezpen ekar dezake fakturan. Gainera, CO2 isurketak murrizten laguntzen du eta 25-50 urte inguruko bizitza erabilgarria dauka. Azkenik, kondentsazio dorreerik gabe jarduten duenez, horiek sor dezaketzen legionelosi gaitzaren arriskua deuseztatzen du.

Desabantailei dagokionez, berriz, instalazioaren kostua dugu, bertze iturriena baino altuagoa izan daitekeena. Hala ere, ikerketen arabera, 5-10 urtetan amortizatzen da gastua, 20 urteko guttienera erabilera denboraldian. Gasarekin, adibidez, amortizazio tartea 8-13 urtekoa da erabilera denboraldi berean.



ANTEROLA
Técnico Instalador 629 449 602

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Aerotermia, Geotermia, Egur eta Pellet galdarak

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa



ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

% 50 aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
JARTZEA



AislaNat, **Nafarroan ekoiztutako**
zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin,
egun batean,
obrarik gabe,
gutxi gastatuta
eta **produktu ekologiko** batekin.

www.aislantesaislanat.es
948 33 00 15 - 627 41 22 69



**Berogailuentzat galdara eta
aeroterminia salmenta eta instalazioa**

Saunier Duval Vaillant JUNKERS Bosch Thermotechnik

BAXIROCA

ACV ARISTON Hermann

603 517 243 Gabiria, 39
7 Lokala
IRUN

calderasharitz.com

Galdararik aproposena zure etxearentzat

Etxean eroso eta gustura egoteko, ezinbertzekoa da tenperatura egokia mantentzea. Tradizionalki etxeak berotzeko sua erabili izan bada ere, XIX. mendeko Industria Iraultzak berokuntza galdaren lehenbiziko ereduak ekarri zizkigun. Geroztik, teknologia hobetzen joan den neurrian, galdara motak ere ugaritu dira. Hala ere, denek dute funtzionamendu bera; erregaien konbustioaren bitartez sortzen dute energia.

Gaur egungo galdaren eskaintza zabalari esker, gure etxerako egokiena dena hauta dezakegu. Horretarako, inportantea da bakoitzaren ezaugarriak, abantailak eta desabantailak ezagutzea. Erabiltzen duten erregaia-aren arabera, hauek dira galdara mota nagusiak:

Gas galdara

Gas naturala edo petrolio gas likidotua erabiltzen dute, eta potentziaren arabera, zutikako edo paretako gal-

darak izan daitezke, gelaren espaziora hobe egokitzen dena hautatzeko aukera emanez. Gaur egungo teknologiari esker, aunitz murriztu da galdara horien CO2 isurketa. Etxebizitzetan ohikoenetakoak dira, efizientzia altua (% 80 baino gehiago) dutelako eta baliabideen xahuketa minimoa baita.

Gasolio galdara

Izenak dioen bezala, gasolio da galdara horien erregai. Merkeak eta eraginkorrak dira, eta mantentze lan txikia eskatzen dute. Hori dela eta, proposak dira espazio haundietan eta industrian erabiltzeko. Hala ere, bertze galdarak baino kutsakorragoak dira.

Kondentsazio galdara

Gas edo gasolioarekin funtziona dezakete, eta ur lurrunaren bero sorra probesten dute, arras errendimendu altua lortuz. Horri esker, % 30eko

*Aeroterminia
Aire girotua
Biomasa
Eguzki plakak
Lur beroa*



Txinberri

txinberri@gmail.com
611685924




**Iturgintza lanak
Energia Berriztagarriak
Aire girotua**

Finantziazioa eskatu!

669 413 790 · ELIZONDO



AEROTERMIA

KOSNER
Climatización eficiente

**EĞUR ETA PELLET
GALDARAK**

KWB

ZORU BERO EMAILEA

GREENHEISS
EFFICIENCY SYSTEMS

aurrezpena ekar dezakete fakturan. Galdara hauek aproposak dira tenperatura baxuko erradiadoreak, zoru erradiatzaileak eta *fan coil* berogailuak hornitzeko, baita ur bero sanitarioa egiteko ere.

Biomasa galdara

Berogailu sistema ekologikoenak dira, erregai biodegradagarriak erabiltzen dituztelako. Erregai horiek pelleta, egurra, ezpalak, fruitu lehorren azalak edo oliba hezurak izan daitezke, bertzeak bertze. Hori dela eta, erregaiaren arabera diseinu desberdina dute. Etxebizitza eta industria gune aunitzetan zabaltzen ari dira biomasa galdarak, ingurumena errespetatzen laguntzen baitute.

Bertzelako galdarak

Gaur egun hain ohikoak ez badira ere, bertze hainbat sistema erabil daitezke berokuntzarako, ikatz edo lurrun galdarak kasu. Industrian suzko edo urezko galdara tubularrak erabiltzen dira maiz.

Galdara egokiena lekuaren arabera

Ikusi dugun bezala, galdara bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta aproposagoa izan daiteke erabilera eta espazio zehatz baterako, efizientzia altuena lortuz.

Nekazaritza guneetan eta herri tikietan biomasa bidezko galdarak dira aproposenak, biomasa gehiago ekoizten baita leku horietan eta garrarioa errazagoa delako. Hiriguneetan gas galdarak eta elektrikoak dira eraginkorrenak, berokuntza sistemetarako eta ur sanitarioa berotzeko aproposak baitira. Industriadetan, berriz, gasolio eta ikatz galdarak dira hoberenak, efizientzia altua dutelako eta etxebizitzetatik urrun egonda, ondorio kutsagarriak ez dira hain larriak.

Beraz, inportantea da egoera, baldintza eta leku bakoitzera hobekien egokitzen den galdara erabiltzea. Teknologia berriei eta azken berrikuntzei esker, gaur egun galdarak eraginkorragoak dira, eta kutsakortasuna gero eta murriztagoa da.



Biomasa galdarak
(egurra, pelleta eta ezpalak)

Geotermia eta aerotermia

Instalazioa eta mantentze lan ofizialak

Interneten bidez pellet salmenta

Autokontsumorako eguzki-plakak



Deitu konpromisorik gabe!

www.orleghy.com
info@orleghy.com

T. 948 562 604 - M. 603 417 554



egurpellet

PELLET ZAKUAK ETXERAINO

egurpellet.com | info@egurpellet.com | T 623 246 300

Froiling etxearen **S4 Turbo** egur galdara bat da, kondentsaziorik gabe egurra erabat erretzen duena. Eraginkortasun handiko galdara, emisio gutti eta energia gutti kontsumitzen duelako nabarmentzen dena.



Alemanian gehien saltzen den egurrezko galdara

Gasa Ura Kalefakzioa

Dirulaguntzak eskatzeko eta errenta aitortpenerako tramiteak egiten ditugu.

ITURGINTZA ETA BEROKUNTZA INSTALAZIO OSOAK
AEROTERMIA
GASOLIO ETA GASAZKO GALDERAK
EGURREZKO GALDERAK
PELLET ESTUFAK
TXIMINIAK
TXIMINIEN GARBIKETAK

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA

Tel. 686.235.230 · patxi@gukiturgintza.com



ERAKUSKETA:
 Bidasoa, 45 - **BERA**

Berogailuarekin aurrezteko aholkuak

Temperaturen jaitsierarekin batera, fakturaren igoera eotrtzen da. Alabaina, berogailuaren gastua murriztea dirudiena baino errazagoa da, eta sistema efiziente batekin, urtean 400 euroko aldea izan daiteke.

Hasteko, temperatura kontrolatua mantendu beharko genuke. Egunez, etxeak 21 gradu inguruan beharko luke, eta gauetz 17 gradu inguruan. 23 gradutik goiti giroa idortzen hasiko zen, eta lo egiteko, nahikoa izaten da temperatura baxuagoa.

Sistemaren akatsak saihesteko, berriz, komenigarria da urtero errebisioa egitea negu aitzinetik. Termostato hondatuak edo ongi ixten ez duen erradiadoreak gastu handia ekar dezake. Horrez gain, tenperatura mantentzeko ezinbertzekoa da isolamendu ona edukitzea, beroak alde egin ez dezan.

Ohiko bertze akats bat erradiadoreak estaltzea izaten da; batzuetan arropa bustiak erradiadore gainean paratzen ditugu lehenago idortzeko, eta horrek beroaren hedapena oztopatzen du.

Etxe hotz bat berotzeko, hainbat truko har ditzakegu kontuan; gortina lodiagoak erabiltzea, eguzkiaren berotasuna ahalik eta gehien probestea, alfombra edo moketak edukitzea, altzariak modu zuzenean paratzea (erradiadoreen beroa ez oztopatzeko), barnean arropa gehiago janztea...

Berogailu sistema berria paratu edo zaharra aldatu nahi dutenentzako, etxebizitzara hobe egokitzen dena aukeratzea ezinbertzekoa da. Klimatizazio eta isolamendu efiziente eta jasangarriak inbertitzeak aurrezpen inportantea ekarriko du etorkizuneko fakturan.



SUARIMA

T. 686 776 686
www.suarima.com
amaiur1212@gmail.com

Negua etorri aitzinetik...

RITE ziurtagiria CIT 1878

TXIMINIA ETA KEDAR-GARBITZAILEA

- KALITATEKO ERREBISIOA ETA GARBITZEA
- KAMERAREKIN BISTARATZEA
- ARAZOAK KONPONTZEKO AHOLKULARITZA
- GARBIKETA ETA BIGARREN BISTARATZEA

ESKERRIK ASKO KONFIDANTZARENGATIK!



ITURGINTZA, BEROKUNTZA ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK


948 450 063-620 886 443
 info@berotza.es-www.berotza.es
 31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



GALDARA MISTOA



AEROTERMIA ETA GEOTERMIA



GALDARA



EGUZKI PLAKAK

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Herrian zerbitzua ematea asko eskertzen dute»

MARIA ZABALETA ZABALETA
BI PAUSO - LEITZA



Duela 8 urte ireki zituen atea Leitzako Bi pauso zapata dendak, eta orain arteko balantzea positiboa da; «nabaritzen da pixka bat jaisten ari dela, baina orokorrean pozik nago». Emakume, gizon eta haurrentzako oinetakoak baino gehiago saltzen dituzte: «poltsak, karterak, motxilak, jertseak, galtzak, berokiak, alkandorak, nezeserrak, etxeko zapatilak, haur aulkiak...». Horien artean, «emakumeen oinetakoak eta poltsak saltzen dira gehien». Gainera, udako azken produktuez gain, neguko lehenbizikoak ditu orain dendan. Internetaren zabalkuntza garaian, «jendea herrian kontsumitzera animatu nahiko nuke, dendak itxi arte ez garelako konturatzen zenbateko garrantzia duten. Hala ere, egia da helduak eskertuak egoten direla zerbitzua herrian emateagatik, kanpora joan izan beharrik gabe».



«Bezeroak bere etxea maitatzea da gure lana»

CRISTINA JUANOTENA OIARZABAL
ALMACO - ELIZONDO



Eraikuntzarako materiala baino gehiago saltzen duen enpresa da Almaco, Cristina Juanotena dekoratzaileak azaldu duen bezala; «Maite eta biok barne-diseinatzaile lanetan aritzen gara; komunak, zeramikak, parketa, atea, leihoak, berokuntzarako aparatuak eta lorategiko barbakoak zein apaingarriak ditugu. Gure lana etxeko espazioa bateratzea da; estiloak elkartzea, gune argitsu eta atseginak sortzea, naturarekin lotzen gaituzten materialak erabiltzea... bezeroak bere etxea maitatzea, azken finean». Hori dela eta, «hasmentatik bukaeraino egiten dugu lan, bezeroaren nahi eta beharretara egokituz; bere etxea ikusi, neurriak hartu eta xehetasun guztiak zaintzen ditugu. Jendea animatu nahiko nuke etortzera, eta edozein zalantza argitzeko hemen izanen gaituzue».



«Administrazioak baserritarrei lagundu beharko lieke»

BIXENTE AROZENA ANDUEZA
MENDAUR PENTSUAK - DONEZTEBE



28 urte bete ditu aurten Mendaur Pentsuak enpresak, eta hasiera hartatik «aunitz» aldatu da; «nekazari etaazienda gehiago baziren, baina orain administrazioak oztupoak paratzen dizkie eta aunitzez guttiago dira». Hori dela eta, enpresak bere eskaintza egokitu du; «lehen zerri eta behi pentsuak ziren produktu nagusiak, eta orain maskotentzako produktuak saltzen dira gehien; pentsuak, artikuluak, bitaminak... hala ere, oilo pentsua ere ongi saltzen da oraindik. Jatekoa ere badugu; ardoa, fruta, patata...». Adierazi duenez, «administrazioak nekazari gazteei lagundu beharko lieke, oztopatu beharrean, mendiak garbi mantendu eta gure bizimoduari eutsi nahi badiogu. Pena da baserritarrek aitzinera egiteko zailtasunak bertzerik ez dituztela ikuste».



«Haur, heldu eta adinekoentzako eskaintza dugu»

JOXE VIELA URTASUN
SASTRAKO - BERA



2024/25 ikasturterako prest da Berako Toki Ona kiroldegia, Sastrako Kirol Zerbitzuak jarduera eskaintza zabala baitu adin guzietarako: «haurrentzako multikirola, dantza eta gazte *fitness* dugu, helduentzako zumba, pilates, ziklo eta gap, eta adinekoentzako mantentze gimnasia». Gainera, «aurtengo berritasunak *body pump* klasea eta hirugarren adinerako entrenamendu funtzionala dira». Udazkenean «mugimendu haundia izaten da kiroldegian, bazkidezteko eskaintza egiten dugu eta aurten ere hagitz erantzun ona izaten ari da. Gainera, jarduerak ezagutzeko ate irekien jardunaldiek ere jendetsuak izan dira. Berria izanik, *body pump* izan da jarduerarik arrakastatsuenak, jende aunitzek eman baitu izena probatzeko».

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

Batere ≠ deus

Batere eta deus (ezer) baliokideak dira zenbait kasutan, baina ez beti.

Baliokideak dira, aditzaren osagarri, era honetako esaldietan (batere =deus, ezer):

- o Ez dut batere ikasi. Ez dut deus/ezer (ere) ikasi.
- o Ez du batere saldu. Ez du deus/ezer (ere) saldu.
- o Ez dugu batere sinesten. Ez dugu deus/ezer (ere) sinesten.

Hauetan, ordea, ez dira erabat kidekoak:

- Batere erabil daiteke adjektiboaren maila adierazteko; ezer eta deus, ez.
 - o Erabaki hori ez da batere erraza (*deus erraza).
 - o Ez da batere kontu garbia (*deus... garbia).
 - o Neska-mutil horiek ez dira batere ikasle onak (*deus... onak).
- Batere erabil daiteke adberbioaren maila adierazteko ere; ezer eta deus, ez.
 - o Ez dago batere ongi errana (*deus ongi).
 - o Ez gara batere segur mintzo (*deus seguru).
 - o Maiz mugak ez daude batere garbi (*deus garbi)
- Batere ongi egokitzen da <-ik + izena> egiturarekin (izena ezkerrean edo eskuinean duela); ez, ordea, ezer eta deus.
 - o Batere atsekaberik hartu gabe. Ez dut dudarik batere.
 - o Eta haurrek ez dakitela euskararik batere?
 - o Ez duzu laguntzarik hartuko batere.
 - o Beldur(rik) batere gabe etorri da. Batere nekerik gabe egin dute.
- Aditzaren osagarri denean, ukapen osoa hobeki adierazten du baterek:
 - o Ez da batere erabiltzen.
 - o Ez dut batere gogoko...
 - o Batere begiratu gabe egin dut.
 - o Ez naiz batere harritzen.
 - o Goiz jaikitzea ez zait batere kostatzen (deus).
 - o Filma ez zitzaidan batere gustatu (deus).

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Zein da zuzena?


'*Jakinmin' edo 'jakin-min'?

Jakiteko edo zerbait jakiteko gogo da jakin-mina, eta Euskaltzaindiaren hiztegian ageri denez, bereiz eta marratxoarekin idatzi behar da: *Jakin-min*. Eta bide beretik, baita hauek ere: jakin-nahi, jakin-behar, jakin-gose, jakin-egarri...

Eta zuk zer diozu?


Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus


 744 48 43 61

Oharra: 862. aldizkariko bikoteak: Eraman>eramak/n; ekarri > ekardazu; jakin>jakik/n; eman>emaguzu; esan>esadak/n.
Beraz, *emaizazu, *emaiguzu, *esaidak/n; *eramazak/n; *ekarridazu; *jakizak/n... ez dira zuzenak.

Osatu erran zaharra



eta



«Saretzea da gaztetxe eta gazte asanbladen erronketako bat»

LEITZAKO GAZTE ASANBLADA EHKO GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADEN TOPAKETAK

Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak egiten dituzte Leitza urriaren 19an: saretu, hausnartu eta elkarrekin bidea egiteko

ENERITZ IRAOLA LEITZA

Urriaren 19an, Atekabeltz herri-gunearen bueltan bilduko dira Euskal Herri osotik etorritako gazteak. *Autogestioa saretu, etorkizuna okupatu* lelopean, elkar ezagutu, gogoeta egin eta bide berriak elkarrekin lantzeko asmoz antolatu dute hitzordua.

Zein da topaketen helburua?

Herri ezberdinetako kideak elkartu eta hango eta hemengo errealitateak bildu nahi ditugu. Tokian tokiko egoerak, erronkak, oztopoak edota proiektuak elkarrekin partekatzeko elkargune bat proposatzin diegu Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladetako kideei. Aukera baliatu eta topaketak autogestioaren, botere-harremanen, okupazioaren edota borroka moldeen inguruan hausnartzeko tresna izatea nahi dugu.

Nola izan da antolaketa?

Topaketak antolatzea, prozesu kolektiboa izan da. Zazpi lurraldeetako hamarnaka kide elkartu gara modu irekian, asanblarioan eta horizontalean aritzeko. Taldea, uneoro, irekita egon da eta hala izaten jarraitzen du. Nahi duenak sare sozialetatik edota gaztetxetopaketak@gmail.com bidez gurekin harremanetan jartzeko modua du.

Zein da Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen egoera?

Gaztetxe eta gazte asanbladen aurkako ofentsiba nabarmen bat dago, mugagabea. Hainbat



Mahai inguruak, tailerrak, kontzertuak... antolatu dituzte. UTZITAKOIA

arlotan ikus dezakegu, eta horren aurrean elkartasunez jokatzea da bidea. Gure egunerokotasunean hainbat oztopo izaten ditugu eta egoera aztertu eta irtenbideak lortzeko ere antolatu ditugu topaketak.

Saretzea da erronketako bat...

Topaketen antolaketa ere nabaritu dugu hori. Prozesu luzea izan da, eta harremanak egitea ere zaila izan da. Hala ere, uste dugu eskualde askotara iritsi garela, eta egindako lanak, aurrera begira, bideak erraztuko dizkigula.

Zeintzuk dira gazte asanbladen eta gaztetxeek esku artean dituzten beste erronkak?

Askotarikoak dira esku artean dauzkagun erronkak. Tokian toki, hauek eraldatu egiten dira.

Topaketetan erronka hauek guztiak komunean jartzea izanen da erradiografia bat egin ahal izateko modurik errazena. **Zein dira gazte asanbladetan erdigunean egon behar duten baloreak?**

Minimo batzuen baitan aritzen gara beti gazte asanbladak. Elkarlaguntza eta autogestioa oinarri garrantzitsuak dira; besteak beste, forma asanblarioa eta horizontala izan behar dute espazio hauek, seguruak

«GOGOETA EGIN ETA BIDE BERRIAK LANDU NAHI DITUGU»

izan behar dute pertsona oro-orentzat, tokian tokiko problematika ezberdinak borrokatzeko eta antolakuntzarako espazioak. Pentsamentu kritikoa garatzeko eta bestelako aisialdi eredu bat sustatzeko ere.

Gazte asanbladek zein funtzio betetzen dute?

Gazte asanbladek funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte herrietan. Hala nola, aipatu bezala, pentsamendu kritikoa garatzeko espazioak dira, jakintzak partekatzeko espazioak, eta hau herrigintzaren oinarri-rik sendoena dela esan genezake. Normalean, lehen urratsak izan ohi dira gazte asanbladak.

Eta gaztetxeek?

Gaztetxe bat bestelako modu batean amets egiten dugunon eta etorkizun berri bat eraiki nahi dugunon espazioak dira. Espazio hauek itxura, egitura... desberdinak dituzte, baina denek bat egiten dute hainbat ezaugarritan. Espazio seguruak dira, horizontalak, asanblarioak eta parte hartzaileak; horiek dira gure gaztetxeak. Aldarrikapenerako, borrokarako eta etorkizuneko bideak sortzeko guneak.

Urriaren 19rako, zer antolatu duzue?

Goizean 10:30ean hasiko dira topaketak, harrera ekitaldiarekin. 11:00etan tailer kolektiboa egingen dugu *Nondik gatoz eta nora goaz?* izenburupean. 14:15ean bazkaldu eta bazkaldoan mahai inguruak, hitzaldiak, eztabaidak, tailerrak... antolatu ditugu. Hainbat gai landuko ditugu: autogestioa, okupazioa eta elkartasuna, borroka moldeak eta errepre-sioa, euskal eszena musikala, botere harremanak eta espazio seguruak, komunikazio politika... 19:30ean mobilizazioa antolatu dugu herrian barna eta 22:00etan Naxker, RTZ kolektiboa eta Las Sexpeares taldeen kontzertuak izanen dira. Egun osoan, serigrafia txokoa, Leitza gaztetxe-ari buruzko erakusketa eta esperimentziak trukatzeko txokoa bisitatzeko aukera izanen da.

Aurrera Eguna ospatuko dute urriaren 5ean

Elkarteko atal desberdinek urte osoan zehar egiten duten lana aterako dute plazara

TTIPI-TTAPA

Aurrera elkarteak urte osoan egiten duen lanaren erakuslea da antolatu duten egitaraua: kirola, kultura, lagunartea eta pesta biltzen dituena.

Txistu doinuekin emanen diete hasiera Aurrera Egunari. 09:00etan txistularien diena hasiko da. Ordu berean, BTT taldekoek irteera eginen dute Guratz aldera. Hamalau urtetik gorakoek parte hartu dezakete eta kaskoa eramatea derrigorrezkoa izanen da. 10:00etan Aurrera futbol eta eskubaloitako jokalariek gazteen partiduak antolatu dituzte herriko plazan. Horien atzetik, 11:30ean, Aurrera Pilota Eskolako pilotarien txanda izanen da. Segidan, zapatila eta galtza zuriak erantzi eta espartzinak jantziko dituzte. 12:30ean Aurrerako

dantzarien emanaldiaz gozatzeko aukera izanen dute plazara hurbiltzen direnek. Bazkalaurrea girotzeko, kalejiran aterako da Incansables txaranga. 14:30ean bazkaria izanen dute karrapean. Honetaz gain, 11:00etatik 13:00etara, Aurrerako atarian rokodromoa eta haur eta gazteentzako ginkana antolatu dituzte, norberak bere bizikleta eta kaskoa eraman beharko ditu horretarako.

Bazkalondoan, bazkideek Ingurutxo dantzatuko dute, eta ondoren kalejira eginen dute, berriz ere, Incansables txarangarekin eta Leitzako erraldoi eta buruhaundiekin. 21:30ean luntxa izanen da elkartearen bazkideentzat eta bazkaldarrentzat. Pestak segida izanen du Bull DJaren eskutik.



MIKEL ILLARREGI

'Letrak kalera' liburuaren aurkezpena

Literaturaren bueltan txirrinta sortu eta literatura kalera ateratzeko bidea eman du *Letrak kalera* ekimenak. Herritarrei egin zieten idazlanak osatzeko proposamena eta uztza oparoa bildu zuten. Horiak denak liburu batean jaso eta irailaren 19an aurkeztu zuten jendaurrean emaitza.



EHMendi Erronka, Xabier Amuriza eta Union Tuterak omendu dituzte. M.ILLARREGI

'Herri libre bat: euskaraz, kirolean, plazan' bildu da irailaren 21ean

TTIPI-TTAPA

Hizkuntza, kirola eta lurraldetasuna ardatz hartuta, egun osoko festa prestatu zuten Euskal Herrian Euskarazek, Gu Ere Baik, Gure Eskuk, Tximutxe euskara elkarteak eta Leitzako Udalak. Kirol erakustaldiak, musika... ez zen falta izan eta omenaldietarako tar-

tea ere izan zen. Euskal Herria Mendi Erronkak, Xabier Amurizak eta Union Tuterak taldeak jaso zuten ongi merezitako aitortza. Bakoitzak bere eremutik, baina denek bat egiten dute helburuarekin: «Euskal Herri euskalduna, libre, kirolaria, osasuntsua eta berdinzalea izatea».

Leitzako txistularien errepertorioa aztergai urriaren 4an

TTIPI-TTAPA

Txistu doinuek girotuta, herriak musika arloan duen ondare preziatuenetarikoa ezagutzeko aukera eskainiko dute urriaren 4an. Leitzako txistulariek, Leitzako Udalaren eta Musikeneren laguntzarekin solasaldia antolatu dute udaletxe-

ko batzar aretoan, 18:00etan. *Leitzako txistularien errepertorioa*, Angel Alduntzin eta Miguel Angel Sagasetaren eskutik: interpretazioetik eskuizkribuetara izenburupean, Leitzako txistularien belau-naldiz belau-naldiko errepertorioa errepasatuko dute.

Irakurle taldearen bilera eta ipuin kontaketa saioa

Urriaren 9an, 18:30ean, Leitzako irakurle taldea elkartuko da Itxaro Bordaren *Euri zitalari esker* liburuaz hitz egiteko. Urriaren 15ean, berriz, *Azken Otsoa* ipuin-kontaketa eta tertulia dialogikoa antolatu dute sei urtetik gorako umeentzat, 17:30etik aurrera.

Nesken korrika taldea sortzeko asmoa dute

Nesken artean kirola sustatu eta laguntza komunitate bat sortzea litzateke asmoa. Baina ezertan hasi baino lehen, gai honen inguruan dagoen interesa zein den jakin nahi dute. Horretarako, galdetegi bat zabaldu dute sare sozialen bidez.

'Ikerketa gehiago, bizitza gehiagorako' ekimena martxan

Dokumental emanaldia, Elkartasun Eguna eta boletoen salmenta antolatu ditu 2zi elkarteak.

TTIPI-TTAPA

Bularreko minbizi metastasikoa ikertu eta finantziazioa lortzeko hainbat ekimen antolatu ditu 2zi Elkarteak. Urriaren 18an *Bularretik ehundutako testigantzak* dokumentala estreinatuko dute eta biharamunean, Elkartasun Eguna izanen da. Txalaparta doinuekin, 09:20an, hasiko da festa eta 09:30ean bularreko minbiziaren aldeko martxa solidarioa hasiko da. Parte hartzaileek ibilbide laburra eta motza izanen dituzte aukeran. Izen ematearekin batera, kamisetak banatuko dituzte eta asmoa egun horretan, Leitza kolore arrosez janztea da. 11:00etan, haurrentzat tailerrak antolatu dituzte eta 12:00etan, kalejira egingen dute joaldunek, buruhandi eta erraldoien konpartsak eta fanfarreak lagunduta. Elkarrekin, Porrotzek oparitutako pagoa landatuko dute. 14:00etan, bazkari solidarioa izanen da eta ondoren bingoa. Arratsaldean, 17:00etan, herrien arteko herri kirolak saioa egingen da. Ane Martija musikariak kontzertua eskainiko du, 19:00etan eta 20:00etan, zoz-



Porrotzek kontzertu solidarioa egin du.

keta egingen dute. Zozketarako boletoak, euro baten truke eros daitezke Leitza, Lekunberri eta Berastegiko komertzioetan edo eskolako 5. mailako ikasleen bidez. Erleta eskolan eta Amazabal institutuan ere lanketa berezia egin dute. Eskolako ikasleek gaiari buruzko tertuliak egin eta Amaia Iparragirrenen azalpenak jaso dituzte. DBHko ikasleek gaia tutoretza saioetan landu dute eta marrazki lehiaketa bat ere jarriko dute martxan. Marrazki irabazlea, urriaren 19an plazan jarriko den pankartako irudia izanen da. Batxilergoko ikasleekin berriz, formakuntza saioak antolatu dituzte Naiara Sagastibeltza onkologa leitzarrarekin.

Festetan izandako erasoak salatu ditu Erasoen Aurkako Mahaia

TTIPI-TTAPA

Bada hilabete Leitza festak amaitu zirela eta denbora tarte horretan Erasoen Aurkako Mahaia bildu da izandako gertakarien balorazio bat egiteko. Irailaren 19an jakinarazi zuten lau erasoren berri izan dutela eta «intensitate txikikoak izan diren arren, onartezinak direla» azpimarratu dute. Lañaidek talde feministako eta Leitza Gazte Asanbladako kideek ere idatzia kaleratu dute, biktimei babesa adierazi eta «jarrera matxistak, sexistak, LGBTQ+foboak, lodifoboak, arrazistak... errotik moztu» behar direla aldarrikatu. Lehendabiziko eraso Emagin Elkartearen arreta telefonoan jaso zuten, festetan. Lañaidek talde feministak izan du gainerako hiru erasoen berri, eta pesta ondoren jakin dira. Erasoak kontuan hartuta, Erasoen Aur-

kako Mahaiko kideen ustez: «argi dago, ez direla festa segurua izan denontzat». «Jarrera hauek desagerrarazi eta pesta libreak lortu arte», lanean jarraitzeko beharra nabarmendu dute: «ez dugulako inolako erasorik onartzen ez babesten. Egiteko horretan bide luzea dugu oraindik». Horretan laguntzeko herritarren bitartekaritza ezinbestekoa dela diote: «herritar oro animatzen dugu eraso bat ikusi edota jasan baldin badu salatzeraz edota horren berri ematera». Horretarako hainbat bide daude: «batetik, udaleko berdintasun sailera jotzea; bestetik, Lañaidek Mugimendu Feministako kideengana joatea; eta hirugarrenik, udal taldeko berdintasun zinegotziarengana edota beste edozein zinegotziarengana joatea. Leitza herri segurua izatea denon ardura eta denon lana da».

Kaxkabeltza elkarte kideek bidaia bat zozketatuko dute bezeroen artean

TTIPI-TTAPA

Herrian erosketak egitea sarritu du beste behin ere Kaxkabeltza elkarteak. Urriaren 1etik 13ra Kaxkabeltza elkarte kide diren komertzioetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean bidaia bat zozketatuko dute. Irabazleak 1.700

euro izanen ditu bidaia batean gastatzeko. Oraingoan ez da izen abizenik idatzi beharko, merkataria eta ostalariak izanen dira zuzenean eskura zozketako boletoak banatuko dituztenak. Zozketaren irabazlea urriaren 14an jakinaraziko dute.

Urriaren 1etik 13ra egin erosketak Kaxkabeltzako komertzioetan eta **1.700€-ko balioa duen bidaia baten zozketan parte hartu!**
Zozketa urriak 14



Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa



Mendialdeko Azoka Ibiltaria egingen dute urriaren 13an

Baserriari buruzko erakusketa jarriko dute ikusgai eta herritarrei materiala uzteko eskatu diete

ENERITZ IRAOLA

Urriaren 13an, igandean, egingo du geldialdia Areson Mendialdeko Azoka Ibiltaria. Azken urteetan bezalaxe, Mendialdeko nekazari, ekoizle eta artisauek beraien postuak jarriko dituzte herriko plazan. Azoka 11:00etan hasiko da eta 14:30ean bukatu. Hitzordua borobiltzeko, erakusketa berezi bat ere antolatu nahi izan dute. Aresoko baserriak gaitzat hartu eta argazki zaharrak, lanabesak, tresnak... jarri nahi dituzte ikusgai.

Azokan 23 postu

Mendialdeko baserriar eta artisauek egindako produktuak bultzatu, ikusarazi eta saltzea da azoka ibiltariaren helburuetako bat. Eskaintza zabala izango da Areson bilduko dutena, denera 23 postu jarriko baitituzte. Horietako 11 elikagai ekoizleenak izango dira: txekor eta betizu haragia, hestebeteak, taloak, gazta, txokolatea, arrautzak, sagar zukua, opilak, ogia, pastak, pateak, olio ekologikoa... erosteko aukera izanen da. Artisauen postuetan, berriz: la-



23 postu jarriko dituzte azokan.

rru-lanak, osagarriak, bitxiak, kandelak, kosmetika naturala, zapatak, egurrezko tailak, zeramika... izanen dira aukeran.

Erakusketa

Azoka eguneko erakusketa osatzeko, herritarrei laguntza eskatu diete. Etxean erakusketarako baliagarria izan daitekeen argazkiren bat, lanabesen bat... baldin badute, udal taldekoekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

Bertsolaritza lantzen hasi dira Nazabal eskolako hainbat ikasle

ENERITZ IRAOLA

Nazabal eskolako LH 4., 5. eta 6. mailako ikasleak bertsolaritza lantzen hasi dira. Ostegunetan izaten dituzte eskolak eta Iker Gorosterrazu ituren-darra dute irakasle. Errima eta doinuekin jolasean, tarte ederra pasatzen dute ikasleek.

Ez da hau ikasleek ikasturte hasieran duten berrikuntza bakarra. Hirugarren hiruhilekoan joan izan dira gehienetan gaua pasatzera, baina aurten irteera aurreratu eta urriaren 17tik 18ra joatekoak dira Basaberera eskola osoko ikasle eta irakasleak elkarrekin.

Taberna-ostatuaren proiektua zertan den azaltzeko batzar irekia urriaren 3an

ENERITZ IRAOLA

Taberna-denda martxan jartzea lehenetsuneko proiektua dela erabaki zuten herritarrek eta eginahalak egingen ari dira aurre-rapausoak emateko. Talde eragile bat sortzea izan zen lehen-biziko pausoa eta lau hilabete hauetan bilerak egin eta pixkanaka ari dira proiektuari forma ematen.

Tarte horretan, hainbat erabaki hartu behar izan dituzte: kokalekua, obraren dimentsioa... baina asko dago oraindik egin eta adosteko. Gainera, ez dago guztia beraien esku: diru iturrien

bilaketa, dirulaguntza deialdien baldintzak... ezusteko bat baino gehiago izan dituzte bidean. Aurrera segitu aurretik, emandako pausoak herritar guztiei azaltzeko momentua dela erabaki dute. Horregatik, urriaren 3an bilera antolatu dute. Udalletxeko batzar aretoan elkartuko dira, 18:00etatik aurrera.

Talde eragileko bileretan, herrian dagoen zerbitzu faltari aurre egiteko irtenbide bila ere aritu dira. Hainbat aukera mahai gainean jarri eta herritarren ideiak ere bildu nahi dituzte osteguneko bileran.

Urriaren 16an eta 30ean izanen dira Liburutegi ibiltariaren hurrengo bisitak

ENERITZ IRAOLA

Urriaren 2an, asteazkenean, etortzekoa zen Liburutegi Ibiltaria Aresora eta hemendik aurrera, hamabostean behin izango dugu herrian. Hala, urriaren 16an eta 30ean, etorriko da berriz ere. Eskolako ikasleekin egongo da 12:30etik 14:00etara eta segidan, helduek ere izanen dute liburuak bueltatu eta maileguan hartzeko aukera. Eskolako atarian egongo da Harkaitz 14:00etatik 14:30era.

Liburuzainak ekartzen duen liburu sortatik bat momentuan



Eskolako atarian jarriko dute.

aukeratu edo eskaerak egiteko aukera izanen da. Libururen bat eskatu nahi duenak biblibei@navarra.es edo 621 248 024 telefonora idatzita egin dezake eskaera.

Zaindu Leitzaldea elkarteak hainbat zerbitzu jarri ditu herritarren eskura

ENERITZ IRAOLA

Urriaren 1ean, astelehenean, egin behar zuten Zaindu Leitzaldea proiektuaren aurkezpena herrian. Irabazi asmorik gabeko elkarteak da eta egoitza Leitzan izan arren, eskualdeko biztanleen zaintza behar batzuk modu partehartzailean asetzeari

da beraien helburua. Horretarako hainbat zerbitzu eskainiko dituzte: eguneroko otordua prestatu eta etxera eramatea; erosketak egitea; etxeko konponketa txikiak egitea; teknologia berriekin kudeatu beharreko tramiteetan laguntzea edo medikurajoa etorritan laguntzea.



Irailaren 23an egindako batzarrean aurkeztu zuten taldea. UTZITAKOIA

Goizueta 65+ taldea gogotsu ari da lanean

GoizuKar garraio zerbitzua eta ibilbide osasuntsuak eskaintzen hasiko dira urrian

TTIPI-TTAPA

Goizueta 65+ lan taldea aurkezteko batzarra egin zuten irailaren 23an eta urritik aurrera martxan jarriko dituzten bi ekintzen berri emateko baliatu zuten hitzordua.

GoizuKar izena eman diote herrian eskaini nahi duten garraio zerbitzu berriari. Baserretik herrira joan-etorriak egiteko aukera eskainiko dute eta horrela, baserrian bizi diren herritarren bizi baldintzak hobetu nahi dituzte. Herritar boluntario talde batek egingen ditu gidari lanak eta baserri-tarrek herrira kotxez joan eto-

ria egiteko aukera izanen dute oinarritzko eginbeharrak egiteko. Zerbitzu hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa izanen da gidari lan hauek egiteko prest dagoen herritar talde bat osatzea.

Ibilbide osasungarriak egiteko aukera da taldeak egindako bigarren proposamena. Monitore batek gidatuta, hamabostean behin goiz batean elkartu eta elkarrekin ibilbide bat egitea da asmoa. Taldearen beharretara egokitutako ibilbideak izanen dira eta hamaketako txiki batekin bukatuko da saioa.

Arainburu Mendi Taldekoak Arantzara joanen dira urriaren 5ean

TTIPI-TTAPA

Urriaren 5ean, igandean, Arantzara egingen dute ateraldia Goizuetako mendizaleek. Sei orduko itzulia osatzea da asmoa, Arantzako Aterpean bazkaldu eta 18:00etan hartuko dute bueltako autobusa. Aterpetxean duxak erabiltze-

ko aukera izanen dela argitu dute. Irteerara joan nahi dutenek Amaia kafetegian eman behar dute izena urriaren 3a baino lehen. Jakin, 28 laguntzat dagoela tokia. Autobusa hamar euro ordaindu beharko da eta bazkaria hogeita bost.

Katarrapikaka lehiaketarako izen ematea zabalik urriaren 15era arte

TTIPI-TTAPA

Katarrapikaka lehiaketa bueltan dator. Goizuetako Udalak, euskara taldeak eta Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuak prestatu dute hitzordua. Azaroaren 16an, 18:30ean, egingen da lehiaketa Herriko Etxeko ganbaran. Parte hartzeko, hiruko taldeak osatuta, Amaia Kafetegian eta Zubi-dendan eman behar da izena urriaren 15a baino lehen. Talde irabazleak 300 euroko saria eskuratuko du eta beste-lako opariak ere izanen dira. Goizuetari buruzko galderak, ariketak, probak... osatu beharko dituzte parte hartzaileek. Lutzatu dute erronka: «herria eza gutzen baduzu eta ongi pasatu nahi baduzu, parte hartu!».

Osasun etxeko zenbakia aldatuko dute urriaren 7an

Mediku kontsultako telefono zenbakia aldatu egingen dute urriaren 7tik aurrera. Goizuetako Osasun Etxearekin harremanetan jarri nahi dutenek 948 633 057 telefonora deitu beharko dute. Larrialdietarako, beti bezala, 112ra deitu behar da.

Txalaparta ikastaroa eskainiko dute urritik abendura

Arantxa Ansak txalaparta ikastaro laburra eskainiko du Goizuetan. Urritik abendura arte, asteartetan izanen dira saioak. Ordubetez ariko dira, 17:00etatik 18:00etara. Interesa duenak 639 933 696 telefonora deituta eskura dezake informazio gehiago.



Talo jatea, bertsolari eta trikitilariak eta toka txapelketa egin zituzten. F. LOIARTE

Festa giroan borobildu dute denboraldia Ixkibi kanpinean

TTIPI-TTAPA

Hasiera bezain ederra izan daiteke bukaerako festa, guztia ongi borobiltzeko gai bada. Ixkibi kanpinean badakite zerbait horri buruz eta urtero bezala, festa giroan bukatu dute denboraldia. 140 laguntzako talo jatea prestatu zuten irailaren 15ean eta ber-

tsolariekin eta trikitilarien saioekin eta toka lehiaketarekin borobildu zuten hitzordua. Bertsotan, Julio Soto eta Iker Zubeldia aritu ziren eta Dani eta Ainara Narbarte trikitixarekin eta panderoarekin. Giro bikaina sortu zuten denen artean. Toka lehiaketa Patxi Bakerok irabazi zuen.

Ekitaldi kultural ugari izanen ditugu urrian Baztanen

Erakusketak, kontzertuak, antzerkia, bakarriketak... gustu guziendako jarduerak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Hilabetero bezala, Baztango Kultura Zerbitzuak urriko ekitaldiak bildu ditu agendan.

Emaztekiak eta landa eremua

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, antzinako irudien erakusketa izanen da Elizondon urriaren 1etik 31ra. Arizkuneko lehenbiziko solairuan izanen da ikusgai, lanegunetan 18:00etatik 20:00etara. Hilaren 30ean, berriz, *Kontrabandoa eta emakumeen paper ikusezina* dokumentala proiektatuko dute 18:00etan. Baztan eta Baigorriko historia kontatzen du dokumentalak, eta ondotik mahai ingurua izanen da protagonistekin.

Piano eta biolontxelo kontzertua

Jokin Taboada eta Paula Azkona musikariak Arizkunenean izanen dira urriaren 4an, ortziralea, 19:00etan. Zinemaren historiaren ibilbidea egingen dute soinu bاندен bitartez.

Merkatuak Elizondon

Urriaren 5ean, 12an eta 19an Baztango Artisauak eta Baztango Zaporeak elkarteko kideen produktuak izanen dira ikusgai eta salgai Elizondoko plazan, 11:00etatik 14:00etara.

Anariren kontzertua

Anari artista azkoitiarrak bere azken diskoa, *Giza zarata* (2024), aurkeztuko du urriaren 18an. Arizkunenean 19:00etan izanen da hitzordua, Kultura Zerbitzuak antolatua.

'Baltoro oinez & hegan'

Mattin Iñiguez Ormazabal eta Jose Ramon Agirre *Marron* mendizaleek Baltoro glaziarra zeharkatzeko abentura kontatzen duen proiektzioa izanen dute urriaren 18an 19:00etan Arizkungo ostatuan. Akitzean pintxoak izanen dituzte elkartean eta irabaziak eskolaren jangelarako izanen dira. Arizkungo Herriak, Baztango Mendigoizaleek eta Elkatasuna elkarrekin antolatuko dute hitzordua.



Landa Eremuko Emakumeen Egunaren harira argazki erakusketa izanen da.

Baztan Kantuz Elbeten

Kantatzea gustuko dutenek Elbeten izanen dute hilabete honetako hitzordua. Hilaren 20an herriko plazan 12:00etan elkartuko dira.

'Olagarrua' antzerkia

Maitane Perez, Nerea Arriola eta Olatz Beobide aktoreek *Olagarrua* antzerkia aurkeztuko dute urriaren 27an Iruiritako Gizarte Bilgunean 18:00etan. «Gorputzetik,

plazeretik eta fantasiatik errua desagerrarazteko saiakera» da antzezlan.

Bakarriketa feministak

Baztango Berdintasun Baztordeak eta Talde Feministak 'Bakarriketa feministak umorearen klabeen' zikloa antolatu dute eta hainbat saio izanen dira. Lehenbizikoa irailaren 26an izan zen, Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraiekin.

Hurrengoa urriaren 3an izanen da, Ane Lindane umoristaren eskutik, 19:00etan Erratzuko Elkartean. Azkenik, Maria Blancok bere bakarriketa aurkeztuko du urriaren 24an 19:00etan Anizko elkartean.

ANARIEN KONTZERTUA URRIAREN 18AN ARIZKUNENEAN

Elizondo Lanbide Eskolako Maria Eugenia Maiora Finlandian

TTIPI-TTAPA

Lanbide eskolako Administrazio departamentuko Maria Eugenia Maiora irakasle elizondorarik ikastaroa egin du Finlandian, Erasmus+ beka bati esker, bertako Lanbide Heziketaren sistema ezagutzeko. Estatuko hainbat tokitako 20

irakasle eta ikuskarirekin eta Finlandiako hainbat irakasleekin batera, Helsinkiko eta Porvoo-ko ikastetxeetan egin du elkarbizitza, bertan erabiltzen diren metodologia berritzaileak bertatik bertara ezagutzeko.

Adierazi duenez, «deigarriena izan da Finlandian ikasleen



Helsinkiko Business Collegean.

ongizate fisiko eta mentala lehenesten dutela, atsedenerako eta aisialdirako espazioekin, eta estatuak hezkuntzan egiten duen inbertsio handiarekin. Puntu garrantzitsu bat enpresaren eta ikastetxearen arteko integrazioa da, eta Finlandian ikasleen % 50ak Lanbide Heziketa ikasten du. Zailtarik gabe, hezkuntza sistemaz dudan ikuspegia zabaldu duen esperientzia izan da».

Behi azienda piriniotarrak Elizondon nagusi

160 behi, zezen eta aratxe bildu ziren irailaren 21ean eta 22an Merkatuko plazan, behi piriniotarren XXXV. ferian

TTIPI-TTAPA

Erakustaldiez gain, artisauen merkatua eta Nafarroako aratxea dastatzeko aukera izan zen asteburuan, eta igande eguerdian, enkantearen ondotik, garaikurren banaketa egin zuten. 13 ataletan saritu zituzten aziendak, adin tarteen arabera.

Emeetan Arbaiza anaiak (Orozko), Iosu Ostiz Subiza (Olague), Jon Koldo Bikandi Bidosola (Iurreta), Juan Jose Iñarrea Rekarte (Erratzu) eta Juan Antonio Ustarroz Aizpun (Senosiain) izan ziren saridunak. Aipatzekoa Bikandik lau sari lortu zituela emeen kategorian.

Arretan, berriz, Jon Koldo Bikandi Bidosola, Angel Mitxelena Iparrea (Irurita), Juan Antonio Ustarroz Aizpun eta Javier Iraizoz Ibarrola (Azoz) izan ziren sarituak.

Horrez gain, sari bereziak ere banatu zituzten. Buru hobere-na: Gil Goiendetxe Agirre (Arizkun); Intseminazio artifizialetik sortutako arrik hobere-na: Ricardo Palacios Andueza (Lakuntza); Intseminazio artifizialetik sortutako emerik hobere-na: Juan Antonio Ustarroz Aizpun; Adierazle genetiko hobere-nak dituen arra: Aitor Arana Barrena (Arrasate); Adierazle genetiko hobere-nak dituen emea: Ion Peio Franziskoena Buldain (Luzaide); Baztango arrik hobere-na: Angel Mitxelena Iparrea; Baztango emerik hobere-na: Juan Jose Iñarrea Rekarte; Intseminazio artifizia-laren erabileria: Iñiguez anaiak; Ustiapenaren ugalkortasuna: Osés Arza anaiak (Aizpun); Nafarroako aratxea: SC Juamperez Mandacen (Garralda) eta SC Etxenike Maritorea (Berroeta).



Eguraldiak eutsi egin zion eta jendetza bildu zen asteburuan Elizondon. ONDIKOL

Erregearen Kopako aurre kanporaketan Huescako Ontiñenaren kontra

TTIPI-TTAPA

Mendeurrenean murgildua dagoen Baztan Futbol Taldearen ametsak segitzen du. Irailaren 16an egin zuten Erregearen Kopako aurre kanporaketako zozketa, Espainiako Futbol Federazioaren egoitzan. Partida bakarrera jokatu da kanporaketa eta baztandarrek suertea izan dute, etxean, Elizondoko Giltxaurdin jokatu-ko baitute partida, Huescako CF Ontiñena taldearen kontra, urriaren 9an 19:00etan. Irabazlea Erregearen Kopako bonboan sartuko da.



Urriaren 9an izanen da partidua.

Gogoratu behar da Baztanek Nafarroako Superkopa irabazi zuela, Arronizko Zarramonza taldeari gailenduta, eta horrek kanporaketa hau jokatzeko eskubidea eman dio.



ORDIZIAKO AZOKA

Kortariko gasna bigarren Ordizian

Latxa edo Karrantzako ardiaren esne gordinez egindako LI. Gazta Lehiaketa izan zen irailaren 11n Ordizian. 47 gasna aurkeztu ziren eta Kortariko bordako gasnak bigarren postua lortu zuen. Lehenbizikoa Illarduiko La Leze gaztandegiak lortu zuen, eta 5.000 eurotan saldu zen gasna erdia enkantean.



Besta giroa izanen da nagusi Gartzainen urriko bigarren asteburuan. ARTXIBOTIK

Gartzaingo bestak ospatuko dituzte urriaren 11tik 14ra

Herriko gazteek hainbat jarduera prestatu dituzte lau egunetarako

TTIPI-TTAPA

Urriak 11, ortziralea. 16:00etan txupinazoa eta ezkila jotzea bestak hasteko. 16:15ean mus txapelketa egingen da. 21:30ean baztan zopak frontoian eta ondotik dantzaldia Bull DJarekin.

Urriak 12, larunbata. 12:00etan meza nagusia izanen da ermitan, eta ondotik luntxherrikoia. 18:30ean dantzaldia izanen da Muxutruk taldearekin, eta 20:00etan bailableak Elizondoko gaiteroen eskutik. 21:30ean afari herrikoia egingen dute, 23:00etan bingo izanen da

eta 00:00etan dantzaldia Muxutruk taldearekin.

Urriak 13, igandea. 12:00etan Gartzaingo II. Boneta Jaurtiketa Txapelketa egingen dute. 14:00etan zikiro jatea izanen da frontoian, eta ondotik dantzaldia Kapitan General DJarekin.

Urriak 14, astelehena. 10:00etan gosaria egingen dute eta 11:00etan haurrendako jokoak izanen dira. 14:00etan egingen dute eta 15:00etan puzgarriak izanen dira. 19:30ean merienda-afaria egingen dute beste akabaila emateko.



UTZITAKOAK

Bikain joan dira Elbeteko bestak

Irailaren 12an hasi ziren Elbeteko bestak eta, urtero bezala, ttikien txopo goratzearekin abiatu zituzten. Gauean, berriz, txopo haundiaren txanda izan zen eta, igandera arte, musika, umore ona eta parranda gogoia izan ziren nagusi herrian. Heldu den urteko beste begira gelditu dira orain elbetarrak.

LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT

astelehenetik ortziralera

08:00-13:00

15:00-20:00

larunbatetan goizez

Iturrubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hartzklinika.es

@liderahortzklinika

MARMOLES SOULE

LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETA
HARRI ZIZELKATZEA

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

PINTURA eta DEKORAZIOA

BIDASOA

Kalitatea, azkartasuna eta bermea
Lan mota guztiak egiten ditugu

Tel.: 619 88 97 23 • Malerreka, Baztan eta Bortziriak

Baztango biztanleriaren bilakaera 1997tik

Azken 27 urteotan Baztango biztanleriak izan duen bilakaerari begira jarri da TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA

Herriz herri eta auzoz auzo joera nolakoa izan den aztertu ondotik, hainbat ondorio atera daitezke. Elizondo eta Elbete dira biztanleria kopurua nabarmen goititu den herriak. Almandozen, Arizkunen, Erratzun, Iruritan, Lekarozen eta Zigan, berriz, biztanleriaren beherakada geroz eta nabarmenagoa da. Aipatzekoa da Arizkunek 110 biztanle galdu dituela. Horrekin batera, herriz herri, aparte dauden auzoetatik herriguneetara joateko joera sumatzen da.



Arizkunen biztanleriak beheiti egin du.

Elizondoko Abesbatza igandean Anizen

Aitzineko TTIPI-TTAPAN, 862. alean, Anizko bestetako egitaraua publikatu genuen. Baina ekitaldi bat egitarautik kanpo gelditu zen; igandean, urriaren 6an, Elizondoko Abesbatzaren kontzertua izanen da 11:00etan elizan.



ELIZONDOKO ABESBATZA

Baztango biztanleria herriz herri

	1997	2002	2007	2012	2017	2022	2024
ALMANDOZ	222	214	218	205	185	181	178
AMAIUR	259	264	259	287	261	259	252
ANIZ	62	60	69	77	80	69	65
ARIZKUN	668	644	638	612	572	564	558
Herrigunea	394	392	398	375	338	351	329
Aintzialde	66	67	66	55	54	48	46
Bozate	94	90	92	100	103	90	94
Ordoki	82	69	57	57	54	51	61
Pertalats	32	26	25	25	23	24	28
ARRAIOZ	260	255	237	244	229	250	254
Herrigunea	179	180	183	176	158	184	191
Mardea	81	75	54	68	71	66	63
AZPILKUETA	207	200	183	176	196	192	197
Herrigunea	76	79	73	60	55	56	62
Apaioa	30	31	26	33	38	36	35
Arribiltoa	25	21	24	20	27	30	27
Urrasun	31	26	23	25	25	22	21
Zuaztoi	45	43	37	38	51	48	52
BERROETA	112	110	116	127	118	128	121
ELBETE	219	204	232	277	283	282	309
ELIZONDO	3.224	3.102	3.321	3.532	3.366	3.541	3.527
Herrigunea	2.992	2.899	3.121	3.297	3.170	3.337	3.327
Antzanborda	37	32	56	75	63	61	59
Beartzun	79	70	55	56	54	51	52
Berro	59	58	49	58	46	53	52
Etxaide	20	18	18	23	21	26	26
Kintoa	37	25	22	23	12	13	11
ERRATZU	526	505	503	482	466	481	476
Herrigunea	397	387	396	384	372	386	389
Gorostapolo	69	63	53	46	57	57	52
Iñarbil	60	55	54	52	37	38	35
GARTZAIN	231	220	217	224	228	222	215
Herrigunea	87	85	92	85	81	79	80
Aitzano	41	38	29	36	33	28	28
Ariztegi	54	51	46	48	61	61	60
Etxerri	49	46	50	55	53	54	47
IRURITA	817	837	843	847	797	790	780
LEKAROZ	348	359	362	341	330	302	288
Herrigunea	223	229	243	238	231	212	210
Aroztegia	35	40	32	15	13	12	12
Oharriz	60	60	58	54	54	47	36
Uharte	30	30	29	34	32	31	30
ORONOZ	440	420	429	449	420	421	437
Oronoz	170	164	201	236	237	247	270
Mugairi	240	231	191	177	151	146	139
Zozaia	30	25	37	36	32	28	28
ZIGA	211	204	200	195	188	181	174
Herrigunea	155	151	149	145	144	140	134
Zigaurre	56	53	51	50	44	41	40
GUZTIRA	7.806	7.598	7.827	8.075	7.719	7.863	7.831



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com









Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



Baigorriko eta Baztango gazteen topaketa hilaren 19an

Jardunaldiak egun osoko egitaraua izanen du eta irailaren 30ean hetsi zen izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Urriaren 19an Baigorriko eta Baztango gazteak berriz ere elkartuko dira, hontakoan Elizondoko, «bi haranak lotzen dituzten lotura historiko eta kulturalak sendotzeko asmoz». Hirugarren urtez antolatu dute Baigorriko eta Baztango Udalen *Nor bizi da Izpegiren bertze aldean?* topaketa, 12 eta 15 urte bitarteko gazteendako.



Irailaren 16ko aurkezpena Elizondoko.

Elizondoko ondare kultural eta artistikoa ezagutuko dute, horretarako diseinatutako josteten bidez. Jarduera guztiak euskaraz izanen dira.

Topaketa «aukera paregabea da Baigorriko eta Baztango gazteek elkar ezagutzeko, esperientziak partekatzeko eta adiskidetasun lotura berriak eraikitzeko». Azaldu dutenez, «bi udalerrien arteko lankidetzaren alde» egiten ari da udala.

Egun osoko egitaraua

Jardunaldia goiz eta arratsalde osoan egingen da. Baztan Abentura Parkean hasiko dute eguna, Beartzungo auzoan, eta aire zabaleko hainbat jardueraz gozatzeko aukera izanen dute. Ondotik bazkaria egingen dute, parte hartzaile bakoitzak etxetik eraman beharko duena. Arratsaldean jarduera herri-gunera eramanez dute, eta

Baztango etxebizitzaren problematika lantzeko batzar irekia urriaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Baztanen Bizi Nahi Dugu plataforma herritarrek batzar irekia egingen du urriaren 10ean Elizondoko. 19:00etan Arizkunenean izanen da hitzordua eta «etxebizitzaren problematikari erantzun bateratu ematea eta arazoari herri bezala erantzutea» izanen du helburu.

Azaldu dutenez, «azken urteetako etxebizitza turistikoaren gorakada neurrigabea, bigarren etxebizitza eta etxe hutsen problematika gehituz gero, Baztango egoe-

raren larritasunaz jabetuko gara. Horren ondorio dira gazteek etxeak alokatzeko ezintasuna, urte osoko alokairuen gabezia edota erostetarako garaian, etxebizitzaren prezio estratosferikoak».

Hori dela eta, «arazoa kolektibizatuz eta herritarrok arduratu hartuz, problematikari aurre egiteko gaitasuna dugula sinetsiak gaudelako bilduko gara batzarrean urriaren 10ean. Gaiaren inguruko interes edo kezka duen edonor dago hurbiltzera gonbidatuta».

Talde Ekosozialaren berri emateko merienda-aurkezpena urriaren 11n

TTIPI-TTAPA

Ikasturte berriarekin batera, afera ekosozialetan jakinmina duten herritarrei zuzendutako aurkezpena egingen du Baztango Talde Ekosozialak, urriaren 11n 19:00etan Ameztien elkartearen.

Duela hiru urte sortu zen taldea, «kapitalismoa bizitzeko baldintza biofisiko eta sozial guztiak xehatzen ari dela kezkatuak; klimaren aldaketa, krisi energetikoa, biodibertsitatearen gainbehera...». Horiei buruzko mintzaldiak, mahai-inguruak, elkarretaratzeak...

antolatzen ditu taldeak, «alternatibei buruzko gogoeta bultzatuz».

Horrez gain, «justizia sozialean eta lurraren muga biofisikoen barnean bizi ahal izateko proposamenak» lantzen ditu, «bidezko alternatiba horietan indar berezia egiten eta geroaldi zuzenagoa ahal dela guztiz sinetsirik».

Hortaz, gai horiekin kezkatuak dauden edo gehiago jakin nahi duten herritarrek gonbidatu dituzte aurkezpena, eta mokadua hartzera bide-nabar.



NAFARROAKO GOBERNUA

Zinema estudioak bezpiztu nahian

Lekarozko Meliton estudioetara bisita egin zuten Nafarroako Parlamentuko zenbait kidek irailaren 11n, baita Anbustegi alkateak ere. Adierazi zuten, «prest gaude ikus-entzunezko sektorearen beharretara egokitzeko, eta jasangarria den bertze edozein jarduerari ere ongi-etorria izanen da».

Hainbat ekitaldi izanen dituzten urriaren Elizondoko Txokoto tabernan

TTIPI-TTAPA

Urriaren 13an, igandea, Hasier Larretxeak bere azken liburu autobiografikoa aurkeztuko du, *Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da*, 12:00etan.

Urriaren 17an, ortzegunean, berriz, Martti Mäkelä folk noir bakarlariak kontzertu

akustikoa emanen du 20:00etan.

Azkenik, hilaren 20an, lau emakume idazleren esperientziak aditzeko aukera izanen da 19:30ean: Yolanda Donis Manterola, Ainara Maia Urroz, Marisa Arruabarrena Elizalde eta Arantza Martinez Etxarri.

Izpegiko bestak giro bikainean joan dira bigarren aldiz

Spartak Dementziala, Tatxers eta DJ Üzkülüz taldeen kontzertuek borobildu zuten besta larunbat gauean

TTIPI-TTAPA

Baigorriko Basaizea elkarteak, Erratzuko gazteek eta Baztan-go Gazte Asanbladak bigarren urtez antolatu zituzten Izpegiko bestak irailaren 20an eta 21ean. Ortziraleko gaualdia-ekin eman zioten hasmenta bestari eta larunbatean egun osoko egitaraua izan zuten: ibilaldia eta bizikleta igoera leporaino, kantu jostetak Porrotxekin, zintzur bustitzea... eguerdian ekitaldi nagusia egin zuten eta ondotik bazkaria. Arratsalde eta gauean musika izan zen nagusi.

Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute: «Denborak bereziki lagundu ez bazuen ere, giro ederrean pasa zen asteburua. Arras mamitsuak izan ziren bai ortziraleko gaualdia bai larunbateko egun osoa. Esker mila aunitz hurbildu ziren lagun guzietan, taldekideei zein edozein formatan lagundu zuten pertsona guzietan. Bigarren aldiz argiki ikusi da berezia den zerbait dagoela lepoaren gainean; harremanen sendotzean lanean segiko dugu! Mugarik ez Euskal Herrian! Gora Izpegiko bestak!».



Egun osoko egitaraua izan zuten larunbatean Izpegiko lepoan. AINTZANE ARIZTEGI

JOSENEA

ENERGIAK

www.josenea.es


Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Xaretan etxez etxeko gasolio banaketa zerbitzua

**HELDU DA HOTZA,
BETE BILTEGIA ETA
GOXO-GOXO
ETXEAN EGON**

AdBlue®

Orain AdBlue ere eramango dizugu

Ordoki industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

 **WhatsApp** 625 324 423
Email: energiak@josenea.es





2022an oroigarria eman zuten Iturbide hil zuten lekuan. JUAN MARI ONDIKOL

Migel Mari Iturbide Estatuko biolentziaren biktima

Nafarroako Gobernuak biktimatzat errekonozitu du 1967an Guardia Zibilak hil zuen langoneko bordako artzain gaztea

MARIFA ETA KORO

1967 urtean Iangoneko bordako Migel Mari Iturbidek hamasei urte zituen. Udazkeneko gau batean etxetik atera zen, beretako lehenbiziko aldia zen mugako garraio bat egitera. Ez zen etxetik urrun ailegatu, kokeak ikusi zuten, tiro bat eman zioten Laputsegaraia inguruan, eta hil zuten... eta hartan gelditu zen afera. ETako kidea zela erran zuten eta hilketa justifikatzeko pistola bat paratu zioten eskuetan, Egiaren garaia da ekimenak jakinarazi duenez. Auzia artxibatu egin zen eta bere hil-

ketaren arduradunak ez ziren inoiz zigortuak izan.

Urte aunitz pasatu ziren, eta berari buruzko liburu bat argitaratu zen duela urte pare bat, Xabier Susperregik idatzitako *Crimen sin castigo* liburua. Gero, 2022ko azaroan harrizko oroigarri bat eman zen hil zuten tokian, Pello Iraizozek egin, eta omenaldia egin zitzaion.

Orain, bertze pausu bat eman da Migel Mariri gertatu zitzaiona argi geldizeko: Nafarroako Gobernuak errekonozitu du Migel Mari Estatuaren biolentziaren biktima izan zela.



Azketako edukiontzien artean kartoia biltzeko zurezko etxola eman dute.

Azketako zurezko etxola batean hasiak dira kartoiak biltzen

MARIFA ETA KORO

Kartoiak biltzeko aldatu da. Berriki zurezko etxola bat eman dute Azketako edukiontzien tokian, eta etxola horren baretan utzi behar dira kartoiak. Bilketa ongi egiteko, inportantea da kartoiak ahal bezain ongi plegatuak izatea, beraz, hori eskatzen zaie herritarrei.

Bertzalde, Herriko Etxeak bi gauza hauek oroitarazi ditu: alde batetik, berinaren edukiontzian ezin dela plastiko poltsarik botatu; eta bertzetik, ezin dela landarerik, barazkirik, eskonbrorik, eta halakorik botatu edukiontzian normaletan. Laister pilak biltzeko edukiontzia ere paratuko dute.

Liburu aurkezpen teatralizatua eta ikuskizuna datoz udazken honetan

Kultur arloan udazkena interesgarri heldu zaigu: **urriaren 20an**, Xabier Susperregi idazlearen *Maravillas Lamberto* liburuaren aurkezpen teatralizatua egingen dute (Migel Mari Iturbideri buruzko *Crimen sin castigo* liburua ere idatzi du Susperregik); eta **abenduaren**

8an, Tdiferencia antzerki taldeak *Ez dago kutxarik nerretzat* ikuskizuna eskainiko du. Maite Redinek idatzi eta zuzendutako antzezlanak da eta Naiara Azpilkueta eta Celia Fañanás dira antzezleak. Bi emanaldiak ere aski interesgarriak izanen dira.

Sarako Beti Gazte elkarteko azken elkarretaratzea Zugarramurdiko Azketan

GANEX

Sarako Beti Gazte elkarteak antolatutako aurtengo azken elkarretaratzea urriaren 12an, Zugarramurdiko Azketa jate-txean. Menua: Sangria, sarre-er hotzak eta beroak, legatza errea edo txuleta patatekin, gasna erreximentarekin, sagar

tarta izotzarekin, arno beltz eta gorria eta kafea ondokoarekin. Prezioa 38 euro, baina Sarako elkarteko karta duenak 30 euro. Izena eman behar da urriaren 8a baino lehen deituz: Jeannot 05 59 54 21 34, Maite 06 31 62 90 66 edo Anita 06 28 28 08 24.



Sarako hainbat elkartek egiten dituzte otorduak Azketan. GANEX



Larunbat goizean mendi ibilaldia egin zuten. ARANTXA ETA IRAIA



Pilota txapelketan parte hartu zuten gaztetxoak. ARANTXA ETA IRAIA

Leorlas auzoko bestak giro ederrean joan dira bigarrenenez

Musean Aitor Rementegi eta Jon Ollo izan dira txapeldun eta pilotan, berriz, Ibai Agesta eta Luhai Juanena

ARANTXA ETA IRAIA

Giro bikainean pasa da Leorlasko besten bigarren edizioa. Aurten ere denborak ez die aunitz lagundu auzotarrei eta hurbildu diren bertze urdazubiarrei, baina sortu zen giro onak epeldu zuen ospakizunez betetako asteburua eta ederki pasatu zuten.

Mendi ibilaldi eder batez gozatzeko aukera izan zuten hurbildutako guztiak irailaren 21ean. Mus eta pilota txapelketen finalak jokatu zituzten gero. Musean Aitor Rementegi eta Jon Ollo izan ziren garaile, finalean Mikeli Azkarra eta Jaione Perurena ama-alabei irabazi ondotik. Pilotan,



Karparen azpian egindako bazkari ederra izan zuten auzotarrek. ARANTXA ETA IRAIA

berriz, Ibai Agesta eta Luhai Juanena izan ziren garaile, Oier Elorgari eta Aitor Ariztegi-ri partida irabazi eta gero.

Gero, denek bazkari eder batekin ospatu zituzten Leor-

lasko bestak. Gaua heldu bezala musika doinuak eta afariak borobildu zuten eguna. Argazkian ikusten denez, giro ederra izan zen irailaren 20an eta 21ean Leorlasen.

Herriko ondarea ezagutzeko aukera kultur asteburuan

Irailko azken aste hondarrean, bertako ondareaz gozatzeko aukera ematen duen urteroko asteburu kulturala ospatu zen. Irailaren 27an monastegiko museoa sarrera urrik izan zen. Biharamunean, goizean, plazan elkartu eta Alkerdiko leizeetarat abiatu ziren. Han, hain ezagunak diren grabatuak ikusi eta Urdazubiko ondareaz gozatzeko eta hau baloratze-ko aukera izan zen. Urteroko gisa, jende andana hurbildu zen herrira. Etortzeko aukera izan ez zutenek, heldu den urtera itxaron beharko dute!

Burgete arrazako pottoken feria eta urrezko aizkolarien lehia igandean

ARANTXA ETA IRAIA

Urria ekitaldiz betea etorriko da eta horren lekuko da bertze urte batez ospatuko den Burgete arrazako pottoken feria. Aurten urriaren 6an ospatuko da eta urteroko gisan animalia ederren ikusteko aukera izanen da herrian. Horretarako ere hainbat herritar jadanik lanean ari dira, egun eder bat prestatzen aldera.

Egun horretan berean, gainera, 2024ko Urrezko Aizkolaria txapeldunen liga izanen da Urdazubin. Iker Vicente, Mikel Larrañagaren kontra

lehiatuko da herriko frontoian. Igandean 17:00etan hasiko da norgehiagoka handia eta aizkolariez gain, harrijasotzaileak ere izanen dira. Emakumezkoetan, Garazi Ansa eta Estefania Etxebeste arituko dira eta, gizonezkoetan, Imanol Royo *Lartain* eta Jokin Eizmendi.

Bistan da urriaren 6an izanen dela zer ikusi herrian, goizean animaliekin eta arratsaldean punta puntako kirolariekin. Hortaz, hurbiltzen den oro ongi etorria izanen da Urdazubin!

Kontrabandisten Lasterketa prestatzen ari dira

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa urriaren 12 eta 13an jokatuko da. Larunbatean Gaueko Lanak izeneko 9 km-ko lasterketa egingen dute eta biharamunean, maratoi erdia. Egun hauek behar den bezala atera ahal izateko, herrian hainbat lan egin behar dira eta aurtengo edizioaren prestatetak hasiak dira jadanik. Mendiko bidexendak garbitzen ari dira, egun horietan behar diren boluntarioak ere izena ematen ari dira... Pixkanaka urriko asteburu horrendako dena prest egonen da!



Pello Borda Urdazubiko abeltzaina, berak hazten dituen haragitako behiekin. UTZITAKOA

«Tuberkulosia izan zezaketelakoan, hiru-lau urtez 116 behi hil dituzte»

PELLO BORDA JAIMERENA URDAZUBIKO ABELTZAINA

Azkonarrak eta bertze piztiak ugaritu dira eta arazo larriak sortzen ari zaizkie Urdazubiko abeltzainei. Irailaren 11n bildu ziren Landa Garapen Departamentuko ordezkari eta albaitariek

AITOR AROTZENA URDAZUBI

«Albaitariek diotenez, azkonarrak pasatzen diete tuberkulosiaren birusa behiei, baina probak egiten ari dira eta basurdeak ere pasatzen ahal omen du eta gure mendietan badira hainbertze», jakinarazi digu Pello Borda Jaimerena, Urdazubiko abeltzainak, irailaren 11n Urdazubin abeltzainek eta albaitariek, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko Departamentuko ordezkariekin egindako bilera laburbilduz.

Ingurumen Departamentuak adierazi duenez, tuberkulosiarekin kutsatzea «arras lokalizatuta» dago eta Nafarroako ustiatgien % 1 baino gu-

txiagori eragiten die. Hala ere, inguruko abeltzainak zapuztuta daude, irtenbide eraginkorrik ez dutelako. Izan ere, Pello Borda abeltzainak azaldu duenez, azken urtean gutxienez Urdazubiko eta Zugarramurdiko 25 behi hil behar izan dituzte, azken hiruzpalau urteetan 116, gaixotasun hori izan zezaketelakoan. «Nik joan den urtean bi hil behar izan nituen eta aurten bertze hiru hil nahi zituzten eta ezetz erran nuen. Lehenik hil egiten dituzte, baina gero egindako analisisietan negatibo eman dute gehienetan».

Kalte ordain gisara ematen dieten dirua ere ez dela aski uste du Bordak. «Gure behi-

tegietan baditugu behiak intseminazio karioekin sortuak, hobekuntzak eginak ditugu, eta ordaintzen digutenarekin ez da ailegatzen, ez da berdina. Galera handia da».

Azeriaren ugaritzea ere arazoa da baserritarrendako. «Oilorik ez da edukitzen ahal gure baserri inguruetan, lehenago bezala. Azeriak eramaten ditu. Eta azeriak aldi bat eramaten du, baina bertze basapizti batzuk, hudo beltzak eta, lehen kolpean odola kentzen diete, hamabi oilo baldin badituzu hamabiak hiltzen dituzte. Denak animali babes-tuak dira, horiek ezin dira hil». Azeriak, bildots jaio berriak ere eramanez izan dituztela ai-

patu digu, «ardiak non dabil-tzan, han ibiltzen da azeria buelta eta buelta... Bildots jaio berria gauean belaian gelditzen bada, azeriak airez aire eramanez du».

Etsipena eta itxaropena

Bordak eta inguruko bertze hogei bat abeltzainek etsipena adierazi zuten irailaren 11ko bileraren ondotik. «Izurrite pila bat ditugu: azkonarrak, basurdeak, azeriak, betizuak, koipua... Erraten digute Ingurumen Departamentuari eskatu behar diogula animalia horiek desagerrarazteko konponbidea, baina guk ezin dugu zuzenean jokatu», aipatu digu Bordak. Abeltzainek «suebaki» gisa balio dezaketen neurriak eskatu zituzten, piztiak euren lursail eta baserrietatik urrun mantentzeko. «Basoan suteak zabal ez daitezkeen suebaki bat dagoen modu berean, guk eskatzen dugu distantzia bat egon dadila gure lursail, baserri edo ikuiluen eta azkonarren, basurdeen eta inguruan ditugun animalia horien guztien artean», azaltzen du Urdazubiko baserritarrak.

Urdazubin egindako bilera-tik Bordak nabarmendu zenez, kutsatutako animalien kasu gutxiago daude, «albaitariak kontent zeuden, abuztuan egindako azken probetan ez baitzen positiborik atera eta abeltzainak trankilxeago gaude. Garbitasun hori lortu dutela ematen du, baina ezin dugu guztiz trankil egon oraindik».

Antzinako ekosisteman aldaketa

Izan ere, Bordaren iritziz, «tokiko ekosistema, mendeetan orekatuta egon dena, orain aldatu egin da izurrite horien ugaritzearen ondorioz. Orain arte ekosistema perfektu bat egon da, eta gizakiok ere ekosistema horren parte ginen. Azkonarrak, basurdeak, azeriak... basoan bizi zirenen eta, gure baserrietara, belaietara

edo baratzeetara sartzen baziren, horretara biziaren baldin baziren, hiltzen genituen, eta gure etxeetatik aldentzen genituen; distantzia batera mantentzen genituen, basoko animalia basoan. Baina orain ez dago distantzia hori, eta guk giltzapetu behar ditugu gure aziendak».

Horren erakusgarri, zerrien ustiatzea aipatu du Bordak. «Garai batean, udazkenean hasi eta otsailera bitarte zerriak mendira ateratzen ziren bazkatzera, ezkurak, gaztainak edo bagatxak jatera. Orain debekatua dago, inguru honetako abeltzain bati 600 euroko isuna paratu dio Sepro-nak, zerriak kanpoan kontzeagatik».

Betizuak, usoak eta koipuk ere, arazo-iturri

Baina azkonar, basurde edo azeriaz gain «etxeagoatzat» ditugun animaliek ere arazoak sortzen dituzte baserrietan.

Betizuei dagokienez, «mendietan badaude betizuak ez dakigunak norenak diren ere, ez dute baimenik ezta saneamendurik ere, deus ere ez. Buelbaka eta bueltaka hor dabilta hilabetetan, baratzetan sartzen dira, belaietan...». Betizua etxeko behiarekin gurutzatuz gero ere arazoa dela gogoratzen du Bordak: «Betizu arrak susara dagoen behia estaltzen baldin badu, deus balio ez duen ume ttiki bat egiten du, kargarik hartzen ez duena... Haragitako behi baten aratxeak 700 euro baldin badu, betizu batekin gurutzatutakoak 150 euro balio du. Ez du deusetarako balio. Zer egiten dugu betizu horiekin?».

Usoen izurritea ere salatu nahi izan du Pello Bordak. «Alkurruntz mendian ehizta-

riek 'tiro al pichon' egiten dute, baina hiltzen ez duten usoa, pixka bat kolpatua bada ere, ateratzen bada, nora joan behar du bizitzera? Baserrietara joaten da eta izugarri ugaritzen da, bazka jaten du, harrapatzen duen guztia, baina hori baino gehiago, arras zikina da, lumak utzi eta kaka egiten du jantokietan, dena zikinduz, eraikitetan kalteak eragiten ditu eta bertze eritasunak sortzen ditu, desastre bat da. Iparraldean, hegaztien gripea dela eta, hainbertze piru hil behar izan dituzte». Koipua ere aipatu digu Urdazubiko abeltzainak: «Duela 50 urte agertu ziren, Frantzia aldera ekarri zuten arratoi amerikar bat bertzerik ez da, bere larrua biltzeko eta saltzeko. Bat edo bertze eskapatu omen zen granjetatik, bertze batzuk diote libro utzi zituztela, ez dakit batere, baina kontua da hori ere izugarri ugaritu dela. Hasieran zioten igarabak zirela, bai zera! Ezpondetan zuloak egiten dituzte eta nonahi badaude, ur bazterreko belaietan jaten dute, behiek bezalaxe, artoa ere jaten dute... Izugarrizko plaga da! Non daude bi aldeetako ingurumeneko zaindaria, errateko kanpotik sartu den animali exotiko kaltegarria dela, kalte izugarria egiten duela eta segidan hil eta eliminatu behar zirela errateko? Hasieran aski zen arratoien dako pozoia paratzea eta hilen ziren, baina orain zaila da.

Etorkizunean mobilizazioekin segitzeko aukera ez du baztertzen Bordak, «ongi gogotik eginen genuke manifestazione bat Iruñean, Landa Garapen Departamentura edo parlamentura joan, Iruñea blokeatu, baina ez dakit jendea mugituko zen».

«ZERRIAK KANPOAN KONTZEAGATIK ISUNAK JARTZEN DITUZTE ORAIN»

«MENDEETAKO EKOSISTEMA PERFEKTOA ALDATU EGIN DA»



Baserrietan kalteak eragiten dituzten hainbat piztiren berri eman digu Bordak.

ASMAKIZUNEN NAZIOARTEKO I. AZOKA
URRIAK 18-20 AZKOIEN - NAFARROA

INVENI

EXPO 2024

www.invenexpo.com

DOAKO SARRERA

Aldatu zure begirada Mundua aldatu

Zatoz XXI. mendeko buru argienak eta asmakizun harrigarrienak ezagutzera

ANTOLATZAILEAK:

BABESLEAK:

Ikusi Mikusi azoka eginen dute urriaren 11n eta 12an

Haurren eta gazteen literaturara bideratutako euskara hutsezko azokak laugarren edizioa beteko du

TTIPI-TTAPA

Laugarrenez eginen dute Saran urriaren 11n eta 12an Ikusi Mikusi azoka. Haurren eta gazteen literaturara bideratutako azoka da eta euskara hutsezkoa. *Bizi goxatu, osoki maitatu* du aurten lelotzat azokak.

Literatura oinarri, bertze hainbat ekitaldi ere izanen dira: literatura obretan oinarritutako ikuskizuna, tailerrak, animazioak, idazleekin eta ilustratzaileekin topaketak, eta hitzaldiak eta topaketa profesionalak.

Haurrak dira azokaren protagonistak eta ekitaldia espresuki antolatu dute beraien beharretara egokituz. Ortzirolean eskolei zuzendutako jarduerak eginen dituzte eta larunbatean familiei zuzendutakoak.

Saran kokatutako Mari Gorri Elkarte da proiektuaren sustatzailea, Sarako Herriko Etxearen, Galtzagorri Elkartearen eta Pamiela argitaletxearen laguntzarekin. Joan den urteko hirugarren edizioan Euskal Herri osoko 1.400 haur eta gaztek parte hartu zuten.

Erretretatuen urteko ateraldia Cagnotterat eginen dute urriaren 23an

GANEX

Erretretatuen urteroko ateraldia antolatu du herriko etxeak, urriaren 23an Cagnotterat. Autobusa 08:30ean abiatuko da piszinako aparkalekutik. Bidean gosaldia ondotik, gaur egun martxan den errota bat bisitatuko dute eta Cagnotte-

ko *La Ferme Belestou* ostatuan bazkalduko. Herrirat itzulita arratsalde hondarreko azken trago bat hartuko dute Herriko Ostatuan. Izen ematea Herriko Etxeko idazkaritzan (05 59 54 20 29) urriaren 16a arte (30 euro pertsonako, 45 euro bikotea).

Neomak taldearen eta Mainer Cigarroa abeslariaren emanaldi ederra lezeetan

GANEX

Kanpoan euria gogotik, baina Sarako lezeen atarian musikak goxatu zuen irailaren 21eko arratsa. Mainer Cigarroa senperraren kontzertuarekin hasi zen gauraldia, *Biran den lasaia* bere diska aurkeztuz eta Neomak taldearen ema-

naldiarekin bukatu, hauek ere *Airaka* bere lehen diskoaren aurkezpen birako azken kontzertuan. Hasierako giro lasaia, pandero eta trikitien erritmo biziarekin lehertu zen eta sarrrera guztiak agortu zituzten ikusleek gozatu ederra hartu zuten.



Henri Errandonea saratarra. IPB

Sarako Henri Errandonea da Iparraldeko Pilota Batzordeko lehendakari berria

GANEX

Iparraldeko Pilota Batzordeko lehendakari berria izendatu dute euskal pilota elkartek. Ustekaberikgabe, Henri Errandonea saratarrak gidaturiko zerrenda bakarra hautatu dute. Abiatutako proiektuak aitzinera eramanez ditu azken zortzi urteetan idazkari nagusi izan denak.

Henri Errandonearen taldea, Iparraldeko Pilota Batzordeko hautagai bakarra izan da, Iparraldeko pilota elkarten bozen %95ekin hautatua izan da. Pilota elkarten laguntza osoa ukan du Errandoneak, azken zortzi urteetan egindako lanaren emaitza.

Zortzi urtez Iparraldeko Pilota batzordeko idazkari nagusi izan ondoren, Henri Errandonea komitearen buru da, talde berri eta gaztetu bategin. Borondatezko engaiamendu eta talde trebe bati esker, lehendakari berriak 2016an Jean-Michel Garayar aitzineko lehendakariarekin egin zuen bideari segituko dio. Elkarlan ikuspegi bat, etengabeko gogoetan jartzea, eztabaida eta partekatze borondate bat izanen dira talde berri horren kausitzeko baldintzak, Iparraldean pilotari merezi duen lekua eta irudia ematea izanen delarik xedea.

Iparraldeko pilota batzordea zuzentzen duen talde berria 22 pilota elkartetako 32 kidek osatzen dute, eta horietatik 6 emazte dira, 12 kide berriak. Boluntariotzaren krisia handia izan arren, talde honek pilota joko ezberdinetako adituak biltzen ditu eta boluntarioek indartuko dute. Ttipi-Ttapparekin hurrengo zenbakian Errandonearen egindako elkarriketa emanen da argitaratu.



Neomak taldea emanaldi ederra eskaini zuen lezeetan. ENERITZ IRAOLA



David Gaillet eta Christian Sanchez entrenatzaile ohiak txapelarekin.

Gaillet eta Sanchez ohoratuak errugbi sasoiaren abiatzean

Zikiroa eskaini zaie jokalariei eta laguntzaileei, baina SPUCeko talde nagusiak galdu egin du etxean R1eko lehen partida

JL BESSONART

Denboraldi ezin hobeagoa eramanik, eskuratzen ahal zituzten titulu guzikiak bildurik orain hozka bat gorago ariko da SPUCeko errugbi taldea, R1 mailan. Egun hauetan, sostengatzaile batzuek bihotz onez, zikiroa eskaini diete jokalariei baita hauen hezitzaile eta laguntzaile guziei. David Gaillet eta Christian Sanchez entrenatzaile ohiak, eskertuak izan dira jokalariek eskainitako txapel ederrekilan, luzaz eraman duten lanagatik. Lehen partidari, irailaren 22an, SPUC etxean galtzaile izan da

Arudyren kontra (20-29). Ondotik jarraian dituzte Urruña, Josbaig, Ustaritze, Marsacq, Bidarte, Lembeye, Monein eta Escou-Lasseube.

Liburua Familian Larreko urriaren 13an

Liburua familian ekimenaren bederatzigarren edizioa urriaren 13an itzuliko da kalitatezko programa batekin, igandean 09:00etatik 17:00etara, Larreko Kulturgunean. Idazleak, argitaletxeak, liburu dendak, ikuskizun biziak eta mahai jokoak izanen dituzte familiek eskura.

Pantxix Bidart eta Primael Montgauziren emanaldia ortziralean Larraldean

GANEX

Hatsa elkarteak antolatu du Amotzeko Larraldean gaitzeko kantaldia Pantxix Bidart gitarrista eta Primael Montgauzi eskusoinularekin. Urriaren 4an, ortziralean, 19:00etan hasiko da emanaldia. Pantxix hazpandar musikari eta kan-

tari euskaldunak, sekulako ibilbidea darama euskal musika munduan, duela 30 urte Mister Xaguak rock taldearekin abiatuz geroztik. Primael Montgauzi okzitaniarra, bere aldetik, ongi ezaguna da. Bikote bikain honetaz ongi gozatzeko parada hor dugu.

Imanol Gosset bigarren Europako tenis txapelketan

Imanol Gosset senperrara bide onetik dabil tenisean. Jadanik, Poitiers hiriko Pole France egitura barne dago eta 12 urteko Frantziako ekipoarekin Europako txapelketan bigarren postua lortu du. Senperko tenis elkartean hasi ondotik, Donibaneko tenis elkarteari lotua da orain.



UTZITAKOA



JL BESSONART

Kukai Dantzaren emanaldi ederra

Irailaren 14an, xinaurrien pare, jendetzak segitu du Kukaiko dantzari eta musikarien ibilbidea. Eliza gibebeko parkean abiadura emanik, Larreko kulturguneko atarian jarraitu dute eta Karrikarteko egoitzen saihetsean bururatu ikuskizun ederra, jendeak begiak eta belarriak zabalik.

Montxo
 JATETXEA + ERRETEGIA
 Tradizioa, historia eta gastronomia
 asadormontxo.com

Awalar karrika, 12
 31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
 +34 848 85 00 21
 info@asadormontxo.com

UDAZKEN ETA NEGUKO MODA

Bilduma *Berrria*

%10

bazkide txartelarekin

UDAZKEN-NEGUA

Lacoste, Levis, Jack and Jones, Skechers,
Only, Vero Moda, Adidas, Tommy Hilfiger,
Polo Ralph Lauren eta Pepe Jeans

Dantxarinea · Luzaide · Ibardin · Behobia

 **PEIO**
MODE

Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)
Tel. +34 948 625 130 (Es.)

www.venta-peio.com


Zure erosketa gune hoberean
Euskal Herriko bihotzean

UDAZKEN ETA NEGUKO MODA



Belzunegui 1901 etik

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

Sasoï berrirako prest

Hemen dira euria, haizea eta hotza; udako arropak armairuan gorde eta negukoak ateratzeko garaia. Udazkenak gure janzkera aldatzeko aukera ematen digu, joera berriak eza gutuz eta zaharrak berreskuratuz. Baina gure estiloa dena dela, moda kontsumitzean argi izan behar dugu zer eta nola erosten dugun.

Gaur egun moda azkarra da zabalduena bezeroen artean; arropa merkeak eta ugariak, azkar erabili eta

botatzen direnak. Baina moda eredu honek ondorio larriak ditu gibeletik; industria kutsakorrenetakoa da, eta langileen baldintzak eskasak izan ohi dira maiz.

Horri aurre egiteko, gero eta ohikoagoak dira marka lokalak, jasangarriak eta kalitatezko jantzi iraunkorrek eskaintzen dituztenak. Gainera, bigarren eskuko arroparen salerosketak gorakada handia izan du; erabiltzen ez dugunari bizi berri bat ematen dio eta moda azkararen alternatiba ezin hobea da.

LARUNBAT
ARRATSALDE TAN
IREKIA

FAMILIA UGARIEN DUTAKO
10%
- DESKONTUA -

·1922·
Virgilio
CALZADOS OINETAKOAK

Santiago 35
31700 Elizondo (Na)
948 580 209
www.calzadosvirgilio.com

100 urte años
1922-2022



ene
Zaindu Gertuko

Ene, istorioz betetako ehungintza eta bitxigintza bildumak, Euskal Herrian egina. Moda alternatiboko marka bat, etikoa, jasangarria eta kontzientea. Egunero integratzeko erraza. Nortasun beroa, geure lurraldeetan inspiratua eta sortua.

@ene_gertu • www.enegertueus • enegertu@gmail.com • oletxe 23, 48960 Usansolo, Bizkaia



«Naturarekiko errespetua da gure nortasunaren oinarria»

EIDER ARBAIZAGOITIA KOT TALDEA

KOT taldea Laudion (Araba) lan egiten duen jantzi marka da, Grafik diseinu grafikoko kooperatibaren barnean dagoena. Lantaldean 20 urte baino gehiagoz aritu den Eider Arbaizagoitiak azaldu duenez, «1996an sortu zen marka, kirol arropa eta jantzi informalak uztartu nahian, gure luraren ikurrak kalitatezko produktuekin lotzeko helburuarekin». Kotoia erabiltzea erabaki zuten, «eta hortik sortu zen markaren izena».

Diseinuak «Euskal Herriko txoko, animalia eta naturan» oinarritzen dira. «Esan dezakegu naturarekiko errespetua eta Euskal Herria maitatzea direla bi ardatz nagusiak, beti kalitatezko diseinuak sortu nahian».

Markaren produktu ezagunenak mutil, neska eta haurrentzako kamisetak eta kirol jertseak dira, «baina azken urteotan jakak, zirak, prakak, txanoak, poltsak eta gehiago egin ditugu. Urtero bi bilduma egiten ditugu eta saiatzen gara bilduma borobilagoak erakitzen». KOTen lehenbiziko bilduma «Euskal Herriko zuhaitzen hostoetan» oinarritu zen, «eta bigarrena tokiko faunan». 1999an hasi ziren mendien irudiak erabiltzen, «eta gaur egun markaren identifikazio ikur bihurtu dira».

Jasangarritasuna helburu

Diseinuari ez ezik, materialari ere garrantzia ematen diote; «naturarekiko errespetua gure nortasunaren oinarria da, guk eta gure ondorengoek inguratzen gaituenaz disfrutatzea nahi dugulako. Egunero ikasten eta hobetzen saiatzen gara». Hori dela eta, kotoi organikoa da jantzien oinarria, eta material berriak erabiltzen hasi dira, adibidez, tencela (zelulosa oinarri duen ehuna) eta birziklatutako poliesterra.



Azaldu duenez, «Euskal Herria gero eta kontzientziatuagoa dago jasangarritasunarekin, horregatik izan dute harrera ona gure jantziek». Izan ere, «gu ez gaude batere ados moda azkarrarekin. Arropa azkar eta kopuru handian ekoiztea industria kutsakorrenetakoa da, eta horrekin batera langileen baldintza txarrak ikusten baditugu, guztiok planteatu beharko genuke bertze modu batean kontsumitzea».

Gaur egun 30 salmenta puntu ditu markak Euskal Herrian zehar, baita Piriniotan ere. Gainera, «urte batzuk ditugu online dendarekin, *kot.eus*, eta hor azken bilduma ikusi eta eros daiteke». Sare sozialak ere erabiltzen dituzte; «Instagram (@kotnatura) eta Facebook. Garai hauetan, ezinbesteko erakusleihoak dira».

Internetetik kanpo, «publizitatea era tradizionalan erabiltzen dugu inguruko prentsan, eta kirol taldeen babesle bezala aritzen gara. Euskal kulturatik ere oso gertu sentitzen gara eta horren alde egiteko prest gaude beti, Loraldia bezalako proiektuekin elkarlanean, adibidez».

UDAZKEN
NEGUA
2024



Gertuko dendak:

FANTXIKE

Jaime Urrutia 15, Elizondo
LEITZA KIROLAK
Elbarren 36, Leitzan

KOT.eus

BIOK

FASHION




**Berritu zure
armairua gure
dendetan!**

GIZON ETA EMAKUMEENTZAKO MODA

**...hurbildu eta deskontuak
aurkituko dituzu**



OSAGARRIAK



BITXIAK



ZAPATAK

BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING



Deskontuak lortu
eta pilatu puntuak
zure erosketan
guztietan.



ventabiok.com

IBARDIN - DANTXARINEA - VALCARLOS



Bidasoa Isuria proiektuaren aurkezpenan, ezkerrean, Errekako Pablo Elizondo.

Bidasoa Isuria proiektuan parte hartuko du Errekak

Irungo CD Bidasoa eta Hendaiako Stade Hendayais Handball taldeekin mugaz gaindiko hitzarmena sinatu du

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Irungo CD Bidasoa eskubaloi taldeak proiektu berri baten berri eman du, Stade Hendayais Handball (Hendaia, Lapurdi) eta Doneztebeko Erreka taldeekin batera, eskubaloiaren bidez pertsonen garapena sustatzeko. Ibaiak banandu gaitzakeen arren, hiru klubek, bidasotarren gidaritzapean, bat egingen dute eta entrenamendu bateratuak, elkarbizitazarako eta ikaskuntzarako jardunaldiak sustatuko dituzte hiru eskualdeetako gazteentzat.

Proiektuaren helburua kirolaren bidez benetako sare bat sortzea da, muga, hizkuntza eta ohituren gainetik. Horrela, CD Bidasoak ezagutza teknikoak, eskualde guztietarako erakargarriak diren ekitaldien irismen soziala eta zabalkunderako gaitasuna emanen ditu; Stade Hendayais bere prestakuntza balioa, eskualdeko klubekin duen lankidetzaren sare eta sare komun bat sortzeko borondatea emanen ditu; eta Erreka kirol elkarteak Nafarroako iparraldearekin lotzeko gunea izanen

da, historikoki Bidasoaren arrotik eta Iparraldetik gertuen dagoena.

Hiru ildo

Bidasoa Isuriaren barrenean, hiru ildo bereizten dira: kirol proiektzioa duten jokalarientzako teknifikazioak (entrenamendu espezializatuak), inplikaturako hiru eskualdeetan egingen direnak; Irunen kirol ekitaldiak antolatzea, mugaz gaindiko espazioaren ardatza eta Euroeskualdeko eskubaloiarako erreferentzia puntua, Bidasoa Irun pertsonen talde erreferentzia izanen dena; eta CD Bidasoaren jardueren bidez Euroeskualdeko enpresen eta erakundeen arteko lankidetzaren alde horretatik, hiru eskualdeetako enpresen arteko lankidetzaren bultzatu eta erraztu nahi da, lehen taldeak Artalekun egiten dituen topaketetan jadasortzen diren espazioen bidez. Horrez gain, eskualdeko eremua presatatu nahi da Irungo IAM pabiloi berria hartzeko, 2028rako aurreikusita dagoena, eta mugaz haraindiko bokazioa duena.



Doneztebeko Xake Azkarreko hirugarren edizioko parte hartzaileak. UTZITAKOIA

Aritz Manchak irabazi du Doneztebeko Xake Azkarreko III. Txapelketa

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Doneztebeko Xake Txapelketa Azkarraren III. edizioa jokatu zuten irailaren 14an eta 15ean. 36 lagunek hartu zuten parte, eta Aritz Mancha izan zen irabazlea. Bigarren lekuan Juan Jose Navas sailkatu zen eta hirugarrenean Mikel Razkin. Lehenengo herritarra, berriz, Iñigo Ostiz izan zen.

Iñigo Ostiz antolatzaileak nabarmendu duenez, orain arteko lehiaketa jendetsuena izan zen. Eskualdeko xake jokalariez gain, Irunetik eta Iruñeritik ere bertaratu ziren. Maila ederra izan zuen txapelketak gainera, Nafarroan pisu handia duen Mikel Gureak taldeko hainbat kide bertaratu baitziren, baita elkarreko lehendakari Mikel Razkin ere.

10 minutuko sei partida jokatu behar izan zituzten par-

te hartzaileek, eta lehen postuan Aritz Mancha gelditu zen. Mikel Gureak taldeko Juan Jose Navasentzat izan zen bigarren postua. Hirugarren posturako hiru jokalarizuten lau puntu eta erdirakin eta *tie breakera* jo behar izan zuten. Desenpatea eginda, azkenerako, Mikel Razkin izan zen hirugarren sailkatua.

Doneztebeko txapelketa, berriz, Iñigo Ostiz izan zen 4,5 puntu lortuta. Nahiz eta bigarren partida galdu, egokiarri buelta emateko gai izan zen doneztebarra, eta hala etxeko lehen garaipena lortu zuen.

Azpimarratzeko, Jorge Ostiz doneztebarraren garaipena Henry Diazen kontra. Izan ere, txapelketako mailarik altueneko jokalaria zen eta baita txapelketa irabazteko faboritoetako bat ere.

Agoizko mendi lasterketa nagusitasunez irabazi du Ane Elzaurdia beratarrak

Udako geldialdiaren ondotik, Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak antolatzen duen Nafarroako Kopako Mendi Lasterketa proba jokatu zen irailaren 15ean Agoitzen, Agoizko mendi lasterketa hain zuzen. Emakumeen artean, 21,5 kilometro luze eta 1.400

metroko desnibel positiboa zuen lasterketa bukatzen lehena, Soronea Amma taldeko Ane Elzaurdia beratarrak izan zen (2.19.55, orokorrean zortzigarren). Bigarren izan zen Portugaleteko Eztizen Duque eta Zarauzko Nerea Amilibiak osatu zuen podiuma (2.40.24).

Euskal Herriko lehen mailako aizkolariak finalaren bila

Urriaren 5ean jokatuko dute kanporaketa Donezteben, hilaren 27an Gasteizen jokatu den finalerako sei txartelen bila

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Euskal Herriko lehen mailako aizkolarien kanporaketa jokatu dute urriaren 5ean, larunbatean, 18:00etan Doneztebetebe Ezkurra pilotalekuan. Hamaika aizkolarari ariko dira lehian, urriaren 27an, hileko azken igande eguerdian Gasteizko Iradier Arenan jokatu den finalerako sei txartelen bila.

Zigako Josean Etxeberria izanen da eskualdeko aizkolaria bakarra eta berekin batera, Iker Vicente, Hodei Ezpeleta, Oier Kañamares, Julen Gabirondo, Xuban Kañamares, David Naredo, Xabier Zaldua, Jokin Urretabizkaia *Basozabal*, Andoni Iruretagoiena *Izeta VI.a* eta Aritz Irazabal ariko dira lehian. Aizkolaria bakoitzak sei enbor moztu beharko ditu, 54 ontzako bi, 60 ontzako bi

eta 72 ontzako bi, finaleko lanaren erdia, hain zuzen.

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren hauteskundeak

Lau urtetik behin egin ohi den bezala, Nafarroako Herri Kirol Federazioko Batzarra eta Lehendakaria hautatzeko hauteskundeak aurten egingen dira. Hauteskunde prozesua irailaren 16an hasi da eta abenduaren 17an bukatuko da.

Behin deialdia eginda, urriaren 9tik 11ra izanen da Batzar Nagusirako hautagaiak aurkezteko aukera. Urriaren 25ean Federazioko Batzar Nagusiko kideak hautatzeko bozketa egingen da eta azaroaren 30ean Batzar Nagusia eratzeko deialdia egin eta Federazioko lehendakaria hautatuko dira. Abenduaren 17an hartuko du kargua Federazioaren buruak.



Mikelarena, Sagaseta, Iturregi, Mitxeo eta Leatxe, ate irekien jardunaldian.

Nafarroako erremonte txapelketaren finala urriaren 5ean Zubirin

TTIPI-TTAPA

Nafarroako erremonte txapelketaren hemeretzigarren edizioako finala urriaren 5ean jokatu dute Zubirin. Hau idazterakoan bikote bat seguru da azken partidari: Eloy Otxandorena doneztebarrak eta Ionek txartela lortu dute, finalerdietako bi partidetan Xuban Iturregi iruritarri eta Aimar Saldias oiztarrari irabazi ondotik. Zuzen bidean, Xanti Uterga doneztebarrak eta Agirrezabala izanen dituzte arerio. Hauek finalerdietako joaneko partidari 35-17 irabazi zieten Jon Sagaseta irurita-

rrari eta Otanori. Irailaren 29an jokatzekoa zuten itzulerako Ribaforadan eta hor erabakiko da bigarren bikote finalista.

Ate Irekiak

Erremonte Fundazioak antolatutako ate irekien jardunaldia egin zuten irailaren 12an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Erremonte Iruña enpresako pilotari gazteek ere parte hartu zuten jardunaldian, eta hitzordura hurbildu ziren neska-mutikoekin aritu ziren jolasean eta kamisetak zozketatu zituzten.



UTZITAKOA



UTZITAKOA

Julen Kañamares txapeldun 2. mailan

Xafarroako bigarren mailako aizkolaria txapelketaren finala jokatu zuten irailaren 22an Uhartan. Julen Kañamares suertatu da txapeldun eta Etxarri Aranazko Jon Erdozia txapeldunorde. Biak mailaz igo dira. Jesus Etxeberria beintza-labaiendarrak osatu zuen podiuma.

Iturriaga txapeldun IV. Plazaz Plazan

Donostiako Trinitate Plazan jokatu zen irailaren 15ean Ados Pilota Elkartek antolatutako Plazaz Plazan txapelketaren laugarren edizioako final ikusgarria. Iturriaga leitzarrak eta Zabalak 22-20 irabazi zieten Mujikari eta Ruiz de Infanteri. Bi bikoteak partidari galdu gabe iritsi ziren finalera.

AGENDA

URRIAK 3 - 17

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



IKUSI MIKUSI

SARA Ikusi Mikusi haur eta gazte literatura azoka

Ikuskizun, tailer, topaketa eta mintzaldiak, artista, argitaletxe, idazle, ilustratzaile eta profesionalen eskutik. Urriaren 11n eta 12an, 10:00etatik 19:00etara. Xehetasunak 60. orrialdean.

SOLASALDIAK

ETXALAR

'Hipnoparto' liburuaren euskarazko aurkezpena

Oihana Lopez Cestaorekin. Pello Apeztekoa Kulturgunean, urriaren 3an, 18:00etan.

ARESO

Taberna-ostatuaren proiektuaren inguruko batzar irekia

Udaletxeko batzar aretoan, urriaren 3an, 18:00etan.

LEITZA

'Leitzako txistularien errepertorioa, Angel Alduntzin eta Miguel Angel Sagasetaren eskutik: interpretaziotik eskuizkribuetara' hitzaldia

Udaletxeko batzar aretoan, urriaren 4an, 18:00etan.

LESAKA

'Gazteak eta pantailak' liburuaren aurkezpena

Liburutegian, urriaren 3an, 18:00etan.

Merkataritzarako tailerrak

Koskontako Bideko udal aretoan, urriaren 15ean, 14:30etik 16:30era.

DONEZTEBE

Modu positiboan pentsatzen ikasteko tailerra

Neli Yancirekin. Herrigunean, urriaren 5ean, 09:30etik 13:30era.

ELIZONDO

Baztango etxebizitzaren problematika lantzeko batzar irekia

Arizkunenean, urriaren 10ean, 19:00etan.

Baztango Talde Ekosozialaren merienda-aurkezpena

Amezti elkartearen, urriaren 11n, 19:00etan.

'Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da' liburuaren aurkezpena

Hasier Larretxearekin. Txokoton, urriaren 13an, 12:00etan.

IKUSKIZUNAK

ERRATZU

Ane Lindaneren bakarrikzeta

Elkartean, urriaren 3an, 19:00etan.

SENPERE

Pantxix Bidart eta Primaël Montgauziren kontzertua

Laraldean, urriaren 4an, 19:00etan.

ITUREN

Jon Plazaolaren bakarrikzeta

Koianea Txikia frontoian, urriaren 4an, ilunabarrean.

ELIZONDO

Piano eta biolontxelo kontzertua

Jokin Taboada eta Paula Azkonarekin. Arizkunenean, urriaren 4an, 19:00etan.

Martti Mäkkelären kontzertua

Txokoton, urriaren 17an, 20:00etan.

BERA

'Ezkaba' antzerkia

Iluna Producciones taldearekin. Kultur Etxean, urriaren 5ean, 19:00etan.

'Anbotoko Mari' antzerkia

Kultur Etxean, urriaren 13an, 17:00etan.

LEITZA

'Azken otsoa' ipuin kontaketa eta tertulia dialogikoa

Liburutegian, urriaren 15ean, 17:30etan.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, urriaren 5ean eta 12an, 11:00etatik 14:00etara.

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, urriaren 12an, 10:00etatik 13:30era.

ARESO

Mendialdeko Azoka

Plazan, urriaren 13an, 11:00etatik 14:30era.

KIROLAK

GOIZUETA

Arainburu Mendi Taldearen irteera Arantzara

Urriaren 5ean.

DONEZTEBE

Euskal Herriko Lehen Mailako azikolarien kanporaketa

Ezkurra pilotalekuan, urriaren 5ean, 18:00etan.

ELIZONDO

Erregearen Kopako aurre kanporaketa

Giltxaurdin, urriaren 9an, 19:00etan.

NIRE AUKERA

«Guk eta guretako eginak dira Anizko bestak»

AINHOA MARITORENA AZKARATE ANIZTARRA



«Momentu honetan bere buruarekin bakean dagoen emakumea». Halaxe aurkeztu du bere burua Ainhoa Maritorea aniztarrak; «lasai bizi dena, ilusio haundikoa, eta egunerokoa bizitzen duena». Ibiltzea, frontenisean aritzea eta lagunekin egotea du gustuko, eta doike, prest dago urriaren 4tik 6ra herrian ospatuko dituzten bestetarako.

Herri bizia

Herri ttikia da Aniz, «baina ttikia izateak ez du erran nahi bizitasunik ez duenik. Anizen bizi garenok hemen bizitzea erabaki dugu, eta herri bizia nahi dugu, hortaz, ekitaldiak antolatzen ditugu». Eta ez dira gutti, izan ere, «urteroko ohiturez gain, hau da, urte txak, Orakunde, Olentzero... bertze batzuk ere antolatzen ditugu: xingar jateak, Asteburu Kulturala, Gau Beltza... herritar guziendako izaten dira, ez haurrentako bakarrik». Herriaren etorkizunari dagokionez, «momentuan gazte eta nerabe aunitz bada. Haurrak gutxi dugu, hortaz, etorkizuna nola izanen den ez dakigu».

Argi du, ordea, herriko bestak izanen dituztela fite, egun bereziak aniztarrendako. «Hiru egun izanagatik, goizetik gauera artio frontoian egoten gara egun guzia. Otordu guziak frontoian egiten ditugu, ekitaldiak guk antolatu eta parte hartzen dugu... dena guk eta guretako egina da, eta horrek egiten ditu berezi».

Oroitzapen politik

Ttikitatik bizi izan ditu bestak, eta oroitzapen ugari ditu: «etxea jendez betea, ama lanean eta musika aditu orduko kanporat joaten ginela. Igande goizetan frontoira joaten ginen sosik ote zen ikustera, eta harrapatzen genuen! Gogoan dut haurrak ginela zikiroan zerbitzatzen aritzen ginelarik, Txomin Amorenak prestatzen zuen zikirotik sobratzen zena jaten aritzen ginela». Musikak ere ez zuen hutsik egiten: «Naigi taldearen arras oroitzapen ona dut, eta gaztetan, 1997. urtean, Anje Duhalde etorri zen eta ikaragarria izan zen».

Urteekin, bestak «aunitz aldatu dira. Nik ezagutu duda-

nez geroztik, beti urriaren lehenbiziko igandean izan dira, baina orain dela 50 urte baino gehiago abuztuaren 15ean ospatzen ziren. Baztanen bertze herri aunitzetan ere bestak data horretan zirenez, aldatzea erabaki zen».

Bestak denendako

Hori ez da aldaketa bakarra izan; «lau egunetik hiru egun izatera, larunbatetik asteartera izatetik, larunbatetik astelehenera, eta orain ortziraletik igandera». Jende alde-
tik ere, «gaztea nintzelarik jende aunitz etortzen zen, karretera bazterra kotxez betea egoten zen... gaur egun jende gutiago etortzen da eta gan-torria dugu. Horrez gain, lehen polleroa etortzen zen, frontoia ez zuen goraperik...».

Bada berdin segitzen duenik ere: «Anizko Gazteak-eko blusa. Hiru urtetik hasi eta 60 urteak artio, denok dugu blusa urdin bereizgarria!». Gaur egun, besta egiteko «ortziralea dut egunik gustukoena, baina ekitaldi bat hautatzekotan, igandeko karaokea hautatuko nuke».

Herritar guzien artean antolatzen dituzte bestak, «ez dugu besta komisiorik, edo damunausirik, herriko batzarrak antolatzen ditu. Eta doike, gozatu ere denon artean egiten dugu!». Baina herritik kanpoko jendea ere hurbiltzen da; «Basaburuko bertze herrietatik eta hondar urte hauetan Baztango bertze herrietatik ere heldu dira zopetara. Iaz, erraterako, 120 lagun bildu ginen zopetan, 70 biztanleko herri batendako, ikaragarria!».

Bereziki berroetarrekin bizitzen dituzte besta egunak, lotura estua baitaukate: «inauteriak ere elkarrekin ospatzen ditugu, lagun taldeak bi herrietakoak dira, sagardotegira irteera urtero bi herrietakoek elkarrekin egiten dugu... arras lotuak gaude».

URDAZUBI

Kontrabandisten Lasterketa

Urriaren 12an eta 13an.

ERAKUSKETAK

BERTIZ

Diana Iniestaren 'Coups de coeur' margo erakusketa

Parkearen erakusketa gelan, urriaren 31ra arte, irekiera orduetan.

ELIZONDO

Landa eremuko emakumeen antzinako argazkiak

Arizkunenean, urriaren 31ra arte, lanegunetan 18:00etatik 20:00etara.

JARDUNALDIAK

LEITZA

Aurrera Eguna

Urriaren 5ean.

URDAZUBI

Burgete arrazako pottoken feria eta 2024ko Urrezko Aizkolari txapeldunen liga

Urriaren 6an.

SENPERE

'Liburua familian'

Larreko Kulturgunean, urriaren 13an, 09:00etatik 17:00etara.

ARESO

Liburutegi ibiltaria

Eskolako atarian, urriaren 16an, 14:00etatik 14:30era.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA


ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO

HERNANI. Pisua errentan emateko. Erdigunean. Donostiara, EHUra.... doan autobus geltoki ondoan. 110 m². 5 logela. Ikasleentzat aukera bikaina. ☎ 678 74 11 96 / 675 70 52 38.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI



LESAKA. Koskontako Bidea, 1. zenbakian, lokala/garajea salgai. Auto bat eta moto bat sartzeko modua. Ganbara ttiki batekin. ☎647 62 86 53.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Lurpeko aparkalekua errentan emateko, Eitzetako plazan. ☎629 48 06 24.



NARBARTE. Nabe industrialia errentan emateko. Errepidetik 150 metro-tara. Espazio irekia eta argitsuua. 250 m² erabilgarri, bulegoa eta komuna barne. Oinarritzko zerbitzuekin; ura eta argia. 2 sarrera: ate handia (kamioientzako) eta ondoan bertze ate eder bat. Egonaldi laburrak edo luzeak. ☎696 03 25 11.

LURRAK/ORUBEAK

EROSI

ELIZONDON EDO INGURUKO HERRIETAN. Belai edo landa lursail ('rustico') baten bila. 3.000 metrotik gotikoa. Bordarekin edo gabe. ☎629 56 49 22.

LANA

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Mikelenborda jate-txean asteburuetan aritzeko zerbitzari bila. Eguerditik aitzinera 12:00etatik bukatu arte, 17:00 aldera arte. ☎650 60 75 09.

Eguerdietan lanean aritzeko zerbitzari bila. Igandeak eta astelehenak libre. Idatzi Whatsappez. ☎654 48 99 62.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

NARBARTE. Ikastetxetik arratsaldetan haur bat hartzeko pertsona baten bila. Merienda emateko, parkean egoteko eguraldi ona egiten badu edo etxera eramateko. Gehienez hilabetean 10-15 egun, 16:00etatik 18:30era, gutxi gorabehera. Deitu 18:30etik aurrera. ☎686 84 03 80 (Blanca).

IBARDIN. Beola Etxean, asteburuetan aritzeko zerbitzaria behar dute, 12:00etatik 17:00etara aritzeko. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculuma: administracion@beolaetxea.com.

IBARDIN. Beola Etxean, biltegiko langilea behar dute egunero lanaldi osoan aritzeko. Bidali curriculuma: administracion@beolaetxea.com.

IBARDIN. Beola Etxean, supermerkatuan asteburuetan lanaldi osorako langilea behar dute. Hiru astebururik bat libre. Frantsesez jakitea kontuan

hartuko dute. Bidali curriculuma: administracion@beolaetxea.com.

IBARDIN. Beola Etxean, supermerkatuan egunero lanaldi osoan lan egiteko langilea behar dute. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculuma: administracion@beolaetxea.com.

Barran aritzeko zerbitzari bila. Bi aukera izanen lirateke: Astelehene-tik ortzegunera 17:00etatik 21:00etara edo lanaldi osoan igandeak eta astelehenak libratuz. Esperientziaduna. Interesatuak deitu. ☎620 70 09 64 / 636 26 73 69.

IBARDIN. Benta Gorrian zerbitzari bat behar dute. Ordutegia: 12:00-16:00. Frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculuma: bentagorria@hotmail.com. ☎618 00 27 31.

ULTZAMAKO fabrika batean lan egiteko langile bila, 07:00etatik 15:00etara, astelehenetik ortzirale-
ra. ☎948 30 67 06.

LESAKA. Olaberria jate-txean larunbat eta igande eguerditan aritzeko langilea behar dute. ☎948 63 73 27.

ESKARIAK

Carol izeneko 41 urteko emakumeak zaharrak edo gaixoak zaintzen lan eginean luke, interna. ☎631 30 99 36.

Berako neska bat adinekoak eta haurrak zaintzen ariko litzateke. Segidan hasteko prest. ☎603 10 11 92.

BERA. Mutil bat pintore lanetan ariko litzateke. Esperientziarekin. ☎627 31 04 10.

DONEZTEBEN EDO INGURUKO HERRIETAN adinekoek konpainia egin eta etxeak garbitzen ariko litzateke. Goizez, asteartetik ostiralera. ☎660 60 12 15.


DENETARIK

SALEROSKETAK



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

OPARITZEKO



Txotxongilo polit honi bizitza eman nahi diozu? Beintzako Ostata-Aterpetxean kendu behar eta gustura emanen dute. ☎659 47 73 96 (Whatsappez).

GALDU-AURKITUAK

DONEZTEBE. Gizezkoen larruzko kazadora beltza galdu dute orain dela pare bat hilabete. ☎699 92 46 14.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Bi hilabete bost katakume opari. Kolore aunitzetaoak eta aski politak. ☎0033 689 12 70 36.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,51 €
- 1.koa 5,39 €
- 2.koa 5,27 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,62 €
- 1.koa 5,48 €
- 2.koa 5,37 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00 €
- Idixkoak 200,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak 70,00 €
- Idixkoak 110,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,52/5,62 €
- Zaldi-behorrak: 2,55/2,72 €

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,90/9,00 €
- 8-10 kilokoak: 7,50/8,20 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 56 €

Zerri gizona 1,729 €

Zerramak 0,790€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua. Irailaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

AMAIUR. Sei katakume oparitzeko. Bi hilabetekoak. Argazkiak bidaltzen ahal ditu. ☎671 73 55 51.

OIZ. 6 hilabeteko Collie zakurra oparitzeko, pasaportearekin. Pasapor-tearen kostua bakarrik kobratuko da. ☎606 01 93 37 (08:30 aldera edo 20:00 aldera deitu).



SORTZEAK

- **Luken Ugarte**, Sarakoa, irailaren 6an.
- **Noa Jauregui Legasa**, Igantzikoa, abuztuaren 21ean.

EZKONTZAK

- **Arno Bonpart** eta **Manon Maitia**, irailaren 6an Saran.

HILBERRIAK

- **Jean Claude Bidet**, Saran, irailaren 12an, 78 urte zituela.
- **Pierre Indaburu**, Saran, irailaren 13an, 57 urte zituela.
- **M^a Josefa Garaikoetxea Goienetxe**, Erratzukoa, irailaren 11n, 94 urte zituela.
- **Francisco Javier Rezola Estanga**, Aresokoa, irailaren 12an, 78 urte zituela.
- **M^a Socorro Iñarrea Sanzberro**, Elizondokoa, irailaren 13an, 73 urte zituela.
- **Justo Apeztegia Larralde**, Lesakakoa, irailaren 14an, 67 urte zituela.
- **Enrique Jose Pellejero Lazkano**, Aresokoa, irailaren 15ean, 92 urte zituela.
- **M^a Luisa Bergara Mendiburu**, Lesaka-Zugarramurdi, irailaren 16an, 74 urte zituela.
- **Blanca Maisterrena Huarte**, Elizondokoa, irailaren 17an, 84 urte zituela.
- **Pepita Zubillaga Etxaiz**, Lesakakoa, irailaren 18an, 85 urte zituela.
- **M^a Jesus Sarratea Sarratea**, Doneztebekoa, irailaren 18an, 92 urte zituela.
- **Miguel Angel Ezkurra Sagardia**, Sunbillakoa, irailaren 19an, 67 urte zituela.
- **Josetxo Aranbillet Irazoki**, Berakoa, irailaren 19an, 81 urte zituela.
- **Alejandro Zubieta Zubieta**, Etxalarkoa, irailaren 21ean, 72 urte zituela.
- **Jose Agirretxe Ezama**, Lesakakoa, irailaren 21ean, 94 urte zituela.
- **Milagros Bergara Garbisu**, Lekarozkoa, irailaren 22an, 89 urte zituela.
- **Jose Antonio Eraso Habans**, Iruritakoa, irailaren 22an, 84 urte zituela.
- **Manuel Goizueta Gaztañaga**, Leitzakoa, irailaren 22an, 81 urte zituela.
- **Joxe Irigoien Etxabide**, Lesakakoa, irailaren 24an, 95 urte zituela.
- **Maria Victoria Bereau Elizalde**, Etxalarkoa, irailaren 24an.

URTEBETETZEAK



Amaiurko **Goren Mujika Elizalde** gizontxoak urriaren 6an 7 urte beteko ditu! Ongi pasatu zure egunean!!



Amaiurko **Alain Ariztia Garmendiak** 2 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak zure familiako partetik!!! Muxu haundi bat!!!



Arantzako **Intza Mendizabal Maizek** 5 urte bete ditu irailaren 24an. Aunitz urtez familia guziaren partetik! Muxu haundi bat!




Lesakako **Izar Plaza Maiak** 5 urte bete ditu irailaren 30ean. Zorionak eta aunitz urtez etxeko partez!



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** 10 urte bete ditu urriaren 1ean. Zorionak eta aunitz urtez aitaren eta amaren partetik!!!



Aunitz urtez, **Ekhi!** Gure tolosar ttiakiak urriaren 6an 2 urte beteko ditu. Muxu haundi-haundi bat familia guziaren partez. Ederki ospatuko dugu!



Lesakako **Jare eta Endara Maia** lehengusinek 13 eta 5 urte beteko dituzte urriaren 5ean eta 6an. Muxu haundi bat familiaren partetik.



Arene Larregi Indakoetxeak irailaren 24an 3 urte bete ditu. Aunitz urtez printzesa familia guziaren partez.



Urriaren 14an **Enea Mindegia Mortalena** gure etxeko printzesa 5 urte beteko ditu! Zorionak eta aunitz urtez, aitaxo, amaxo eta irailaren partetik!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPANen **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsappez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttiakia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

OROIGARRIA

**Justo
APEZTEGIA LARRALDE**

Lesakan, 1957/04/23 - 2024/09/15

*Etxe guztitan egurra landuz
euki duzu lanbidea,
gustoko zenun Iratin barna
onddo bila ibiltzea,
azken urtetako pozgarria
gure aitabxi izatea,
eman diguzun guztiagatik,
ezinezkoa zu ahaztea.*

ETXEKOAK



OROIGARRIA

**Pepita
ZUBILLAGA ETXAIZ**

Lesakan, 2024ko irailaren 18an, 85 urte zituela.

*Ilargia hutsik dago
baina ilargi bete da
nahiz itzuli nahi genukeen
amonaren magalera
sentituko dugu sartu
ahala zure etxera
berriz biziko zarela
attonarekin batera.*

Egun gogor hauetan gurekin izan zareten guzietan, mila esker!

ETXEKOAK



URTEURRENA

**Beñat
ETCHART VERDU**

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an
XIII. URTEURRENA

*Ispiluaren muga
zure begirada ikusten dut
zauden lekuan zaudela,
maite zaitugu Beñat.*

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA



OROIGARRIA

**Pepita
ZUBILLAGA ETXAIZ**

Lesakan, 2024ko irailaren 18an, 85 urte zituela.

*Sua pizten zenuen bitartean
denak ginen gibelean.
Su ondoan ezinbertzean,
sutondoan denon artean.
Epeltasunean bero, zorionean.
Joan zinen ezustean
baina hazten, hezten eta goxatzen
jarraituko dugu zure gerizpean.
Muxu bat, Pepita.*

TANTIRUMAIRU IKASTOLAKO LANGILEAK






IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

*Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak*

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

OROIGARRIA

**Joxe
IRIGOIEN ETXABIDE**

Lesakan, 2024ko irailaren 24an

*Istorio zirrargarriak bizi
eta kontatu dizkiguzu.
Bihotz onekoa izan zara,
sentibera eta kementsua.
Familia burua eta ezin Atautxi hobe.
Eskerrik asko emandako ereduagatik.
Goxo elkar zaitetz Amatxirekin.
Gure bihotzetan bizi zara!*

ZURE BILOBAK ETA BIRBILOBAK



Baztan Bidasoa Ehorzketak 

**BAZTAN
ELIZONDO** · Santiago Kalea, 79

MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO **ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere.

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE

tanatorioak


Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara


 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

HITZ GEZIDUNAK

	◆ Izena ▼	◆ Deitura ▼	Amildegi ▼	Gure ibai nagusia ▼	Begirada ▼
	Edozein motatako	Gauerokoa	Baldresak	Bigarren pertsona	Erre ez den gai beltza
	Noranzkoa ▶				
	Maiz, usu				
Kazkabarra, txingorra ▼	Sufrea ▶ ▼	Ez emea ▶		Anno Domini ▶	Keinuak eginez
Bare	Sarako herritar	Nafarroako basoa		1 eta 50	
▶			Ipar EHn, arrozak		
			Alderantziz, bat eta bat		
Bizkaiko udalerrria ▶				Lili ▶	
Arras bihurria				Ez ezin	
▶					Jardun ▶
					Moduak
Da, baina niri ▶			Galbahe ▶		Non atzizkia ▶
Tente			Galdetzaille bat		Arnasa hartu ezinik hil
▶		Gertaera harrigarri ▶			Uranioa ▶
		Ibai ororen hasieran			Kanpo, landa
Gipuzkoan, zain ▶			Erbioa ▶	Teilatuko oholak ▶	
Zirujaua			Bokala	Lehenengo letra	
▶					Gona, zaila

◆ Gure lurraldeko futbolaria, baztandarra


GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Urdazubiko auzoa. [2] Erabil-tzen ari da. [3] Trakets. [4] Altzarrietan jartzen den apala. [5] Su armetako jaurtigaia. [6] Edo. [7] Bihia, garaua. [8] Karrika. [9] Gure lurraldeko udalerrria, Bortzirietan. [10] Esatariak. [11] Ohoinak, lapurrak.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN

SUDOKUA



ZORIONAK!
AMANE LIZASOAIN ZUBILLAGA

862. aldizkariko irabazlea zara!



Hodeiak saretzen direnean, zerua ageri da. Bete itzazu hutsuneak SARETU hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (S, A, R, E, T eta U). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiturr)

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,
Ttipi-Ttapako Whatsapera: (0034) 744 48 43 61
zure izen-abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 9.



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

<http://plazanbazan.eus/>

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA


Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipi.eus/ttipi-txartela

862 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
Miguel Andresena Etxeberria | LEGASA
- Onddo ta punto - Kamiseta bat**
Jose Maia Altzugarai | LESAKA
- Hara bi - Poltsa bat**
Juana Mari Eizagirre Otxandorena | SUNBILLA
- BKZ Abentura - Sarrera bat**
Gurutze Udaeta Saharrea | ORONOZ
- Salting Iruñea - Bi sarrera**
Fco. Jose Antsalas Inarrea | ALMANDOZ
- Wow Park - Sarrera bat**
Mireia Garcia Garcia | IGANTZI
- Mendukilo - Bi sarrera**
Jesus Arburua Iparragirre | BERRIOZAR
- Anikote - Spinning saioa**
Xabier Barberena Urroz | LEITZA
- Katxiporreta - Bi liburu**
M^o Angeles Bengoetxea Agerrebere | BERA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Poltsa bat

EZKEXA
www.ezkeza.com



Kamiseta bat

IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com



Sarrera bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

LA RHUNE
www.rhune.com



Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

EDR GUNEA
Elbarren 67, behe - Leitza



Lote bat

Sartu

ttipi.eus/ttipi-txartela

webgunean eta ikusi abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGIALETXEAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttapi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

MUSIKA

Hiru CD



baga-biga
MUSIKA IDEIAK

www.baga-biga.eus